

# ESPEDIENTEA

FELIX ZUBIAGA



# **ESPEDIENTEA**

**Félix Zubiaga**

EUSKO JAURLARITZAKO  
KULTURA ETA TURISMO SAILAK  
SUBENTZIONATUA

Egilea: Felix Zubiaga  
Eragilea: Fermin Iraolagoitia  
Marrazkilaria: Jesus Antonio Ruiz «Jesse»  
I. S. B. N.: 84 - 398 - 9672 - 7  
Depósito Legal: BI - 864 - 1987  
Argitaratzailea: IBAIZABAL. Euba.  
Tnoak.: 673 04 86 - 673 18 50

---

IGARRI. S. C. L. — Rafaela de Ybarra, 1 — Deusto - Bilbao

# 1

Basauriko espetxean, agorrak 3, 1974an, zapatuz.

Auzimaisu jauna: Urigueneko ezbeharra jazo zaneke iluntze haretan ni etxeratu nintzaneke, gau heldua zan; hamabiterdiak hortxe-hortxe. Uribeko jaiak ziran, Saninazioak, eta Anemiren nire andregaiak eta biok dantzeari ekin geuntson hango plazan iluntzeko hamaikak ingurura arte. Gero edari freskagarri bat hartzera joan gintzazan.

Han egozan geugaz bateratsu joaneko Urigueneko beste neska eta mutil batzuk be. Mutil gehientsuenok motodunak gitzazanez, bakoitzak berera antolatzen eban itzulera edo neska laguntzea; batzuk arinago, beste batzuk beranduago, norbere etxerainoko hurruntasuna kontuan eukirik. Dakizunez, Uruguenen baserri asko hor-hemen sakabana-tuta dagoz, egon be.

Anemiren nire andregaiaren baserria mendirantz egiten da, Larraburu aldean eta bidearen eskasagaitik, zati bat oinez egin beharrekoa danez, taldeko besteak baino arinago urten gendun gau haretan. Neure Vespan gentozan Anemiren eta biok ezeren ardura barik. Errekaldetik gorantz gentozala, ez gendun aurkitu inor bidean, ez argi keinurik edo beste ezelako nobedaderik somatu Zubieta pareko burrian. Han izan ei zan ba zoritzarreko istripua edo ezbeharra. Ene ba! Nik ete dakik zer jaso zan?



Ezeren susmo barik herriko plaza igaro eta Larraburuko muinorantz ekin geuntson bide egokia gendun uneraino. Han motoa hegaleratu eta oinez jo gendun aldapan gora. Erdi kamino, erdi gurpide dan bide haretan dagozan zulo eta harri kankarrak ez dira egokiak halako motoaz halatan ibilteko-ta.

Ez dakit zertarako balio daikizuzan zeahaztasunok, baina zeure esaneko naz ordu haretako zertzeladen kontua emotean. Dinotsudazanen gauzen lekuko ziurra Anemiren bera dozu. Nor besteri lagundu neinkion edo nori kalte egitea burura eitekidan gau baketsu haretan?

Larraburuko ateraino lagundu neuntson andregaiari. Baserriko txakurra ez zan asaldatu etxekeekin ondo eskolatuta dagoelako, baina sukalde aldean argiren bat isiotuta egon, norbait begirale ausaz.

Behingoan Larraburu itzi eta Eleizaldera jatxi nintzan. Nire etxea plazan bertan dago, kilometro bi Larraburutik eta beste zortzi bat kilometro Uribetik. Gure plazako argia biztuta egoan, taberna aldeak isil eta baketsu ordurako (nonbait jaia Uribetik zalako harakoan), eleiz torreko erloxu argiunean hamabiterdiak joak.

Etxean sartu nintzan. Iluna zanarren, amaren estul-txoak entzun nebazan sukaldean sartukeran. Goiko solairutik etozan estul urrumak; ama itxarrik egoken. Txapa gainean aurkitu nebazan hondakinak argi inoen erretiroan azkena nintzala. Nire anaia Pedro ez zan hurrun ibiliko. Neuretzako lain bakarrik platerean. Ahorakoei kontu zorrrotza emon eta ohera behingoan, oinetakoak eskuan neroazalarik. Gure ama ez zan agertu niri «gabon» opatzer-aredo, baina berak be argi egizta daiketsu, auzimaisu jaina, ze ordutan etxeratu nintzan gau haretan.

Gero bakarrik dakit laster loak hartu nindula, bakezko amesak buruan. Hurren, ez dakit ziur ze ordutan (ordubiterdietatik hiruretara hurrean) gure ama neuri izenez belarrira deitzen eta besoan zirriak egiten somatu neban.

—Zer da? —urumatu neban loasman.

—Jagi hadi, hire preguntez diatozak hor —inostan amak besoa astinduz.

—Zer gura daue ordu honetan? —asaldatu nintzan—. Nortzuk dira?

—Poliziak behar joek, txotxo —isil, baina garratz amak—. Heuk jakingo dok...

—Poliziak...?

Amesa etenda lez gelditu nintzan ohean erdi jagi neure artean «zer gura ete daue mutilok» ninoala. Nor besterik izan eiteken ordu haretan neure bila? Ez ziran hareexek polizien orduak eta txoria habian dagoela harrapatzeko amarruak?

—Okerreriren bat egin dok ala, seme? —Sorbaldan ikutu nindun amak ardura larritan—. Mogidu hadi.

—Nik ala? —Ezkor mogidu neban burua—. Ez, nik dakidanik...

Ez nebazan ezagutzen inondik beste mutilok kaleko manifestapenetan egurra banatzen-edo ikusiak izan ezik edo euren kontrolak egiten. Ez dot izan eguno eurekin hartzeko edo emotekorik, baina behingoan igarri neban oraingo zorren iturburua nondik letorken; «Alkateak edo Udalekoren batek (Alkateak edo Sekretarioak hobeto esan) Gaztedi Klubekoon abertzaletasuna salatu daue hurrean» susmatu neban.

—Nik ez diakiat ba zertan datozen —antzi egian amak zurubian behera gentozala.

—Ba dakizuz, ama, herriko gorabeherak...

—Sobra be... Josus, baina...!

—Abadeari oratu eutsoenetik, hemen ez dago antza inor seguru erantzun neuntson.

Atartean gizon bi egozan gure aitagaz berbetan; hiru-rak niri begira; «órdenes...» esaten entzun neuntsen. Ezezagun biak ez euken polizi jantzirik, nahiz eta euretariko batek ugelezko txamarra susmogarria jantzi. «Eres tú José María Larrea» itaundu eustan ugalezko txamarradunak hain zuzen. Baietz erantzun neuntson eta berak: «tienes que venir con nosotros».

Neuk, ezelako aurkatasunik agertzearren baino hare-go, amak-eta nire errugabetasuna ikusi eien, «por qué» erantzun neuntsen. Txamarradunak orduan, zigarroari bueltak eraginaz, lagun baten aldeko deklarapena egiten joan behar nebala, ez ekiala noren aldekoa, erantzun eustan. Bera aginduko etorrela gainera, zehaztasun danak jakiteko. Horixe.

Aitak, sorbaldan joaz, nasai joateko inostan, ezelako okerrrik egin ez baneban, ez neunkala zertan ezeren bildurrik euki behar-eta. «Zuhur ibili» gaineratu eustan halan be, ama niretzako jertsearen bila gora joan zanean. Manga hutsean nengon eta kaleraino joan behar baneban, behin-goeko gauzea bazan be, ganoraz jantzita joan behar nebala, esan eban amak.

Jertsea jantzi eta gertu nengon; «gero arte» esan neuntsen gurasoei atzera begira, poliziei jarraitzen neuntsela.

Poliziek bien erdian hartu ninduen. Jum! Horren adizkide ete ninduen, erdian hartzeko? Plaza hegaletik ginoazen. Barrenean beribil baten faroak isiotu ziran, arpegi-



arpegian emoten euskuela. Bertarantz ginoazen. Nik Alkatearen etxerantz begiratu neban ustegabeen. Beste geriza bi egozan beribilaren ondoan. Ezagunik inor be ez eta halan be ni Udaletiko norbaiten zera zalakotan nengon.

Berebilaren atzeko aldean sartuazo ninduen, haraino lagun egin eusten polizi bien erdian jesarrazoten ninduela. Ez ba! Abiadan atetik iges-edo egin ez nengitsen. Uriberantz abiatu gintzazan. Eleizaldetik aldentzean, une baten, aintzat hartu neban neure burua. Jo! Herriko danak lotan egozela, neu herriko erantzule eta arduradun bakarra. Non zagoze ba udaltiarrok? Ostera be bakarrik itzi ete dozue zeuon abadea holako lagunuen eskuetan, haren alde testigutza emoteko bakarrik izten nozuela? Guzti hau be ohar-tu neban, auzimaisu jauna, Uriberako bide bihurrian, eta ez alperrik, ikusiko dozunez.

Uribeke argietara heldu gintzazanean, gure Alkatearen begiak ilintialakoak ikusi nebazan, Alkatearen hasarre begiak edo Sekretarioaren begi gordeak. Biek be ausaz apari oparoa izango eben Uribeke handikiek.

Jai-argi batzuk Uribeke plazan, musika arrabotsik ez, jende banakak kioskoen inguru, azkena emoten. Hiruterdiak izango ziran.

Ni gauzea Uriben bertan izango zalakoan nengon harnartean, baina ez. Gure berebilak aurrera egian Bilborako bidetik. Zer neunkan nik Bilbon zerikusirik, nire lagunak eta nire ogibidea be Uriben ziran eta?

—«Creo que tenéis una mala información respecto a mí» —urten eustan otoz-otoan.

Eztanda egin neban, uste gabeko esturasunak eraginda lez. Alboko poliziei begiratu neuntsen. Ez nenkusan haren arpegirik ilunetan, baina han egozen euren ukondoak neurreei eutsela.

Nasai egoteko inostan ugalezko jantzia neure ukondoari eutsanak, egia guztia komisarian azaldu ahal izango nebala-eta. Komisarian beraz... Inoren aldeko aitorra barrik, neure burua zurikatu beharko neban ziurrago.

Komisaria zer zanik be ez nekitzun artean, baina edo-zelan be, Bilboko komisaria Uribekoa baino bildugarriagoa emoten neban beste barrik. Uriben zelan-halan moldatu neinteken. Jende mordoia ezagutzen nenban han eta ezagutzen ninduen, baina Bilbon... Zergaitik nindaroen herritik horren hurrun, herriko arazoa bazan? Nonbait nire auzia neuk uste baino be arduratsuagoa zan. Ausaz ez zan Uriguenekoa bakarrik, Urigueneko Alkatea-ta artean egonarren. Edo Uribeko auzitegiak ostaz erabagi eiken herrian gendun buruaustea? Bueno, hala izatekotan, ez asko txarrago. Artean be gure auzia isilekoa ez bazan, ospeak gauzea ebaztera bultzatu eiala, herriko agintarien burugogorkeriari beti amoremoten egon barrik. Hobe baino ez. Uribeko auzitegia inor ezpazan, Bilbokora. Auzitegira esan dot, baina Komisariara nindaroen, egia esan.

Bilboko kaleetatik zirkun-zarkun ginoazen eta argiak eta berebilaren mogimenduak liluratu egiten ninduen, ia amesa benetagaz nastatzeraino. Gautxoria behenipehin ez nintzalako seinale.

Noizbait gelditu gintzazan ez dakit nongo bazterrean eta nigaz atzeko aldean etozen poliziek «por ahí» komisariako ateetara bultzatu ninduen; «¿ha habido suerte?» norbait esaten entzun neban bertan sartukeran. Neugatik ete inoan? Neu gautxori beraz? Ezentzuna egin neuntson.

Gela argitsua zan komisaria edo danadalakoa. Mahi bat eta bertan ukondoak kokatu, polizietariko bat logura

begiak. Hegalean beste bat. Karneta eskatu eta izen-abizenak hartzen hasi jatazaneko, haraino eroan ninduen beste polizi biak, ustegabeen agur eginik, komisariakoen pentzutan itzi ninduen. Babes barik gelditzen nintzala uste izan neban. Izan be, komisariako hareek zer ekien nitaz, neure karneteko izen-abizenez landa? Beste biak sikera neure etxean egonak ziran eta neure gurasoekaz hitzeginak, ausaz ondo tratatuko ninduela hitzemonak, «egon nasai, seme...» aitzak esan eustanez. Komisariakoak osteraz ez ekien ni baserri baketsu bateko semea nintzanik, euskalduna hatan be, eta «ha habido suerte» harakoak edozein gaizkilekin, edo nork jakin, kontu handiko gazkileren batekin bardintzen nindula emoten eban. Hareek, komisariakoek, karneteen agertzen zirenez bakarrik ekikezan nire gurasoen izen-abizenik, baina ez eben ikusi nire aitaren ganora baketsurik, ez eta nire amaren arpegiune ardurasurik. Edozer pentsa eikeen nitaz, halako ordutan eta nork jakin zelako gaiztakerian atzemonikoa hanean. Hagaritik nire poltsikoak arakatzen ihardun eban komisari lagunak, besteak nire zehaztasunak kuadernoan hartzen eban artean; «saldu egin naue» protesta egin neban neure artean. Edo orduan eta susmogarriago ete nintzan neure burua euskaldun jotzen nebalako? Karnet ona ete zan gero komisari haretan nire euskalduntasuna? «Esto no lo necesitará» inostan komisari lagunak garrikoa askatzen eustala.

«Ya está» esan eban logura begidunak. Haren laguntzaileak burdinezko sare atetik barrura eroan nindun. Han beste polizi modu apalago batek ongi-etorrialako buru ñaka egin eustan eta zementozko tunel antzeko korredoretik zuzendu nindun. Polizi-morroj hutsa zala igarri neutsan, eta hagaitik ez neuntsan galdetu be egin «cuándo va ser la declaración» edo holakorik. Tunel antzeko korredore luze haretan burdinezko gelak egozen errenkadan. Haxe



zan gauerako Bilbok opa eustan ostatu apaina. Plastikozko lastaki bat azpiro zementoaren gainean eta «buenas noches» agurra. Giltzapean itzi nindun. «Usted descase bien» edo holakorik esan baeustan, adarjotetzat emon neinken, baina polizi morroi haregan ez egon irrik. Bere lana egian bakarrik, eta horren apalki eskeini eustanez, ezin neinkion ukatu hain serbitzu apala.

Oraindino gauak berea eukan eta, jantzita nengonez, beste izara barik, lastaki gainean etxun nintzan, gaueko ames etenak korapilatzeke ustetan. Anemiren, ama, aita, etxeakoak, Gaztedi Klubekoak, gure abadea, gure abertzaletasunaren errua... Bada harrezkero errudun sentitzen nintzan, euskaltasunagaitik harean. Begien gainean neunkan amatau ezineko bonbiletak be neu salaketan ekin eutson gau guztian, lo ziurrik lortu ez nengian. Eskuzapia betaurrean lotu izan behar neban, salatzaileari kuku eginenez, neure barrenean defentza antolatzekeotan. Ez nenkian zer egotziko eusteen, baina neure burua gorde egin beharke neban bekaitzaren amarruetatik. Jo! Lokartu egin nintzan kalabozoan bertan be.

Lastakitik jagi nintzaneko goizalde eguzkitsua izango zan Uribe inguruko domeka alaian Saninaziotxuz. Morroi-loan ostera, bonbila beraren zerupean, ez neban entzun jai kanpaerik eta noraezean be, lastakiaren inguru ibiltari hasi nintzan, keldotasunari ihes egitearren.

Halako baten, biraren biraz mareoak hartu ez nindeian, hormara begiratu neban. Hara bertan eguneroko albistaritza, marrazki eta guzti! Lapitz baltzak eta koloredunak. Formak, irriak, irainak. Zelan deskuidatu ete ziran komisariakoak halako kontrabandoari bide emoten? Horma haretako itsusikeriak ez euken neurrik. Jo beste hormara eta hara non garbiune zabalean ikusten dodan «Cris-

to, Lupita y yo» idatzirik. «Cristo eta Lupita» goialdean eta «yo» apal azpian egola. Otu be ez jatan egin handik igarotako bat baino gehiago Kristonak igarotakoa eitekenik. Baina hantxe egoen idazkizuna. Ereduaren, hobeto esan adizkidearen, hurtasunak ikutzen nindun bakartade haretan. Zelan sortu eiken «yo» harek halako hirutasuna, Kristo eta Lupita gainetik ipinten ebazala. Ziur harek gainekoak ez zirala, soinez behenipehin, egon morroilo haretan, baina «yo» haren eusgarri ziran gainetik, barnetik, gogotik. Eta zehatu haren Kristoa eta nirea bardinak zirela, konturatu nintzan. Lupitaren ordez Anemiren ipintea baino ez neunkan, eta alboan nonbait idea onentzako tokia egoanez, «Kristo, Anemiren eta ni» idatzi atzapartu eta grabatu neban euskeraz egin be, jertsearen txirritxi burua lagun nebala. Harrezkero bakartadeari ihes egin neuntsan. Bakartadea gainditu ezeze, neure manifestoa ozenkatu neban. «Kristo, Anemiren» izenak goitik lagun egistela, «ni» azpian babestuago sentitzen nintzan.

Atea idegi eta gelazaina sartu zan. Bart kalabozora zuzendu ninduana baino urguriagoa zan bera. Lastakia jasuala, nonbait lurreko aztarrenetatik, hormako karea ikutu nebala konturatu zan. Garrantz jarki eta, «aquí no se escribe nada» inostan zemaka. «Perdone, yo pensaba que...» burua zuritu gurarik nik, «ni bueno ni malo! ¿Me entiende?» berak, nik, begiak lurrean, murik be ez.

Bueno, oraindino asko ikasi beharra neunkan; Baina ez nintzan damutu, ezelan be, egin autorraz, eta halako horma baten ezelako tokirik dagon artean, barriro be atzamarra jasoten ausartuko nintzake. Ez ete da egoki neure alde aitor dagikena neuk aurretiz aitortzea?

Goizalde harek ez eukan gozaltzeko ordurik, baina nire urdailak bai ostera. Neu gosez errenditza-edo uste

ete eben, neu deklaratzera deitu aurretik? Atea joz arduradunari dei egin behar izan neuntson, nere beharrianak egin ahal izateko atera nindeian. Eskerrak hako morroi apalari, ez zan berantetsi.

Irolara ostera egin eta barriro zementozko gelara. Ez nintzan ba bakarrik egongo geladi haretan, dana isil bazidurian be. Isiltasunak ito eragiten nindun. Ostera be gelearen estua pausoz neurtzeko unea izan neban, kaiolan aztoratu dabilen artzakoaren antzera, itzulika hasi nintzanean. Lau pauso luzengatara eta hiru zabaletara. Ez askoz gehiago eta ezpazio guztia uztiatzen neban, batean esku-matara eta bestean ezkerretara zokondoak eurak be zapaltzen ahalegintzen nintzala. Horrela biribil liluragarriak barik, laukituaren benetasuna emoten neuntson ariketeari.

Gerotxoago aldemenean norbait txistuka susmatu nendun; txistuketari adi gelditu nintzan. Ez lelo ezagunik niretzat, baina seinalea ez nengola bakarrik. «Horrek gozaldtu egin jok, antza» ninon neure artean. Nereari eutson gelatik barik, harutzagotik etorren. Sentikera nasaitzearen-edo, bere kontzientziagaz berbetan iharduko eban. Izan be han ez zan belarrientzat beste entzungarririk, noiz-behingo kamioien dunbota-edo izan ezik. Komisiariako sotopean gengoan goi-goiko leiho saretuak ez euken argirik.

Laster isildu zan nire txistularia. Orduan neu hasi nintzan neure sentipenei bide emoten. Zementozko jarleku ilunean jesarri eta sarritan Gaztedi Klubean erabili ohi gendun koplaren bat nerabilen haginartean ezelako testo barik. Testorik ez ezelan be! «Subersiboak» litzakezan. Doinua bakarrik, musikaren arian morroilo haretatik herriko plazara ihes egin gurako nendun.

Kopla harenen bidez jorratzen genduzan gure auzoko auziak. Batzuk batez be, ez ziran Alkatearen gogoko. Aza-

letik musika, barrutik nerabilan testoa, bakoitzean bakoitzeko. Harakoak jai ospagarri edo adar jokari, oraingoak konsolagarri:

Kristo ta Anamari  
neugaz espetxean,  
ez naue izten bakarrik  
neure gurutzean.

Ate goieneko leihakumea zabaldu zan orduan eta lehentxoago agirika egin eustan begirale urguriak, lehengo ahozkeraren garratzaz, «¿eres tú el que silvabas?». «No, yo tarareaba». «¿Qué más da silvar que tararear? ¡Aquí no se puede comunicar con nadie!».

Isildu egin nitzan. Begirale harek albokoren batekin harremonetan ete nenbilen susmatzen eban, baina ni neure belarria ernaitzen nihardun. Norbere gogoagaz komunitzea ez ete jako hauzu soinari? Isilago egin behar. Nere sudurhotsa, hagin artekoa doi-doi barruko entzumenak ohartzeko lain:

«Askatasuna nahi ta  
nork dausku ukatzen?  
Aukera ezina dogu  
herriko alkate».

«Alkatea bera da  
herri zapaltzaile,  
fasistak doguz bertan  
azao joan gabe».

Barriak asmatzeko baino zaharrak barrizteko harian ipini ninduen. Koplak geu gazteok alkarren artean, geure

herriko egoerari jarriak ziran. Inoiz Alkateari berari be bardin eta egunez edo gaueko errondan, berak entzuteko moduan, abestuak be bai. Gurean ba dagoz paper batzuk, neuk batu eta lagunei banatzeko makituak.

Letrok gogoratu eta aztertuala, geroago eta ziurragoa emoten neban neure erruen iturburua. Alkateak-eta neu aukeratu ninduela? Edo ausaz besteren bat be bai, baina nik ez neunkan beste mutil lagunen barririk. Ba neunkan neu bakarrik izan neintekalako susmorik. Alkateak herriko gaztediaren burutzat nindaukalako. Beeste gehientxuenak baino zaharragoa nintzalako ausaz, edo eta ikasketa bereziak egina nintzalako hareago, ez kopla haren egile bakar nintzalako.

Neure gosea eta bakartadea horrela arintzen nengola, deitu egin ninduen. Beste polizilagun bat etorri zan nire bila. Gustora itzi neban zementozko gelea, barriro ez zapaltzeko asmotan. Zurubian gora zuzendu nindun. Handik eguneko argia ikusten zan. Bulego handi baten sartu nindun. Ulezuri bat egoan bertan auzi mahai jaso antzeko baten jesarririk. Ardura handi barik hartu nindun. Hobeto esan, ez nindun hartu be egin. Izen-abizenak bakarrik, gauetik goizera ea aitabitxi barririk sortu eta jatanentz-edo.

Behingoan handik urten eta beste bulego batera. Argitsuagoa zan edo han kale jantzian egozan polizi gazte biek ez euken hako ulezuriaren hurruntasunik. Gazteetari-ko bata idaz-makinaren aurrean jesarrita egon, notak hartzeko prest eta bestea biderdi, eperdia mahiari eutsola, bertan erdi jesarri, formalidade handirik gabe agertu gura baileuan. Bigoterdi dun arraia zan bera, eta erdi zutunik egoela be, neuri jesarteko esan eustan. «¿Fumas?» berak eta nik ezetz eta horrela, gauzeak garrantzi gehiagorik ez baileuan, berbetan hasi gintzazan.

Idazmakinadunak, nik esanala, berresan eta idazten ihardun «nació el 27 de febrero de 1952 en Uriguen». Ea behin zehaztasunok makinaz hartuta, errepikatu beharrik ez dodan.

Jaioterria autugaitzak hartuta, herriko agintaritzaz itaundu eustan polizi arraiak: Alkateaz, Sekretarioaz, Abadeaz... Hain zuzen be, neure susmoetatik joan polizi azkarra.

—«Con que ¿no tenéis médico?» —jostatu eban bigote erdia, eta begi keinularia erakutsi—. Y entonces ¿con quién se unen el cura, el alcalde y el secretario para jugar al mus?».

Barregarria eritsi neuntson polizi haren ateraldiari eta egin be, irribarre egin neban, egin neuntson, «ez jakinez ala adarjoka zabildez, lagun» nere artean ninoala. Ez dot uste behintzat Urigueneko gorabeheraz tutik ez ekianik edo Uriguene baserrian Peru eta Marien garaietan bizi gintzala-edo usteko ebanik.

Ba onak egozan, auzimaisu agurgarri, gure Alkatea eta Sekretarioa gure Abadeagaz enbidoak egiteko. Ordagoak bai harego.

Neuk ostera, barretxea egin eta paso egin neuntson polizi kukuari, herriko sekretuak neure ordurako neuretzat gordeten nebazala.

—«Puesto que el Alguacil del pueblo no llega a la categoría de ellos para formar pareja...». —Irritxoa erabilan polizi arraiak hagin artean—. «¿No es así?».

—«¿Cómo así...?» nik ezulertuarena.

Barrutik baina «bero, bero... Gara handiko izen guztiak datoz arira. Katxin, gure agosila oraingoan».

—«...y menos ahora que, según parece le han saboteado la moto que le correspondió en la famosa rifa». —Barreirria poliziaren bigoterdipeon.

—«¿Sabotaje?» —nik harritu.

Neure artean «beroago, beroago». Arraioa! Ez ekizala Uriguneko barriak eta. Bai eta errifa lotsagarriarena be! Sabotajeaz ostera nik ezer be ez, «no sé nada» erantzun neuntson.

—«¿Que usted no sabe nada de aquella rifa de la Vespa?» —ziria sartu gura izan eustan polizi maltzurak.

—«De la rifa sí, del sabotaje no» —zehatz nik.

Eta erdera ta guzti, erantzun neuntson, jaso be jaso eban idazmakinadunak nire deklarapena. Ni, neure erantzunak tinkatuala, salapena nondik barik, zetarikoa izan eiteken zain nengon.

—«¿No estabas tú acaso en la noche de S. Ignacio en Uribe con un grupo de jóvenes del pueblo?» —zorrotz polizi azkarrak.

Baietz erantzun neuntson, bai eta handik etxeratu gintzazan orduaren barri be, zeuri, auzimaisu jaun horri, kontatu deusudanez emon neuntxon. Polizi arraiak bibote erdia biurritu eban alde batera, begiak bestera egiten eban artean.

—«Pues..., según parece —y dicho sea de paso— el tal alguacil debe estar ahora en el Hospital con una costilla rota y no sé qué más desperfectos —Begiak neuregan eukazan polizi susmokariak.

Musturra luzatu neban. Guzurra ete zan? Egia ete zan? Polizi amarruak nonbait, beste bideetako nekizan egiak errezago askatu nengizan?

—«Pues no debía ser muy adepto a vuestro grupo de jóvenes» —Sarea jaurti eustan polizi zuhurak.

«Bero, bero...» nik neure artean «ea benetako salapenak behingoz urteten dauan».



—«¿No es acaso usted el txistulari de dicho grupo de jóvenes?».

—«Sí, señor, lo soy» —erantzun neuntson.

Eskerrak bertzolari edo koplari salatu ez ninduna. Txistulariarenagatik ez nintzan atzeratu; harro erantzun neuntson. Zer ba? Txistulari izatea be debekauta dago ala? Baina, ez uste, auzimaisu agurgarri, zortzikoak eta beste dantzarakoez landa, habanerak be ba ete nenkizan galdetu izan baeustan, larri be larri ibiliko nintzan Carreroren harakoa zuritzeko. Jakina, txistulari batek danetik jotzen jakin behar dauela gazteen bilera edo jaialdian. Ezta-ietako jataldien ostean be, esate baterako, jendea ia beroturik dagola, politika susmoa daukala eta beste barik, zuk ezin zeinkio ukatu inori halako asaskaldirik.

Eta ez toki itxietan bakarrik, herriko plazan bertan eta eguzkiaren arpegian be egin dogu inoiz halako biribilketarik, jertzea edo txapela, eskupoltzea edo eskuzapia, ba-koitzak esku artean eukana gora-goraka indar guztiaz jaurtirik ospatu izan dogunetarikoa. Eta inork ez euskun itxurgatu, ulertu be ez ausaz gure jokoaren ganorea.

Polizi arraiak be garbi izten nindun neure txistulari-tza arazoan, behar bada nik eguno be ez dodalako jo herriko Alkateak inbitauta.

## 2

Basauriko espetxean, agorrak 4, 1974an, domekaz.

Bilboko komisariatik Basauriko espetxe honetarakoaz zer esatea gura dozu? Zurtuta nagola oraindino, zeuk argibide bat emon daustazunarren.

Komisarian egun bitan euki eta hirugarren gaua igarotekotan lastaki ber-berean etxun-barri nengola, etorri eta «vas a ser trasladado» esan eusteen. Ez nora, ez hara. Ez eta nik itaundu be. Bertan eskura emon eusteezan aurregunean kendutako erloxu eta garrikoa. Beste laukote batek hartu nindun, ez etxetik erakarri ninduenak. Bestelakoa zan beribila be, kaiola dirudien jipa horreetarikoa. Lehen baino be ardura handiagoak nigaz. Komisarian egun bi eginekoa, kontu handikoa nintzan, izan be. Itzalgarriren bat egin izan banendun ez gitxiago. Erail? Ohostu? Jipoiren bat inori emon? Gaizkinak babestu? Gure komisari arraia hemedik ebilen, baina nik ezetz, nik politikazko ziriren bat izan behar ebala neure artean.

Bilbotik honakoa salto bat izan zan, baina bertan argitu eta lagunak oles egin dausten arte, ez naz konturatu nora ekarri nauen. Preso arrunten espetxera beraz. Nire susmoak ez ziran argitzen. Politikagaitik salatu izan baninduen, preso politikoek, euskaldunek bereberki daukeen

espetxe berezira eroango ninduen, ez hala, auzimaisu jauna? Baina hemengoan artean ez dot oraindino kidekorik aurkitu, ez eta euskaldunik bat bera be. Non dago erratua? Komisari azkarrak, polizi arraiak, hako biboterdiak eta espedientea makinaz idatzi ebanak, hareek jakingo daue nonbait.

—¿No sabía usted qué tipo de moto era la que le cupo en dicha rifa al alguacil de su pueblo? —polizi zuhurrak.


Nik baietz, matrikula eta guzti ezagutzen nebala, zuriskea zala. Ezagutuko ez neban ba, inoiz neuk erabilia izan zan-eta? Hori ez neuntson esan komisari azkarrari, ez bere ikerketari biderik eragoztearren, harik eta zertan salatzen ninduen jakin arte, gauzea ez aurreratzearren baino.

—«¿Ves... pa qué...?» —irritxoa egin eban polizi arraiak.

«Bero, bero...» nik neure artean. Oraindino ba nenkizan harenak eta bi.

—«¿No le detuvieron ustedes (digo su grupo de amigos) a Francisco Goiria, alguacil del pueblo a medio camino entre Uribe y la aldea de Uriguen, según venía en moto en una peligrosa revuelta que... —Komisari azkarrak beso gurutzatuen artean gordetzen eban papertxoa begiratu eban—. ...se denomina Zubieta?».

Nik ezetz, nik ez nenkiala halako barrabaskeriaren barririk, ez asmorik. Nori eta Don Francisco Goriari egina hatan be! Guk beti deitu izan dautsagu Katxin, gure agosilari. Baina halako izen-abizen biribilez deituez gero, beste norbaitez itauntzen ete eustan egon nintzan une baten. Baina ez, Katxin bera izan behar eban. Bestalde han dago Zubieta eta gorago haren parean dagoen burra itxua, arris-



kutsua inon bada. Hako izen eta guzti, komisari azkarrari erreka doa emon eutsonak ondo ekian.

—«¿No le pusieron entonces, algún obstáculo, algunas piedras o gravilla para que derrapara y caiera por la pendiente?». —Begiradeaz zulatzen nindun komisari susmokiak.

Nik ez nenkiala ezer. Halan uste dot, hartuko ebala makinalari laguntzaileak. Zera be esan neinkion. Zubieta gaineko burrea berez nahiko arriskutsua dala, inori estrepozuak ipinten ibilteko. Zulorik ez dala falta bertan, harrikirria barriz ugari hegaletan. Astiro ez bazoaz, edo galgea itoan hartzen badozu, Vespea danaz, zer esanik be ez. Galduta zagoz eta hareago gauez bada. Eta kaminoko hutsen erruz izan bada, toki onera datoz errudunaren bila. Alkateagandik hasita, Udalean bertan bila eikezan komisari azkarrak.

—«¿No le odiaban acaso (digo le miraban mal) al señor alguacil, porque con su nueva moto les seguía a todas partes, con objeto de controlarles mejor?». —ekitson komisari zuhurrak.

Nik baietz, plaza eta taberna inguruan jarraikitzen ginduzala batez be, baina Katxinek ez eukala motoan ibilteko gure trebetasunik. Ez dogula gorroto halan be eta gitxiago bere bidean halako trabak ipinteraino. Umeak be ez gintzazala, okerreriaren kalteak ez begiratzeko.

—«Entonces ¿quién le ha dado a D. Francisco Goiria, alguacil de vuestro pueblo, la soberana paliza que le ha costado una costilla rota, amén de contusiones en diversas partes del cuerpo?». —Komisari zuhurra, begi bat az neuri, besteaz goitiko inspirazinoari keinu egiten gelditu zan.

Zertan gelditzen gara, komisari jaun? Katxin mototik jausi da, ala sahietz bat apurtzerainoko egurra emon dau-

tsoe? Ez da gauza bardina. Bata berezkoa daiteke, ez bestea. Ala bestea bilakatzea komeni jake batzuei? Ez dakigu beraz, kaminoko hutsune edo burrearen erruz, moto gidari beraren hutsegitez ala gaizkileen eskuz dan. Badaezpadan hemen gaizkilea bilatu gura izan da. Zer dala eta? Une baten be ez dot pentsau gauzea politikagatik ez dan.

Domeka eguerdatean, ama-ta ikusten etorri jatazanean, Katxini jasorikoa izan zan nire ardurarik handiena. «Zer jazo jako Katxini» itaundu neuntsen. Amak-eta ez eutsoen gara handirik emoten harenari.

—Mototik jausita, hospitalean dagola —erantzun eustan arrebeak.

Ama-ta harritu be egin ziran, ni neure buruagaz arduratu beharrez, Katxinen egoeraz horren arduratzen nintzalako. Ez ekien oraindino, antza, zergaitik arduratu neinteken horrenbeste gure Katxinez. Ondo egin zendun espedienteko alper susmoekin ez ibilteagaz. Ni, Katxinez ezeze, hari jasorikoaren inguru herriak ekizanak jakin gura nebazan.

—Jausi egin da, ala nonork berotu egin dau? —itaundu neuntsen.

—Zergaitik dinozu hori, seme? —amak arduraz.

—Lehendik etorren baino be beroago? —ohartu eban arrebeak—. Saninazio iluntze haretan ondo bustita ikusi ei eban.

—Ez dinoe ba, baten batzuk burre haretan itxaron eta zorrak-edo kobratu eutsoezela? —nik.

—Harek burrea zuzenean hartu gura izan joan —inon nire arrebeak—. Harrezkero motoa ta dana erretiratu daue handik, baina horrek ziran seinaleak.

Nik badakit, auzimaisu jaun, Vespea moto bihurria dana berez be, halako kaminoetan eta halako orduetan,

baina horrezaz gainera, goikoa behekoa hainbat bustita baetorren... Pentsa eizu, deabruzko burre haretan ez dagoa bide seinale bat, «burre gaiztoa» adierazten dauena. Udalekoak eurak ez dira horretaz arduratzen.

—Zeu zelan zagoz, seme? —amak osterara be—. Zeuri be...

Ama ez zan ausartu esaten, eskuaz jipoia agintzen dako seinua egin eban.

—Ez, ama, ez naue jo behenipehin. Egon nasai —erantzun neuntson.

Arrebeari begiratu neuntson.

—Abogaduak ez dautsue ezer esan ala? —itaundu neuntsen.

—Ez baina, hurretik joten dogu zer izan daiteken. —Begiak jatxi ebazan arrebeak, gero begira-begira esan eustan—. Abadea gaugaz etorri da baina sendikoa ez dala eta ez dautsoe itzi barrura sartzen.

Isilik gelditu gintzazan une baten, neuk be ez neban aurreratu gura izan neureaz, eurena hobeto jakin arte.

—Inork jakitekotan nork berak baino hobeto? —Leiho sarearen ondoraino hurreratu jatan arrebea, belarrira inork ez entzuteko eran esan gura baileustan—. Alkatearen zera... izan behar jok...

Nire arrebea neure eriskide zan, neurea jakin aurretik eta zer esanik be ez dago hareen harridura neurea esan neuntseanean, Katxinen desgrazi guztia leporatu gura eusteela.

—Ene ba! —antziz gure amak.

—Jo! Ez daukee kontzientzi makala!—. Besoak gurutzatzen ebazan nire arrebeak—. Burre haretatik moto eta guzti errekaroraino jausi eta bizirik urteteagatik eskerrak



emon beharrez, inori erruak botaten hasi? Ze uste daue ba? Euren antzeko bihotz gogorrek garela?

Nasai egoteko seinua egin neuntson arrebeari, abotsa gora eroan eta. Une isila igaro zan, amaren zizpururen batek bakarrik etena.

—Abadeak zer dino? —itaundu neuntsen.

—Zer esango dau, Judas eta Pilatos legez, bere atzean dabilzanei buruz? —Gorbiztu egin zan ostera be nire erre-bea—. Atera eizu, Katxin bera bisitatzen joan zan hospitalera eta, gaisoak ez ebela gura-eta, ez eben onartu gura izan. Mezatarra etorri datorrena bisitatzen joan eta hartu ez. Halakoetan ez ete dira ahaztutekoak arteko hasarreak?

—Berak ala bere zainen batek ez eban gura Abadearen bisitarik? —itaundu neuntsen nik.

—Horixe ez dakigu... —Nire arrebearen belarria susmokari gelditu zan.

Nere arrebearen eta nire susmoak une haretan bardi-nak zirela uste dot. Izan be, zer dala eta onartu ez gaisoa bisitatzen datorren abadea? Zeuri behenipehin ez dautsue-la bisitarik ukatuko uste dot, auzimaizu jaun, eta ziur bertan daukazu egia zati baten iturria. Ea berak, Katxinek (D. Francisco Goiriak, esan gura dot) esan daiskula zer jaso jakon Saninazio iluntze haretan. Ea bera ete dan nire salatzaile ala beste norbait dagoen bere ostean.

Artean ba dakizu behenipehin herriko Abadea nitaz arduratu egin dala, baina Alkatea edo Sekretarioa ezertan arduratu diranik ez dakigu. Salatu aurretik ez eusten ezer itaundu bai eta salatu ostean ez eben gurako arpegia erakusterik. Euskera tutik be ez, herriko barririk barriz gixi, eta dakiezen erdiak oker entzun dauzenak bialdu ebezan neu atxilotu eta beste barik espedientatu nindeien. Neu, hain zuzen be, eta ez, esate baterako, Gaztedi-Klu-

beko beste mutil edo neska bat. Zeozergaitik izango da eta ez bakarrik Alkatearen eta gure sendiaren artean dagozan azpi-tirabiragaitik. Tirabirok hasieran ez ziran izan politikarrengoak, baina azkenik dana politizatzen da, politika argia eta argitako politika zigortzen dan aldiotan.

Bera, Alkatea, herriko inork emon ez dautson esku-bideaz, indarraz hobeto esan, baliatzen da, beste barik esateko, salapen gordina bada be. Itaundu eiozu ezpabe gure herriko Abadeari. Haren «gaiztakeria» bat baino gehiagoz (Abadearenaz esan gura dautsut) jakitun egongo zara, bada batzuk egunkarietan be agertu ziran.

Kontuizu bidezko emoten dau halako alkatedun herritxo baten, abadearen hurrengo abadegaiak jasatea, abadegai izanak behenipehin.

Hamar urtetan Seminarioan egona naz, beraz herriko nire adineko ta hain ez direnak baino ikasiagoa naz edo halakotzat naukee behintzat lagunak, neuk esatea eder ezbadirudi be. Arrazoi bat gehiago Alkateak susmotan euki nindeian.

Baina urak aurretik etozen! Uriguene plazako iturri barria egin baino lehen. Hain zuzen be, bere inaugurazi-noan, ni abadegai izateari itxi-barri, herrira etorrita nengon eta Gaiko-taberna inguruan, Alkatearenean barik bestean, marmarrean giharduen.

—Gaur Alkateak iturri barritik ardao zuria atera baietz— inon neure lagunetariko batek.

—Ez dozak, txotxo, ur garbi-garbiak izango horree-kek...—. Basoa eskuetan, begiratu euskun agure batek albotik.

—Egia —jarraitu eban lehengo gazteak—. Zergaitik igaro behar joek gero urok Alkatearen txarritegi barritik.



—Txarriak be Alkatearenak dozakelako —erantzun eutsen berendiak— eta txarriek ur asko behar joek. Ba dakizue bide batez...

—Plazara etorriko diren urak orduan txarriei sobratokoak baino ez ete joguzak izango? Aska batetik edan behar ete joagu?—. Barre egian beste harakoak.

Urak menditik etozen, baina Alkateak egin-barri eukan txarritegi handirantz apurtzen eben bide zuzena. Nibelahobeto zaintzearen zala esan eben.

—Horrek zuritik emon gura jauskuk —Erpuru ezkerra besapetik adarkatu eban sandiak, haginak erakusten ebazala—. Baina zera, guk baltzetik edango joagu.

—Boikot egin behar jautseguk.

Alkateari eta Udaltiarrei esan gura eban. «Boikot» izenari ezarrunta eritxiko dautsozu, auzimaisu jaun, baina kontu Uriguneko gazteok Uribeke kalean, hango lantegietan, dogula bizibidea. Mutil gehienak eta neska batzuk behenipehin, kalean irabasten dogu eta hango mogimenduaren jakitun gagoz. Dirua darabilgu beraz eskuetan eta honek, edo geure lanak ziurrago, ausartago biurtzen gaitu geure eritxi eta ekintzetan.

Boikota, baina zeri egiteko? Plaza erdian hantxe egon gorri-hori bandereaz, mamua bailitzan estaldu, iturri barriaren taxua. Ikurrin berberak eta falanjearen baltzizkak apaintzen eben Udaleko balkoia, habe banatatant edatu.

—Trapu hoberik ez ete joek bilatu iturriarentzako? —protesta egian batek.

Alkateak-eta domeka meza nagusi osteko ordua aukeratu eben, iturria hasibarritzeko. Ordua zan ia eta taberna atetik begira gegozan mutilok.

—Kaudillotxuren kotxea falta dok —ohar egin eban urliak—. Gaur pertsonaje haundiren bat ikusiko dozue. Ez jauskuek alperrik fletxa ta guztiko bandera hori eskegi.

—Zelan edan geinke guk iturri honetatik? —inon beste batek.

«Ikusi bai, baina ez parte hartu, ez korru egin, ez edan bertatik» izan zan eleizpeko neskei iragarri geuntsena. Haxe zan gure erabagia, eta ni, neskei errekaodoa eroan geuntsenatariko bat.

Alkateak-eta euren trapuetan enpaketatu gura ginduzen. Harako erdal diskoak Udaleko balkoetik jotzen eus-kuzanean lez, guk plazatik at, eleizpera edo tabernara egingo gendun. Egin geinken protesta bakarra, harean. Ez dakigu Alkateak geuri min egitearren ala norbaiteri gozo egitearren, «Mi carro» eta halako bitxiekin kutsatu gura euskuzan belarriak. Horregaitik ikasi genduzan, hain zuzen be, «Carrerorena» eta beste batzuk, haren adarrari aurka egitearren.

Ni tabernatik eleizpera bitartean nengola agertu zan plazan Katxin agosila zurubi arina bizkarrean eroala. Iturri marroturantz joan.

—Zertarako dok eskilara hori, Katxin? —Mokoka egin eutson eleizpetik neska batek—. Ikoak heldu bariarik diagozak oraindino.

Katxinek eleizperantz itzuli eta musturra luzatu eban. mistoa zorroztu gurarik.

—Hortxe, zeuon modure, aho-zabalik egoteko —esan eban.

Aurrea ekitson bere zurubiagaz. Iturri taxua estaltzen eban zapi koloretsua eskukatzeke behar eban.

—Holako traje ederra plantxetako andratxo bat behar hendukek —Adarra jo eutsoen osterara be eleizpetik, neskak mutiltzarrei ohi dautsen borondateaz.

Katxin jai handietako agosil trajean egoan, kirru urdinezko ehunean eratua, prakak goitik beherako zerrendaz orniduak eta barrenean tolesdura bana eukela.

—Mihina plantxatuko neuskizue nik zueri —Katxinek berak be mistoa findu egin eban aurkalariei arpegia erakustean.

Hauxe da kontuizu, Katxin agosilari buruz nik gogorutzen dodan lehen pasadizu gogoangarrietarikoa. «Agosila» deitzen dausat, bada «ertzain» edo «udalzain» deitzea iraintzat hartzen dau, inoiz multa zemaz Udaleraino auzia jasoten dakiala. Baina gauzea funtsean beragandik ez datorrela uste dogu. Bera Alkatearen-eta esanekoa da. Beraz, zelako ugazaba halako morroia.

Eskolumetariko bat iturri mamuari zapia jasoten auzartu zan, Katxin bertan egoelarik. «Ume barrabanok, kentzen ez bazarie hortik!» Katxinek bekaina jaso eutsen.

Ez ziran, halan be, asko hurruntzen iturri mamu haretatik. Neskatoak barriz, txopinketarako babes aparta idoro eben haren biran.

Alkateak aginduriko gozokiak ur barritan bustiteko amesak bildu ebazan umeak. Ardao gozorik be egongo zan andrazkoentzat, gazteontzat barriz, ez eukan nahiko amukirik.

—Horrek —norbaitek Udalekoak aipatu ebazan— dirua jaso joek iturri barria egiteko eta orain erakutsi egin behar joek zertan eralgi dauen.

—Bai, eta Herrimenditik datozen geure urak be erregimenekoak direla agertu gurako leukiek.



—Frankok geuri emonak...

Katxinek hanartean zurubira igonik lokarria ipini eutsen bandereari, behetik tiratuz, errezelak emon eta iturriak arpegia erakutsi egian.

—Neska ala mutila dok, Katxin? —Neskak barre egin eben.

—Ea zeuon amak erakutsi ez dautsuen lotsari apur bat erakusten dautsuedan... —marmariz aldendu zan Katxin, zurubia sorbaldan eroela.

Udaleko balkoetik plazara begira egoen altabozak «que viva España» behin eta barriz abesten eban, gutariko batzuei iguin eragiteraino. Sekretarioaren berebil baltz-urdinska sartu zan orduantxe herriko plazan.

—Hor diatork Kaudillotxu —esan eban batek.

Halantxe deitzen dautsogu herrian Sekretarioari. Sekretarioa ez etorren bakarrik.

—Ikusten dozue iturri neskatilearen senargeia? —agur egitsen neskak sekretarioaren lagun etorkinari.


Sekretarioaren berebila Udaleko arkupean gelditu zan. Ez gendun ezagutzen beste laguna, taxutik zertariko eiteken antzemoten gendunarren. Betaurreko baltz eta bibote erreak ondo salatzen eban, haren trajea Sekretarioaren beribilaren kolore berekoa zan kontuizu.

—Antioju horreexekin ez gaozan behintzat argi-argi ikusiko —Muzin egin eban nesketariko batek.

Sekretarioa, alkandora zuria-edo izan ezik, gorbata urdin eta guzti, janzkera bardintsuan etorren, urdin-baltza biek be margo hautatua baileuen.

Katxin agosilak suziri batzuk eztandazo ebazan Udaleko balkoetik, Sanjuanetan legez, ospakizunaren handia





eta unea herriari adieraztearren. Senargeia berantetsi egin zan, baina lekukoak, udaltiarrek, gertu egozan. Sekretarioa eta etorkin ezezaguna Udalean sartu eta handik laster, prosezinoan etozen danak plazarantz. Alkateak eta Sekretarioak bien arten ospakizunaren senargei lez ekarrela.

—Gure Alkatearen erderakazoak entzun gura neunkezan oraintxe —irribarre egian neska batek.

Udaltiarrek itzelezko benetasunaz, lurrera begira gehien bat, iturri estalduaren ondorantz joazen. Herriak hurrin samarretik begiratzen eutsen, andraskoak eleizpetik, gizonezkoak taberna atetatik, batzuk etxeko lehioetatik, umeak hurretik.

Katxin agosila etorren azken suziri txorta eskuetan ekarrela.

—Katxin, ze izen diaukak senargeiak? —zirikatu eben ostera be neskak.

Katxinek ezentzuna egian. Halako unearen benatsuak ez eutson erantzun aproposerako betarik emoten. Formalidea zan aurretik, beste udaltiarrei jarraitu behar eutsen, baina ez bekarkara eleizperantz begiratu barik. Atrapetan baeban atrapatu eleizpetik tirokatzen eutson amaren alabea...

—Eta urteak zenbat, Katxin? «Treintaicinco años de paz?» Zaharregia guretzat. Ez deritxak?

Udaltiarrek zirirotakoren bat entzun eikeen, baina ez ziur antzemon zertaz iharduen Katxinegazko aiko-mai koek. Bestalde Alkatea-eta euren hitzaldiez arduratuta egongo ziran, udaltiarrek barriz herriaren aurrean itxura egin gurarik.

—Ni banaioak hemendik —esan eustan eleizpera lagundu nindun beste mutilak.

Uste dot lotsatu egin zala horren hurretik aita udaltiarren artean ikustean. Ez eukan zertan horren lotsatu. Gauzea ez zan berea bakarrik. Taberna atetik begira egozen beste gazte batzuk be ez leukeen gurako aita udaltiar ikusi, nahiz eta ba genkian euretariko gehienak herriaren onerako iharduela halakoetan arpegi emoten eta ez politika koloreak ederrestearren.

Udaltiarrak iturri barriaren taxu estaldua inguratu eben ia. Isilunea sortu zan. Katxin prest egon lokarriari tiratu eta harlanduzko iturria erakusteko, baina Alkatea eta Sekretarioa alkarri begira iharduen, noizbehinka alkateak eleizperantz, gero Abadetxerantz begiratzen ebal.

Udaltiar bat eleizpera hurreratu jakun. Ni han ikustean, neure izenaz deitu, «esaiok Abadeari iturria bedein-katzen etorterako» esan eustan, «begira gagozala!».

Abadetxera joan nintzan arrapaladan; atea jo eta, ez eban inork erantzuten. Atea itxita egon. Eleizan edo sakristian egon eitekelakoan harantz ekin neuntsen. «Non da Abadea» itaundu neuntsen neskei.

—Meza ostean motoan joaten ikusi dogu —erantzun eusten.

Hara ba! Noiz eta larrianean, muserako laugarrena falta! Alkatea, Sekretarioa eta beste gonbidatua hain gertu egozela hatan be. Komisari arraiaren irribarrea jatort gogotara, ene auzimaisu jaun.

Iturri barriaren inguru egozen udaltiarrengana joan eta Abadearen barri emon neuntsen.

—Ez dagola?

Udaltiarrak alkarri begiratu eutsoen, zeinek baino zeinek begi handiagoak erakusten ebazala.

—Eta orain zer? —inoen isil-misil batzuk.

Alkatea, arpegi goritu, neu jan beharrez etorri jatan, eruduna neu baintzan ez amorratuago.

—Ba bilatu eik nonbaiten! —inostan ezpainak be daldal egiten eutsela urguritasunarren.

Harexek izan ziran Alkateak zuzendu eustazan lehenengo hitzak.

—Bilatu baina non? —Sorbaldak jaso nebazan—. Motoan joaten ikusi dauela esan dauste neskak. Lekutan egongo da.

—Ez ekian ba iturria estrainetako zala —Sutan Alkateak, haizerrotak lez besoei eraginka—. Eta gauzea be-deinkatu egiten dala halakoetan?

Ez neban orduraino horren hurretik ezagutu herriko Alkatea. Ez neban uste haren begi erdi urdin erdi berdesketan halako surik aurkitu leitekenik. Abadearenagaitik izango zan, baina neu joten nindun, nik sorbaldak jasoten nebazalako-edo.

—Zer erakutsi euaen ba Seminarioan?

Orpoetan bira egin eta eleizpera barik, Gaiko traber-nara, mutil lagunengana joan nintzan, Alkatea bere amorr-ruak murduskatzen eta zemagale itzirik.

—Zorioneko motoa! —esaten entzun neuntson—. Abadeok... o ...!

«Ves-pa qué...» komisari arraiaren esakuna gogor-tzen dot hainbestegaz, auzimaisu jaun. Abadeen lepotik barre egiteko erabilten zan txistea zan. «Ves-pa qué quie-ren?...» Nonbait moto horrek abiadan jarri ebazan abadeak, gazteak bereberki eta jauntxo egokituei ez jaken konbeni abadeen bilerarik. Hako sotanadunen batzarretatik herri ekintzarako erabagi ausartak ateraten zirelako.

Guretzat, boikotari emonak gengoan gazteontzat batetz be, asmatu eiteken gauzarik txalogarriena izan zan Abadearena. «Hara, zelan aurreratu jakun bera» esan neban neure artean.

—Hori dok-eta, txo! —ospatzen gendun—. Eta jakinen gainean egingo joan seguru.

—Eta orain zer jazoko dok?

Taberna atetik biurrikeriaz begirutzen gendun plaza-ra. Baten batek barre nabamenak egizan.

—Hago isilik, txo.

Neska batzuk, Alkatea hasarre egoela-ta, etorri jakuzan.

—Ze erru diaukanagu guk? Doala Abadeari kontuak hartzen.

—Abadeari —erantzun eban neskatilak.

—Hori be badozue: bandera jantzian andregaiia eta eleizatik ezkondu gura, horrek dozuez ba ezkon jantziak? Mutilak mezarik ez jonan entzungo, baina plazan santu itxurak egin behar...

—Noiz ikusi dozue edateko ura bedeinkatzen?

Sekretarioa ez ei zan bat be aztoratu. Bere arpegi zurbil eta begirada hotzaz, burua mogidu barik keinu egin ei eutson Katxini zapia kendu egian. Orduan agertu zan herriaren aurrean oraintxe be han ikusi daiteken adigarrria, burdin orain taxutua: «BAJO LA JEFATURA DE S. EXA. EL JEFE DEL ESTADO, F. FRANCO» dana maiuskuletan idatzia. Fotografoak argazkiak atera ebazan «ezkonbarriak» alkarren ondoan, Alkateak-eta inguratzen ebezela, baina abade barik.

«Neskeak erderarik,  
mutilak euskera  
ez ekienez, ezin  
etorri batera.

Bedeinkazino barik  
egin sasi-ezkontzaz  
jaso nahi izan dausku  
herriko neskatxa.»

Gogoan dodaz, idatzita be ba dagoz nonbaiten, orduan atara genduzanetako koplok.

—Gu, neskea zalakoan eta ez dausku ba mutilak urten? —Barre egian sakristaniaren alabak.

—Hago isilik, mamala hori!— Zentzatu gura izan eban neskalagunak.

Hitzaldiren bat edo beste itxaroten gendun, baina ohikuna mutua izan zan. Ez bairik edo ezetzik ezkongaien artean. Abadearen latinik ezean-edo, ez ta senar-geiak erderarik. Nork entzuteko hatan be? Herria hurrutitxo egoan. Katxinek suziri batzuk jo ebezan, zarataz sa-putzak ezkutau eta ospakizuna edozelan be burutu zala adieraztearren. Udaltiarrek seriotasun handiaz itzuli ziran Udalera. Ardao onagaz ospatuko eben iturri barriaren kantua.

### 3

Basauriko espetxean, agorrak 5, 1974an, astelehenez.

Lehenengo egunean bakarrik egon nintzan idazten eta bizitez nagon, eta lo egiten dodan gela honetan. Bigarren egunetik laguna daukat, askatasunetik etorri-barría antza, erdalduna bera, baltzeran tipoalakoa. Zorionez isila be bai eta hobe baino ez nik daroadan lanerako.

—«¿Estás escribiendo a la novia, o qué? —itaundu daust.


—«¡Quién pudiera hacerlo —nik—, sin que la carta cayera en manos ajenas!».

Zeuk aginduriko lana doroadala azaldu dautsodanean, aintzat hartu dau. Berak abogadurik ez daukala esan daust. Ni adikor agertu natxako, alkar onartu eta pape-rokaz daroadan burruka osotu ahal daidan.

Emon daustazun arazo honeri eskerrak ez naz asper-tzen, libre dodazan une guztiak uztiatzen dodaz, boliari oratu eta sailean ekinala. Kuadernoa eta ukondoak kokatzeko mahaitxo bat banendu! Ohea jesarlekutzat eta be-launak mahaitzat daukadazala, markurtuegi nagotzu, gauza onerako.

—«Oye, y ¿cómo se hace eso? —itaundu daust pre-solagunak.







—«Pues ya ves» —nik.

Paperak beztua auzia eta neure barrua argitzen doazelakoa daukat. Komisari arraiari hitz erdika bakarrik erantzun neinkion, ezegoki jatazanak itauntzen eustazalako. Irriz hartzen ebazan nire erantzunak nire erdera berea baino sinistagarriagoa ez bailitzan. Euskaldun baten berbeak, izan be, euskerazkoa izan beharko dau benetako pisua euki daian. Egigun bada auziaren euskal azalpena.

—«¿Quién descalabró la moto Vespa adjudicada en rifa legal a D. Francisco Goiria en la altura que... —Komisari argiak besartean eukan papelera begiratu eban ostera be— de Zubieta?

«Rifa legal» deitura horretan ni ez nintzan sartzen, baina gainerakoaz nik ez nenkiala ezer, ez nenzagula Uriguene osoan Katxini halako mendeku modurik egin leikionik.

—«¿A qué hora de la noche se retiraron usted y sus amigos de la romería de Uribe? —Begi ertzat zaintzen nindun komisari azkarrak.

Nik neure orduak zaintzen nenkizala erantzun neuntson, besteenaz ez dodala erantzuten, gauak eta erretiroak ardura ezbardinak daukazala gazte bakoitzarentzako. Ni salatu ninduenei eurai itauntzeko halako edo bestelako zehaztasun batzuez, ziur nik baino hobeto jakingo ebezelata-eta.

—«¿Qué? ¿Ponemos?» —Ezbaitan gelditu zan auzia makinaratzen eban morroia, komisari arraiari begira.

Komisari zuhurra goiko solairuko hageei begira gelditu zan une baten, ohargabetu edo oharretan bailegon.

—«¡Ha, sí, ponlo! Claro que sí —baieztu eutson.

Ez dot uste larregikeriarik esan neuntsonik komisari arraiari. Espedientea eskuratu badozu, han ikusi zeinke, dinotsudanaren argigarri. Izan be, Zubieta Urigueneko bazterreko barri komisariari emon eutsonak jakingo eban gainerakoa be. Hor, neure ustez, auzia herriko plazatik zokondo batera baztertu gurea dagola bakarrik, herri auzia dana ijito auzi-edo biurtu gurarik.

Neuretzako lotsagarri da politikoen espetxean egon beharrez, hemen preso arruntenean egotea, baina gogotik jasan daiket herriko auzia argitzekotan. Beraz Zubieta herri mugako bazter haretik Eleizaldera jasoko dogu auzia. Eleizalden, han dago Udaletxea, han Eleizea. Eskolak be han ziran lehenago, orain dagozan erauskinak lekuko. Han taberna biren artean eta herriko plazan egosten da lapikoa.

Polizi arraiak beste zigarro bat iziotu eban lehenengoa ahitu jakonean, neuri be eskeini egin eustan «¿fumas?» inostala, «no, gracias» erantzun neuntsan.

—«Entonces ¿quién de vosotros prendió fuego a la susodicha moto una vez que la tiraron al barranco?»  
—Zigarro kearen atsegina hartu eban komisari arraiak.

Halako itaunak harritu be egiten ninduela esan neuntson. Hori zezenari adarretatik oratzea barik auziari buztanetik, inoren buztanetik hatan be, oratzea zan. Eskerrak ez nintzala erretzaile gertatu eta hagaitik ez neuntsola onartu zigarrorik polizi zuhurrari, bestela arrazoibide bat gehiago leukaken ziur neure kontra. Erretzaile? Beraz pospolodun eta bardin moto-erretzaile.

Zigarro haren ketan eta dalado (nik zer dakit?) moto errearen garretan baino hareago Eleizalden dozu, Urigue-

neko auzia. Han barne txingar eta suminak, han politika-  
ren erresumin eta kultura eztabaidak. Gasolinaren behin-  
gozko garrak ez dira herriko suminak ezaltzeko.

Vespa berari be, adarretatik ondo oratu ezik, tresna  
arriskutsua gerta daiteke, harrikirria dagoen unetan batez  
be. Estabilidade gitxi eta ipurtarin, ondo gidatzen ez ba-  
dozu, lurrera zoaz behingoan, usterik gitxienean.

Salapen hau egin dausteenak, antza, ez dakiez moto  
edo berebilaren argiak gauzez ondo erabilten edo fokoak  
okertuta daukeez, gaizkilea, gaizkilerik egon bada, ez  
dauelako begiztatu, ez ondo susmatu. Basauriko espetze  
honetara erakarri nauenek haserako despiste bardina dau-  
kee. Neuri preso politikoen kategoria kentzearren ala  
eurak edotariko erantzupenetik askeago gelditzearren?  
Preso arruntekin neu bardintzea, neretzako lotsagarriagoa  
dana, ausaz eurentzat erosoagoa bilakatu da. Baina, zera...  
Eskuetan gelditzen jake arpegira jaurti gura dausteen lo-  
katz zantzua.

Eskerrak halan be, zeure eskuarte bizkorrari nigaz gi-  
zabidetsu izan direla uste dot. Zeuk agindu lana beteten  
itzi ezeze, hori dala-ta aintzakoago naukeela, esango  
neunke.

Presokideak be laster igarri dauste, jantoki eta pa-  
tioxan «tú no eres de los nuestros» esan dausteenean. Pisti  
arrarotzat jo naue.

—«¿Tengo acaso cara de chivato?» —Arpegia emon  
behar izan dautset.

—«No, eso tampoco, pero esto no te va...» —zehar  
begiradaz josi naue.

Nire janzkera ez da eurenalakoa, ez eta nire berbeta,  
arpegikera edo azalaz landa.

—«Tú no ha robao ni jodio a nadie...».

—«Yo soy vasco» —arpegira begiratu dautset—. Zuen artean badago euskaldunik?

Zurtz gelditu jataz euskera entzutean, inork be ez daust erantzun zati baten.

—«Si digo jo que te ha equivocado de lugar...» —era-goion hako andaluziar harek.

Erratu zirenak beste batzuk izango zirela, erantzun neuntsen, hara erakarri ninduenak, hain zuzen. Ez dakit komisari arraiak edo artekoak zer eritziko dautson honeri, baina espetxe honetan ezeze gulako askotxo be pisti arraroak gara holako erregimenean, behar bada ezin izan gaitulako euren errotarako urun ehio eta eralgi.

Ni pisti arraroa naz hemen nire ardurak ez direlako euren ardurak, nire amesak ez direlako azaltzen eurenalakoak. Ni pisti arraroa naz, euren txistek ez dodazalako ulertzen, edo ulertuarren ez dodazalako barresantzoka ospatzen. Bakarti eta isilkor agertzen nazelako ez euren autuak itxurgatzearen, gero kuaderno honetan idatzi behar dodanak kaskua hartuta naukalako, dala patioan edo jantokian. Ni neure auziagaz bizi nazenez gero, espetxean nagola be ez nintxake konturatuko presokideokaz harremunik ez baneunka. Izan be, gogoz eta asmoz idazten nabilen kuadernoan daukadaz burubelarriak, zer-zelan antolatu neure defenza. Neure defenza? Hareago esango neunke Urigueneko defenza.

Ez daukat hemendik urteteko prisarik lan hau egiten izten dausten artean. Ondo burutu gura neunke arazoa zeuri zor dautsudan azalpenaz eta benetako errudunak mezezi dauen salapenaz. Hatarako asteak berton jasan behar banenduz be zer? Beste batzuk hileak eta urteak jasan



ESSE

daroez herriaren askatasunagaitik. Neuk halantxe dakust neure burua, ziurtasun hau ez daust inork kenduko. Idatzita be halan daukat hor horma bazterrean, ez guztiz nabarmen «Euskalerrigaitik hementxe egon nintzan» eta ez Unibertsitate honetatik igaroko direnen eskolagarri baka-rrik, bai eta be zigor honeri benetako zentzuna emotea-rreren. Ez nagola hemen inori kalte egiteagaitik, zeozelan Euskalerrriari beste batzuk egin gura dautseganaitik baino. Ez dagokit bitima buru egitea. Nirea eta Katxinena bera pasadisuak baino ez dira auzi honetan. Mingarria dala espetxea jasatea edo sahietz bat apurtzea? Ba, ez da gitxia-gorako gure herriari urteetan jazoten jakona.

Neu be morroitzat hartzen nindun ziur harakoan akor-duan dodaniko lekenengoz «ba hoa eta bilatu eik nonbai-ten Abade hori» alkateak agindu eustanean eta begi su-tuak neure gain «zer ikasi hendun Seminarioan ba?» zi-rikatu eustanean. Gero konturatu naz, gordinagoak be esan eikidazela, jende gonbidaturik alboan izan ez baeban.

Gaitza egin jakon Alkateari Abadea idorotea, erreza ostera guri, gazteoi, hurrengo egunetan beragana jo gen-dunean.

Ez dakit zer kezka edo zimikoak ikutu ginduzan ha-rakoan, mutilok batez be, «prakak diaukozak horrek, txo» esango eban baten batek, baina koru edo korupeko ma-rratik Abadeagana hurreratzea ez zan erreza izaten. Neu ostera, abadegia nintzanetik, irakurgaieren bat egiten-eta altare ingurura hurreratzen ohitua nengon.

Nire mutil lagunak, langilego ziren aldetik, boltzea bero eta lanean nor sentitzen ziran, kultura gaietan, ostera eta hareago Euskalerrikoetan, ondo murriztu ikusten eben burua.

Gogoan daukat egunatan Uriben euskal kantarien ekitaldia izan gendula. Euskaldun gaztez bete zan Uribe pelotalekua. Kantari hareetariko batek bereberki abestu eta ohiukatu eban abertzaletasunaz berotu egin gintzazan. Han entzunikoak niretzat ez ziran barriak, baina neure gazte-lagunengan sortu eban zirrara ohartu nendun. Euskal kanta barri hareek ikasi eta abestu gurako ebezan. Artean ez ekiezan basa- erromerietan-eta abesten ziren koplak batzuk baino. Ezelako euskal kultura barik sentitzen ziran eta kaletik gogor eta maltzur ekiten euskun erderari zelan erantzun ez genkiala.

Euskal diska batzuk eta magnetofonia neunkazala esan neuntsenean, hareek entzuteko irrikaz egozen, neskak aurreren zirela. Mutil lagun batek baino gehiagok azaldu eusten gure «euskerak, izan be, ez jok balio, baina hik eskolea daukak...». Entzuteaz bakarrik amorratu egiten nintzan.

—Ez dauela balio zuen euskerak, gure euskerak?  
—erantzuten neuntsen ahalik beroen—. Ze alde diagok ba zuen eta nire euskeraren artean?

Besterik da jasoten dana Uriguenealako baserrian: euskal arloko kultura zeharo baztertuta, erderean eskolatu ginduezela eskolan. Gure sasoiari (eta oraingo umeekaz saldukeria bardina egingo daue Uriben dagoen eskola alkartean) herriko erdal maisuagandik hasi eta komunikabide guztiak, euskerak ezertarko be ez dauela balio esan dauskue. Erdera zala ikasketak egiteko eta bizibidean aurrera urteteko hizkuntza. Guraso oker eskolatuengandik be maiz ez gendun besterik entzun. Askok euskal konplexua hazurretaraino sartuta euen. Ni, Seminarioak mutildu ninduan, osterakoa nintzan: euskaldun mutila, gizartean beste ezerk baino gehiago euskerak harrotzen ebanetarikoa.

—Niretzat euskera ez dot izan ezelako eragozpen —erantzun neuntsen—. Hemen euskera ez dakian sasi- maisuen eta danean erdera sartu gura dauenen ipuinak do- zak horrek, gu euskaldunon izakerea eta nortasuna euskera beragaz hondatzearren.

—Jo! Hori be bai gero! —Nere mutil laguna basai- dizkoa legez mendira adi gelditu zan une baten, gero uka- bilak erakutsi eustazan—. Ez dautseque itzi behar.

Herriko plazan gengoan. Alde batera Udaletxea geun- kan, Eleiza bestera, Eleiza ondoan Abadetxea. Batera eta bestera begiratu gendun. Iturri barria be geure ondoan marmar ihardun paparrean josi eutsoen bronzeko erde- rakakadaz mindu bailegon. Abadetxera jo gendun. «Be- dorregaz berba egin gura gendun» esan geuntson; «zer bedorregaz» berak, «ni "zu" nozue edo "txo" gura ba- dozue».

Goiko salara eroan ginduzan. Lau morrosko aurrean ikustean, zeozer ardurazko esatera gentozala igarri eban. Bere aurrean jesarriazo ginduzan. Gutariko batek plazako iturria estrainau zaneke pasadizoren bat aitatu eban, igaro zaneke aste batzuk baino ez ziran eta.

—Ez daukat ezer bedeinkazinoen kontra —esan eus- kun—, eta gauzea apur bat herrikoiagoa izan balitz, gus- tora bedeinkatuko neban. —Zigarroa isiotu eta erretzera konbidatu ginduzan—. Baina nik gura ez nebana, zera zan: egunkarietan agertzea. Ez zaree konturatzen gutariko abade batzuk espetxean daukezalarik, beste batzuk holako bedeinkazinoak emoten agertu gura dauezela herriaren au- rrean? Tatika nabarmena dozue. Alde batetik egurra da- moskue euskaldun abadeoi, eta besterik, agintari eta jaun- txuen ondoan laguntzaile apal erakutzi gura gaitue. Jen- deak zera esan daian: «Ikusten dozue Eleizea zein alka-



tuta dagoen erregimenagaz? Hor beretik urtenda dabizan abade banakak, politikarren galduak baino ez dozuez...».

Abadeak zigarroari pautada bat egin eta hautsak astindu ebazan ontzian inguruko paperak zikintzeko ardurak baileukan.

—Nik ba nenkian, gitxi gorabehera, zer jasoko zan —Betikara bereziaz begiratu euskun—. Sasoiz alde egitea erabagi neban. Bedeinkazinoa ukatzea baino egokiagoa egiten jatan.

Abadeak leihotik plazara begiratu eban. Bertatik ikusten zan iturria; irribarre egin euskun.

—Ordutik hona sarritan bedeinkatu dot bertotik; edan be egin dautsuet-eta. —Geuri begira gelditu zan une batean isilik—. Ta? Zer dinostazue?

Geure izenean eta beste mutilen izenean gentozala esan neuntson.

—Zera... Guk, gaueskola antzeko kultura batzarreak egiteko toki egokia behar genduke —esan neuntson—. Inoiz tabernan bertan alkartu izan gara ardao batzuk edan aitzakian, baina ez da toki segurua. Katxin agosila edo beste belarriberotzaileren bat etorri daiteke usterik gixienean eta toki nasaia behar dogu.

—Zergaitik ez zoaze Udaletxera bertara? —erantzun euskun—. Toki zabal eta ederrak daukaz herriko etxeak ezertarako erabilten ez direla.

Zurtz gelditu gintzazan halako erantzunaz, adarra jotzen ete ebilkun egon nintzan une baten.

—Udaletxera dinoskuzu, jauna —esan neuntson— geuk Alkate eta bere txakurregandik aldentzea bilatzen dogula?

—Eskatu dana dala be; konfiantza emon berari, berak be beste hainbeste emon daizuen zeueri. —Abadeak beti-

kara amaigabeaz begiraten ginduzan, ez ebilkun burlezar—. Ez ahaztu herriko etxea dala eta Eskolak lurra jota dagozanez gero, dinozuen kultura batzarre edo gaueskola arrazoi bikaina dozue, Alkateak Udaletxean itzi daitsuen. Ez ala?

Gu isildu egin gintzazan alkarri begira. Abadeak esan euskun bide haretatik ez gintzazan ausartzen; «ezagutzen ete dau gero Abade honek gure Alkatea» ninoan neure artean. Oraindino ez ziran lau hilabete herrira etorri zantetik eta gehien bat geure artean gendunarren, eta gurea ezeze, beste auzo bateko ardurea bere kontura dauka.

—Zer gura dozue toki hoberik? —erantzun euskun Abadeak gure zurtzadura aztertu ondoren—. Tokia eta baimena izango dozue erabatean. Halako batzarretarako, gaueskola deituarren be, ez ete dira behar izaten poliziarren eta Alkatearen baimenak?

—Hain zuzen be estrepozu horrerik begira gengoan gu —aitortu geuntson Abadeari.

Gure asmoa Eleizaren babesaren lortzea zan herrian inork molesta ez gindeizan. Gure Alkatea ezagututa, aurretiz emoten gendun gulako gazteen batzarrari behingoan politika txakurraren susmoa bota leikiola.

—Uste dozu, jaune, Alkate horrek itxiko dauskula? —erantzun geuntson.

—Ausaz —Irribarre egin euskun Abadeak—; ikusi egin behar...

Abadeak zigarro kondoa hautsontzian keak itoteraino mutxitu eban; ausart begiratu ginduzan.

—Prueba egiten da, ea zer dinon.

—Alperrikoa izango da horregaz —erantzun eban gutariko batek.

—Ez eik esan alperriko. —Bekainak goratu ebazan Abadeak—. Hor ezagotuko dozue Alkatearen kultura ganoa...

—Kultura horrek?

—Dana dala, bere erantzuna eskuan dozuela, beretara ezpada, gauzea geuretara antolatzeko arrosoi hoberik izango dozue.

—A, bai ta be! —esan gendun.

Abadearen zuhurtasuna ezagutu gendun; aurre-eritxietatik at jardun behar gendun, lege bidea eskatu eta, ezezkoan, orduan ikusiko gendun zer egin. Plazaren bestaldean Udaletxea aurrez aur ikusten gendula eta beste barik, ez gintzazan jarri behar haren aurka. Diplomazia apur bat behar gendun.

—Ez dozue nik bialdu zaituedala esan beharrik —eskua emon euskun Abadeak.

Alkateagazkoa egiteko laukote barria aukeratu gendun: neska bi eta mutil bi. Egokiago eritxi geunton bikote bikotxari, gure asmoak politikatik aldenduago eta kultura eta pasadenporatik hurrago nabari eitezan. Neskak gainera Alkatearen alaba bitarteko eukela, hagazko topaketa antolatu euskuen.

Alkateak Udalean bertan hartu ginduzan. Udalean sartu eta goiko salara igonala, egoki be egokia eritxi geunton haren azpiko tokien zabalari, gaueskola edo bardin musika gela bihurtzeko aukerakoa hatan be.

Alkateak zabaltasun itxuraz hartu ginduzan, baina betazpian pikaroaren irria hur ebilkola gero, «zer gura dozue» itaundu euskunean.

—Gu gaueskola moduan kultura batzarretarako tokien baten bila gatoz —esan neunton nik—. Ikusi be egin

doguz Udalpean tokirik nahiko dagola hatarako prestatzeko moduan. Geure lanaz eta diruaz laguntzeko prest gengokez.

Jesarlekuan alde batera eta bestera mogitzen zan Alkatea, berbetan nengola, gero buruan hazka egin eban.

—Ze kultura edo zer behar dozue ba? —Bekoia ixurtu eta begiak txikertu begiratu ginduzan—. Ez ete dozue nahiko alogurarik irabasten ala?

—Baina kulturea bestelako ogia da —erantzun neuntson—. Eta gu ogiaz asetuta egonarren, kultura gose gara.

—Non saltzen da ogi hori? —Maltzur barrea egin eban Alkateak—. Ba dakizue dagoneko neu be gosetu egin nazela?

—Gu erosteko barik, hartuneko kultura debalde alkarri emotekotan gabiltz —Apal baina ezbai barik erantzun neuntson (erantzun neuntsola uste dot).

Erantzun baneuntson, erantzun neuntson. Ez neban uste halako agirikaren duin egin neintekionik.

—Heuk hatan be... Seminarioko estudioak erdi amaturik itxi henduzan horrek! —Irri egin eustan Alkateak—. Holakorik entzuteko! Gazteok, eta halako gazteok, alkarren maisu!

Ondo sapustuta itxi nindun, adizkideak eusten begiramenagaitik begitan hartu izan bainindun. Neu gizabiderik handienaz eta bera ume kondo bateri be sor ez jakon gordinkeriaz.

—Bueno —eskuartu eban neure alboko neskeak—, Abadea be geuri laguntzeko prest dago.

Abade izena entzun eban orduko, samea luzatu eta begiak goiko solairuan josi ebazan alkateak, goiko habeak jausi-arriskuan edo ikusi baileuzan.

—Bai ta zera be! —jardetesi eban gero sudurra astin-

duz—. Eleizakoagaz nahiko ez bagendu...! Abadea Udaletxera!

Abadea aipatzeaz, gauzea bigundu beharrez, gordindu egin zan. Hurregi egon nonbait iturri ospakuntzaren gomutea. Gure zalantzak ikustean, Alkateak zehatzago oratu ginduzan.

—Neuk emongo dautsuet zuei behar dozuen maisua.

—Ze maisu gero? —jardetsi eutson neure albotik mutil lagunak.

—Ze maisu? —Begi gora eta bekain zan Alkatea—. Ez dozue ba zeuek Udaletxea aukeratu? Ba Udaletxeari dagokiona.

—Guk ez dogu inoren eskolarik behar.

—Sekretarioagaz berba egingo dot... —Belarria hurruneko doinura adi baileukan, une baten isildu zan—. Berak jakingo dau...

—Ezagutzen doguz Sekretarioaren lagunak —ekitson mutil lagunak—. Ez dira geure gustoak, gainera ez dokie euskerarik be. Guk herri kultura gura dogu.

—Herri kultura ala politika da zuek gura dozuena? —Bekarkara begiratu ginduzan Alkateak hagin irrikoiak erakusten euskuzala—. Ez daustazue ba maisuetan Abadea aitatu? Zer da ba berea, politika izan ezik?

—Guk bakea gura dogu —eragoion nire lagunak—, hagaitik ezin geinkez onartu Sekretarioak-edo gomendatu maisuak, haren lagunak armadunak direlako.

—Guk kulturazko arma gura dogu —gaineratu neuntson neure partetik nik—, herriko iturri garbietako kultura hain zuzen.

—A, bai e? Iturri garbia! —Burua mogidu eta barre egian Alkateak—. Hor plazan daukazue bat. —Haginak

erakutsi euskuzan—. Ez zenduen asko txalotu beraren inaugurazioan.

—Ez zan izan iturriagaitik. —Begiak jatxi nebazan benetasuna lortzearren, gero arpegira begiratu neuntson Alkateari—. Iturriak ez dauka errurik.

—Iturriak errurik? Ajaja! —Barre zantzoa jaurti eban Alkateak—. Hau entzun behar doguna! Iturriak ur garbia baino ez.

—Geure menditikoak direlako hatan be! —jardetsi neuntson kikildu barik—. Eta hagaitik edan be egiten doguz eta ongarriak dira. Orain ba, beste hainbesteko garbitasuna eskatzen dogu hartu behar dogun kulturarentzat: geurea, geure herrikoa, konfiantzakoa izan daitela.

Alkateak ahoa irritsu eta begiak nimitotu begiratu nindun, azpian eta aukeran banindakusan.

—Non ikasi dok, txo, holako berba modurik?

—Seminarioan! —erantzun neuntson hitzetik hortzera.

—Seminarioan... —Aineninoak murduskatzen eragoion une baten Alkateak, hasarre begiratu nindun—. Abade ezinian, abademotx...

—Eta ez beste batzuk legez, kultura-motx, —Begiradea alboratu neban, alboko neskeagaz berbetan banengo lez.

Alkateak batzarretako mahai zabalean ukondoak kokatu, esku artean babestu eban burua, neurriak hartzen bailihardun. Nik andana jaurti neuntson orduan.

—Herriak bere nortasunaz jantzi behar dau burua...

—Neu naz hemen herriko buru! —Txispa batek astinduta ez arinago, Alkateak aulkitik jagi eta hatzamarraz

atea erakutsi euskun—. Eta orain zoaze etorri zareen lekutik.

Alkatea mu gelditu zan, zutunik, eskuaz atea adierazten euskala. Alkarrizketa amaitutzat emon gendun. Isilik urten behar izan gendun herriko etxetik.

Ez genkian negar ala barre egin. Tabernan begira genduzan mutil lagunak gurea entzutean bardin gelditu ziran. Burruka luze baterako gertu beharrra gendula konturatu gintzazan. Baso ardao batzuk aterata, pasadizoko koplata jo gendun arnasea hartzearen:

«Herri kultura ezpada  
politika ona,  
Alkateak maisuki  
dauko erantzuna.

Bere opinioaz  
buruak jantzita,  
zerk irrika dagike  
gaztean bilketa?

Maisutzat dauka berak  
Sekretarioa,  
ez genduke geuretzat  
gura halakoa».

## 4

Basauriko espetxean, agorrak 6, 1974an, martitzenez.

Nire espetxe lagunak ohea hustu daino, gosaldu aurreko unea uztiatzen dihardut. Hain zuzen be, atzo arratsaldean berak muzindu eustana gogoratzen dot. «Todavía no me has preguntado por qué estoy aquí» itaundu eustan umearenalako aldikadaz. Hamazortzi urte baino ez daukaz eta hamasei-edo emoten dauz, izan be. Ez zala gauza handiagatik izango, erantzun neuntson. «Lo que he hecho no, pero lo que me acusan esos cerdos sí» jardetsi eustan bizi-ro. «¿Qué?» nik gauzeari gara handirik emon gabe. «De pertenecer a una banda de atracadores; de haber robado joyas». Ez —entzuna edo ez— sinistua egin neuntson neure lanari jarraitzen neuntsola. Orduan berak, hurreratu eta besoan ikutzen nindun «mírame» inostala, «¿tengo yo acaso cara de haber robado joyas?». Eskuarteko lana itzi eta astiro begiratu neuntson; «no» erantzun neuntson, «claro que no». Erraturen bat izango zala. Polizi edo artekoak sarritan okerreko salapenak hartzen dauezela eta orduan zintzoak ordaindu eroela gaiztoen errua... Baina gauzak argituko zirela azkenean.

Nire erantzunaz nasaitu egin zala emoten eban; barkartade sindromeak eukan nonbait. Ostera be besoan ikutu nindun: «tampoco me has dicho lo tuyo» muzingatzen eustala.



Eroapenaz hartu neban gauzea; «a mí me acusan de algo peor» erantzun neuntson nasai jesarrita nengola, «de intento de asesinato». Lauorritu gelditu zan zutunik neure aurrean, bere arazoaz ahaztu eta neureaz arduratan baillegon. «En realidad» jarraitu neban patxara berberaz «lo que yo he hecho no es otra cosa que recuperar las joyas». «¡Las joyas! ¿Qué joyas?» berak larritu. «Las del pueblo» nik, «las habían robado el señor Alcalde con el señor Secretario y otros de la camarilla».

Nire espetxe lagunak eskuak burura eroazan, adarra joten ete neuntsaneko mesfidantzaz begiratu nindun, nik eutsi neureari. Barreka amaitu eban nire espetxekideak. Ez eustan sinisten, baina halan be herriko bitxien historia kontatzeko eskatzen eustan. Nik, banindabilala kontatzen, baina eskribuz, abogaduak agindu eustan lez.

Harrigarritu begiratu eban nire kuadernora. Irakurten itxi neuntson. Hitz batzuk ahokatu orduko narda imintziaz begiratu nindun «esto es chino» inostala. «Es secreto del sumario» nik. Han idazten nebana es ebala inork jakin behar neure abogaduak izan ezik.

Halan be apur bat aurrerago irakurri izan baleu, erderakadaren bat baino gehiago irakurri einkean, komisari arraiak jaurtiten eustazen antzekoak:

—«No obstante, nos consta —Polizi zuhurrak badaezpadako txostenera begiratzen eban—, que también usted estuvo entre los alborotadores durante la rifa de la Vespa en cuestión».

«Bero bero...» nik neure artean, ezpana oskatzen gelditu nintzan eta okotzeko bizar puntak aztatzen. Egia zan, baina «bai» edo «ez» hutsetara erantzutea larria egiten iatan. Zelan erantzun? Ez eustan asti handirik emoten komisari zorrotzak.

—«O también nos vas a negar esto...?» —Begi ertzaz joten nindun polizi arraiak.

—«No, no tengo por qué ocultarlo —erantzun neuntson—. Lo que pretendíamos era informar a la gente de que la moto de la rifa no estaba exenta de obligaciones morales...».

—«¿Obligaciones morales?». —Besoak lehen baino be estuago gurutzatu ebazan komisari harrigarrituak edo eta irriberak.

Irribarre amoltsua egin eustan, nahiz eta neuri maltzurkeriaz betea begitandu.

Zer esanik be ez, komisariak txosten osoa euki behar ebala zozketa harakoaren barri jakiteko. Belarri berotzailerren bat igaroko zan hurrean nire aurretik komisari zuhurraren gelatik.

Halan eta be, komisari arraiak zehaztasunak eskatzen eustazan. Neuk esan behar ete neuntsozan? Salatu nindela, ezertan errudun ikusten banindun.

—«¿Qué obligaciones morales?» —komisari arraiak.

—«Sí, que la moto aquella tenía su dueño» —murriz erantzun neuntson.

Honela lan gitxiago emoten neuntson nire aitorkizunen irarleari. Ez neunkan bestalde zertzeladen kontakizunean zertan aurreratu. Hariak berak ekarriko eban gaine-rakoa; baina hariak nork naspildu ebazan jakin behar neban aurretiz. Honela, egia osoa argitu daitenean, hobeto ikusiko dira trikimailua antolatu dauenen itzala.

Baten batek erdera ziria sartu dau espediente honetan. Euren guzurrentzat aukerako marroa idoro daue erderagan, gure herriko auzigaiok euskeraz jazo direla danak,

euskera burrukari baten hurrean, erderaren aurka. Ziri horri erantzuteko ez daukat euskera baino beste armarik. Honela, euskerazko erantzunaz, agiari zuzenbidea ezeze, zeuk agindu isilari begiramena gordeko dausat.

Zeure zuhurtziari nagokio larregia deritxazuna kendu eta on deritxazuna hartzea. Ziur eritxietan erratu neintekela, espetxe zulo honetan jazorikoengandik aldendu eta neuretan horren gogobildu nagoelarik. Ez daukat, egia esan, eurak, ni saltu nauenak, daukeen askatasuna istripu edo danadalakoaren argia eguzkitan bilatzeko. Itzalpean daroat argi bilaketa au, inork eguzkiaren argitan egotsi daustalako gerizpea.

Susmo berberak geunkazan, Alkateagazkoa izan eta hurrengo baten Abadeagaz egon gintzazaneko harakoan.

—Beraz abade gazteok politika baino besterik ez dogula egiten e? —Irribarre egian Abadeak Alkatearen erantzuna jakinazo geuntsanean.

—Bere politika ez dauela jarraitzen esan gurako eban —Geuk be barre egin gendun harakoen aipamenetan.

Politika amarruetariko bata inori politika harria jaurtitea zala igarri gendun. Ea gero zein ete ebilen bideotan lokaztuago? Geure egitari bultzatuz, erantzuna emoteko ordua gendula uste gendun. Jauntxuek herriaren lepotik ebilen karta markatuen jokua salatu behar gendun. Baina nor gintzazan gu hatarako? Tira, Abadea gendun lagun eta Eleizearen inguru ondo babestu ikusten gendun geure burua.

Izan be, Urigueneko eleizea, dorre barritu eta barruko harlanduak kare-garbitu, itxuratsu geunkan beste jokera askoren garbi-dei eta eredu beigendun. Horixe izan zan,

hain zuzen be, urte hatan beratan jubilatuko jakun abade zaharrak osatu itzi euskun gomutagarria. Bestetariko aldakuntzetan ez eban euki adore bardina. Kontzilio aurretiko eta «cruzada» osteko ohitura lotsagarri batzuekin jarraitzen gedun. Ausaz D. Simon, abade zaharrak, herriko Alkate eta beste handikiekaz musean iharduko zan, haren karta faltsoen ez jakinian.

Abade barriak bide barriak erakusten euskuzan ostera.

—Ez dautsue esan abadeok ondo gagozela sakristian sartuta? —Betikara ezaguna agertu euskun Abadeak, herrian sartu gintzazaneako—. Ba esan eikean, horixe da holakoak esan ohi dauena gu plazaratzen ikusten gaituenean. Lehen ostera, Udalera bertara be inbitatuak izaten gintzazan. Alkateak ondo ikusten ei eban alboan abadearen sotoa, haren santutasunaren agirian bere debozinoa be ondo agertu eiten-edo.

—Ba, gauzea orduantxe berotu zan —azaldu neuntson nik—, gaueskolan laguntzeko Abadea prest geunkala esan geuntsonean.

—Burubelari sartu zintzazen e? —Barre egiskun Abadeak.

—Zer esango neuntsan ba? —Burua zuritu eban hako neskeak, Udalean Abadea aipatu ebanak—. Hainbako ikusten ginduzanez gero, geure alderdia sakatu, horixe.

—Ondo egin hendun gainera —txalotu neban nik—. Horrela argiago agertu don Alkateak Abadeaganako daukan borondatea eta bestealde Kaudilotxuri dautson menpekeria.

—Zelan da hori? —itaundu euskun Abadeak.

Nonbait oraindino Abadeak ez eban ondo ezagutzen herriko Sekretarioa, herrian «Kaudilotxu» ezizenaz ezagutzen doguna.

—Hori da ba, Abadea aitatu genduneko, Alkateak agindu euskun «alternatiba» —azaldu geuntson—. Bera da herriko Falanjeko buruzagi eta herrian danik partale bakarra.

Herriko sekretaritzita daroanarren, Uribeko kalean bizi da. Noizbehinka agertzen da gure auzoan. Herriko semea danarren, nekez entzungo dautsazu berari euskera hitzik egiten. Hortik igarri noraino erdaldundu jakon kontzientzia eta zelako meritoekin lortu dauzan bere bizibideak.

—Guk bakezko eskolea gura gendula erantzun geuntson, ez gendula gura armatuegazko harremonik.

—Ondo erantzuna —eritzi eutson Abadeak.

—«Abadeak sakristira» esaten nik ez neuntson entzun —zehaztu eban harako neskalgunak—, baina bai neskak etxean gorde gurarik: «eta zuek, neskok, hoba egingo zendue amari etxea garbitan lagunduko ba zeuntsoe holakoe-tan sartu barik».

—Hori, hori da kalea garbi eukiteko erarik onena —Irribarre egian Abadeak, betikara larrian—: Abadeak sakristiara eta neskak etxera, biak be errepresio erregimenaren ardatzat, bata Udalean eta bestea Eleizan asmatuak... Udala, Eleizaren aldean, atzeratu gelditu jakula.

Orain argiago dakust herriko muslari gorenak, hain zuzen be, kultura erritmo ezbardina daroelako, eta erabat, karta ezbardinekin diharduelako, batak kulturaren enbidatzen dauela eta besteak politikan ordagora joten: «neu naz herriko buru», hogetaimaikak eskutik baileukeezan.

—Buruia bai, baina zertarako? —maizeatzen gendun—. Artoak be buru galantak diaukeezak gure soloan.

—Buru hainbat aburu, horixe —eritxi eutson Abadeak—. Hak bere lepotik eta guk geuretik, eta zeinek emoten dautson argibide gehiago herriko plazari.

Horixe, «herriari zeinek argi gehiago emon». Horra alkarren artean eta bardin aurkalarien artean gendun apos-tua. Ez daitela gero norbait argiok moto errearen garrekin nastetan etorri. Hemen ez da beste surik hako Prometeuk inpernuko lezetik gizakientzako jainkoei ohostu eutsena baino: herri jakintzaren suzia, apalago esanda.

Gurean jainko burua egiten dauenei egoki jatorkela etorri heroea lapurtzat erakustea:

—Eta armen politikaz esan dozuena ederto baino ez —ohartu eban Abadeak—. Arrazorik ez daukenak joan ohi dira armetara. Gu ez. Guk mila arrazoi daukaguz es-kuan eta mihinaren puntan. Plazan eta eguzkiaren argi-tan; esatea debekatu egin dauskuela.

Abadeak lehiotik at begiratu eban, behingoan irribar-reez bihurtu jakun ziriren bat-edo otu izan bailitxakon.

—Ez dauskuela plazan izten? Ba oilategian.

—Zutundu egin zan, jarraitzeko eskatu euskun—. Kukurruku ezin danean, kakaraxa... Aboskera bitako ba-rra egin gendun neska eta mutilon artean.

Zurubian behera jarraitu geuntson abadeari. Zurubi oinetan, atartean bertan alde batera sukalde -eskaratza dago, D. Simonen azken lapikoa egosi zanetik eta harako. Txapea, behekosua eta D. Simonek bardin jateko eta jen-dea hartzeko erabili ohi eban mahaia, leiho argitsua pla-zara adi eta atzeko aldean, esku-esku, bainua.

—Hau ez dago txarto be —eritsi eutson Abadeak—. Ez hala?

Txarto? Ez horixe. Gure baserrietako eskaratz askok baino oin hobea eukan Abadetxeoak, harek beheko har-riilu gorriak eta goiko zolairuko habe baltzak, ausaz oraingo nesken gustokoak bilakatu ezarren.

—Baina estu baderitxazue toki honi, goazen bestaldera— dei egin euskun Abadeak.

Neskak sukaldeko sekretoez zaletu jarraien, txapa, harri, balda eta arasa inguruan azterkatzen.

Bestaldean atartetik eskumatara zan oilategia edo dadalako. Sarrerako ataurrean egoen motoa hegaleratu eta bultzatu eban Abadeak. Ate harek idikeran egin eban kirrinkak urteetako lozorrotik itxartu danaren arrauzia irudian.

—Ez bildurtu saguzaharren batek urteten ba dau be—esan eban Abadeak, linternea eskuan, barrura sartu zanean.

Leiho bat argitu zan iluntasunean, beste bat gero. Bata, sukaldekoaren parekoa, plazara begira eta bestea aldameneko etxera. Sukalde-eskaratzak baino be gela zabalagoa emoten eban. Behea zatarriz, hormak hautsez eta goiak amaruz beterik egozan, sorginak gaubelarako erabilitako apaingarriz bailegon.

Mutilok geure arduran hartu gendun oilategi-edo izan zanekoa garbitzea, neskak sukalde-eskaratzak berean hartzen ebela. Hareexek ziran, izan be, guk behar genduzan gelak, bata, eskaratza, gaueskola egiteko eta beste, oilo-aretoa, musika entzun edo jaia egitekoa, kukurruku eta kakaraxa era batera. Baina ez egiela ikusi haren itxura txarrean beste lagunak. Hormak zuritu eta leihoak pintatu ondoren bestelakoa geldituko zan etea edonori erakusteko eran.

Beste lau mutilen laguntza eskatu gendun. Ba daukaguz etxegintzan diharduenak be gure artean. Beneko zatarrerria kenduala, azpian harlandua agertu zan. Abadeak giltza emon euskun eskura, ola-lanetatik askatzen gin-

tzazaneko, harako aukera izan gengian. Apostu egin geuntsen neskei zeinek hobeto konpondu bakoitzak bere alderdia. Lanean giharduela, kopletarako gogoak emoten euskun:

«Oilategiko eskolak  
argituko dausku,  
zeinek joten dakian  
hemen kukurruku.»

Geure artean eta bardin kalera begira egoen leihotik abesten genduzan, Abadetxean babestu baina plazara generoala burrukea:

«Oilategiko eskolak  
agertu daiskula,  
gangarrak apaltzeko  
arrautzik ba dala.»

Abadetxeko gure sartu-urtenak gero eta ugariagoak eta susmogarrigoak egiten ziran. Halako baten Katxin, herriko agosila, leihotik kuskusean somatu gendun.

—Zer darabizue hemen? —esan euskun agirian gel-ditu zanean.

—Abadetxea konpontzen, Katxin. Laguntzen etorri gura dok ala? —erantzun geuntson.

Uste dot susmogarriak eta hamar murduskatzen joan zala handik zehar. Ez dakit iluntze haretan zeren barri emongo eutson Alkateari.

Hormei zuria eta goiko solairuari ohol zaharrak eukan kolore berbera argitu, beheko harlosa lehengora itzuli eta leihoak gardendu genduzanean, lagunei erakutsi



geuntsen. Ez ziran gitxi harritu. Euretariako batek «Gaztedi-Klub baino be eleganteago diagok eta» eritxi eutson. Harrezkero olgetan benetan «Gaztedi Klub» izenez deitzera ekandu gintzazan: «Gaozen Gaztedi-Klubera», «Bazatore Gaztedi-Klubera?».

«Gaztedi-Klub» hori Uribeko dantza-tokia zan. Abadetxea eta bere funtzinoa geure asmoetatik bananzearren egiten gendun. Abadeari berari be ondo begitandu jakon, Abadetxeko ateburuan halako izenik ez ipintekotan. Izenarena laster erabagi gendun plazara adi dagozan leiho bietako kristaletan spray zuritan «GA-Z/TE-DI/KL-UB» idatzi gendunean. Nabarmen eta dotore gelditu ziran leiho biak, barrutik be zeozer ikusgarri egoketaren seinale.

Domeka baten, meza nausiaren ostean, estrainatu gendun «Gaztedi-Klub» aretoa, gela biak bat bailitzazan. Hogetamar bat gazte alkartu gintzazan neska eta mutilen artean. Ez geuntsan inori sarrerarik eragotzi. Emakumetariko batzuk be inguratu egin ziran gure ospakizunera. Neskak sukaldean mokadu gustagarria antolatu euskuen baserri eratarara. Baina janedanak eta txistua aurretik aretoaren bedeinkazinoa izan gendun. Han geunkan geugaz hatarako Abadea estola eta guzti. Errez egin jakun bera topatea eta ur bedeinkatua ixuri eban toki eta tokikoen gain honelatsu inoela, liburutik barik, buruz: «Bedeinkatu eizu, Jauna, Gaztedi-Klub hau eta bertan alkartzen garenok eta egizu etxe bazter zaharkitua honela barrizteko gei izan direnez gero, herri jakintzaz eta alkar maitasunez herriari laguntzeko be izan daitezela...».

Ez jat ahaztuko harako bedeinkazinoa, behar bada, plazako iturriaren inauguratzean egon ezanaren gomuteaz lotzen dodalako eta gazteon herri kultura asmoekin bat

etorrelako. Oraingoan ez gendun izan gonbidadu bikainik, ez fotograforik. Herriaren pentzutan barik, geure kontura egin genduzan lanak eta kostuak. Han ez egon beste ikurrinik, neskak edergailuz ipini ebezan paper din-dilkari batzuk baino.

Txistua jo nendun. «No es usted el txistulari de...? Ez ba! Neskak gogotik ekin eutsoen dantzeari. Nondik jakin ete eban bestalde ni herriko txistulari nintzana? Eta zer dauka berez txistulari izate honek Katxin agosilari egin dautsoen sabotajeagaz edo emon dautsoen jipoiakin? Horren susmogarri ete gara txistulariok? Kontu egin txistularia herriko protesta izan daitekela erdal altabozari aurkatzeko txistua baino beste biderik ez dagoanean. Holako zerbait jazoten zan behintzat Uriguenen.

Herri jaietan be ez gendun izaten txistu soinurik, soinu ofizialik behenipehein eta ez harean neu txistulari medarretakoa nintzalako. Herriko alkateak gonbidatu ezarren, han gintzazan gu. Gaztedi-Klub idegi gendun arratsalde berean, euskal kantarien kantu barriak entzuteko asmoz alkartu gintzazan neska eta mutil batzuk. Uribeko kantaldi haretatik magnetofoiari hartuta neunkazan. Gogoan dot Benito Lertxundik abesten eban «Mendian lar artean» harakoa, esate baterako. Hako menditar loretxoa geure herriko kultura zan eta behin-behinik euskera niretzat. Hagaitik egon lar artean, umetxoari arantza arte-tik aska eiala eskatzen. Mutil gazteok be geure konsumismo eta diruzalekeriaren mardo ostean jatorrizko umea senditu gendun loretxo hareri laguntzarren.

Gure eskuak ez eben artean arantza bat kendu, esateko, herri kulturaren bidetik eta geutariko neska eta mutil batzuk be, libre izateko jaio gintzazala ahazturik, hain-

beste erdal zalekeriari lotuta gengoan. Zer egin behar gendun hako loretxoa askatzeko? Harriak auzora bota? Herriaren askatasuna geu kulturatze eta gogoz askatzetik etorrela ulertzen gendun, «orduan emango bait-du ugari bere frutua».

## 5

Basauriko espetxean, agorrak 7, 1974an, eguastenez.

Egun bakoitzak espetxeko errealidadera erakarri gura nau, baina nik ba dakit zer egin inguru honetatik iges-tearren. Espetxea dan beste, erdal mundua da niretzat: espetxe doblea. Hiru erdera mota nabari dodaz patio eta jantoki giroan, euskerarik ez hanean. Ez ete dago euskaldun bat hemen? Beste nilako euskaldunei zer egiten dantse ba? Oraindino ez dot euskal kiderik idoro. Ausaz baten bat egotez egon daiteke eta ausaz bildur da bere euskaltasuna adierazten; gomendio txarra nonbait. Andaluzak eta gailegoak ez dabe euren doinua urruinatzen. Beste askok eta euretan nire gela-lagunak hurragoko erdal kutsua dauka. Errekaldeberrikoa dala esan daust berak eta euskotar burua egiten dau, beste erdal doinudunengandik bereiztearren, behar bada. Nik, «vasco» barik, «euskaldun» nazela esan daustsat, baina berak ez dau hiztegiaren aldea baino ikusten, funtsean gauza berbera bailitzan.

Bart lezino bat emon neuntsan, «oye, y ¿cómo fue lo de la recuperación de las joyas?» txuliatu nindunean. «Fue más bien, intento de recuperación» nere egitadearen garrantzia beheratu neuntson. «Pero, ¿joyas de verdad?» harek oraindino; «es un decir» nik.

Sapustu egin jatan mutila adar-joka nenbilkola eta. Adarra nik? Hare gitxiago be! Zinki eta minki nik. Niretzat gauzeari «joya» edo «bitxi» deitzea bardintsua zala esan neuntson, hiztegia gitxi gorabehera. Baina gauza hori, euskera bada, niretzat bitxirik ederrena zala, «no me comprenderás, pero...».

Neure kuadernora begiratu eban orduan berak, «yo creía que el vasco no servía para escribir» aitortu eustan begi ezbaikorrez begiratzen eustala. Neure andregaiari egin barri gutuna erakutsi neuntsan, kuaderno beronetik berezi orri bat. Neska bateri esanak ez zirela auzitegirako gei esan neuntson. Benetan neska bateri egina zala konturatu zan, «con que se llama Anemiren —aintzat hartu nindun—, bonito nombre» eritxi eutson.

Berak andregairik ez eukala esan eustan, nahiz eta bai neskalgunik. Neuk be gutuna andregaiari zelan igorri ez neunkala esan neuntsan, hurrengo domekako etxe-koen ikusaldia uztiatu ezik. Zergaitik? Eta gutuna euskeraz egoelako. Espetxe haretan ez zala euskerazko gutunik onartzen, ez kanpotik barrurako eta ez barrutik kanporako. «Como no entienden...» berak, «no les sirve» nik. «Pero sirve ¿no?» gutuna erakutsi eta aurrez aur begiratu neuntson. Misterioaren aurrean lez isilik gelditu zan.

Jakina, zuk euskeraz nahi dozuna esan zeinkio andregaiari, begiraleak ulertuko ez dauen ziurtasunean. Orduan begiraleak, edo haren agintariak, ulertzen ez dauen euskera eragotsi egiten dautsue, sekuestratu egiten dautsue, baina zeuk, eztalakoan, eskupetik eta sare artetik, zigarroa bailitzan, jaregitea lortzen dozu eta orduan sekuestraturik egoan bitxia berreskuratu egiten dozu. «¿Hay o no, recuperación de joyas?» «Intento al menos» amore egin eustan.



Beste euskalkiderik ezean eta zeuk agindu lana egin behar ez banendu, berari euskera erakutsi eta, ez dinok ezerezetik, baina «vasco» honengandik benetako euskalduna argitzeko aukerea izango nenduke. Eta, esateko neunkatsuna, atzo patiorako orduan, hara bidean ginoazezela, nik neure euskalkidea bilatzearren-edo beste barik, neure euskaltasuna adieraztearren, baina neu konturatu barik, «Bili-bili, bonbolo» abesten hasi nintxatzun. Umorre onez nengon nonbait eta idazteko emon daustazun zeregin honek espetxe akordua bera kendu egin eustan. Abesten hasi eta «astoak soindu, idiak dantzan, ahuntzak danbolina jo» ahapaldia amaitzeraino heldu nintzan, harik eta zaindariatario bat hurreratu eta isilazo nindun arte. «¿Qué decía usted en ese canto?» esan eta bazterrerera deitu nindun; «¿no sabía que aquí no se puede cantar?» inostan agirika bizian.

Zurtz gelditu nintzan berak sapatzetik nindaukala eta ez zan laketzen euskerakadak erderatu neuntsozaino. «Bien —berak susmokariago orduan— y ¿quién es ese cabrito, ese burro, ese buey y esa cabra?» Ipuin kantua zala nik, ez eukala ezelako konotazinorik eta hareago nire espetxe lagunak euskerarik ez ekielarik.

Halan da be ez ziran gozatu bere purrustada eta bekainak ez eta beratu bere zemak aske itxi nindunean. Aske? Aske esan beharko espetxean bertan nagola. Baina zaindari horrek baleki deskuidoan zeuk emoniko kuaderno honetan zer dinodan, batez be zelan dinodan, erdera egitera behartuko ninduke, hau da, beste sare bat hedatuko leuke neure inguru espetxe honetan, neure soina-ren jabe ezeze, gogoaren jaun izatearren. Neure soina baino neure gogoia jararriatuago ete dan nago. Ze gaiztake-ria egin dau nire euskerak, gure euskerak? Hemen isilik eta «callando» egotea baino ez dago. Oi, euskera nire

konplizea, zeu iguindu eta salatu zagizan begira egongo dira zure itxurgatzaileak, baina nik, abestu eta mintzatu ezin bazaitut be, idatzi eta gogobildu eingo zaitut, espetxean be, amak ez lez, lagun egiten daustazun, ama euskera.

Horrela hobeto ulertzen dodaz amorde erderaren be-kaitzak.

—«¿No hubo entonces entre vosotros un ajuste de cuentas, por cuanto la moto que, decías pertenecer a otro, se adjudicaba a D. Francisco Goiria, alguacil de pueblo?»  
—Begiak zorrozten eustazan komisari zuhurak.

Ni burua bero eta urdaila huts nengon. Egun osoan ezer jan barik nengon, soinkeraz moteldu, baina gogoz argi. Ezetz erantzun neuntsan. Beste azalpenen bat be emon neinkion. Esate baterako, nire salatzaileek ipuin erreza asmatu ebela ni inoren erruen akertzat bilatzeko. Baina ni isilik. Idazlariak behar gitxiago, espedientea laburrago.

—«Bueno —burua mogidu eban komisari arraiak irriño eta guzti—, no me va a decir que el alguacil de pueblo os cae bien».

Neuk be irrialako batez ezpainak okertu neuntsozan komisari argiari. Ze beste erantzunik merezi leiken halako galdera edo salapenak? Ez jakun, egia esan, eta ez jatan begi-begikoa gure agosila, baina eguno be ez neban pentsako gure Katxinek halako garrantzirik euki leikenik neure bizitzan, bere pupuakaitik neuk jasaterainokoa behintzat.

Ez dot eguno mokokarik euki Katxin agosilagaz; nire lagunetarariko batzuk bai: batean «gora Euzkadi» ohiukatzen harrapau ebezela eta bestean euretariko batek Italia-



ko edo Mexikoko ikurrinaren koloreak erabizalako garrikoan. Haxe bat etorri beharra zehatz debekatuta dagoan beste batekin! Alkatearen belarrietara heldu zaneke, hogetabost mila pezetaren multea etorri jakon Gobernutik. Zintzo-zintzo ordaindu beharra euki eban.

Multatuen hurrengoa geure Abadea izan zan. Urigue-nera etorri barritzat eukan oraindino «horrek ez daki gure Alkatea nor dan» esan ebanak. Egunkarian urten ebana-rrren, guk Eleizondoko tabernariagandik jakin gendun, iluntzean.

—Uribetik etorri eta ez dakizue? —arpegira jaurti euskun andreak—. Ezaguna da hemen barriak zuen motorrak baino arinago dabizela.

—Zelako multea baina? —irrikatzen gintzazan gu.

—Nik dakit ba zenbatekoa? Hogetabost milakoa edo...

—Baina zergaitik? —Andreak atara euskun ardaoa be garrastu egiten jakun estarran.

—Plazako iturria bedeinkatu ez ebalako hurrean.

—Zuen trabenea bedeinkatu eban, Andresa, D. Simonek? —ohartu eutson gutariko batek—. Ez? Eta multarik bota zeuntsen D. Simoneri?

—Guk ala? —Lauorritu zan Andresa.

—Esan nenduan nik, txo. —Ukondoan jo nindun lagunetariko batek—, ur horrek ixurria ekarriko euskula oraindino. Hako txarrien hondakina, bua!

—Hago isilik! Ba dakik Abadeak esku biekin bedeinkatzen jokala iturria-eta —erantzun neuntson—. Bestelakoa zolan jaso zana eta hori ez dot Abadeari multarik ipinteko nahiko arrazoi. Ur joana dok hori...

—Ur joana baina iturria hor diagok, bai eta multea

be —Bekainez begiratu nindun mutil lagunak, hegal batera okertu eban samea—. Horregaz ez diagok zer eginik...

—Gogoratu hadi neuri be zer egin jeustan —Zigorak gomutau eustazan harako multatuak.

—Tira, hirean politika asmoren bat agertzen zoon, baina hemen...

—Politika asmo hori nork egiztatu behar jok gero?

Eztabaidea beroenean gendula, ukondoaz norbaitek txistadea egin eustan «kontuz hor, txo» inostala.

Tabernako ateetan zan Katxin agosila, gure irakinei tapea ipintearren-edo bialdua. Guk hala susmo izan gendun behintzat. Geure gorabeherak ahaztu edo ahaztutzat emotearren, bera txuliatzen ekin geuntson.

—Ola, Katxin; ez da izango erretiratzeko ordua dagoeneko? Oraintxe ginoazen.

—Heu be egarri e? —Katxin barraren bestaldean geuri begira kokatzen ikusi gendun.

—Heuk be kintzenie kobratuko hendun-eta...

—Nik astero kobaratzen joat, txo —ezbaigabe erantzun eutson Katxinek, erdeinuz aldendu euskun begiradea—. Eta ez zuek legez. Zer uste dok ba?

—Esku bitara ihardungo dok eta...

—Zer esan gura dok horregaz, txotxo? —Gorbiztu egin zan Katxin, larregikeriak edozelan be auzitara eroateko gertu bera.

—Ezer be ez, Katxin. —Bake antzean handik mogidu egin gintzazan—. Edanak ez dakikala gatzik eta hareago esanak.

—Kontuz ba zertan zabizen...

Azken oharra Katxinena. Bera plazan zanean, gu tabernan; bera tabernan, gu plazan. Gure Eleizalde ingu-

ruak ez dira handiak, baina bakea egin ahal danean, bakea bilatzen dogu, baina bai gauzak aztertzen be ahalegintzen.

—Entzun dozue zer esan dauen horrek? Astero kobratzen dauela.

—Eta oraingoan barriz, Abadearen multea dala eta, extraordinarioa kobrauko joan.

Plazatik zehar Abadetxera begira gelditu gintzazan. Ez egon barruan argirik. Abadea etxean ez zala seinale. Hala be Abadearen alde zeozer egin beharrez aurkitzen gintzazan. Zer egin geinken guk. Neu, geu, danok gintzazan lekuko (Abadeak berak esan euskunetik genkian gainera) berak ez ebalá bedeinpenik ukatu.

Hori dala eta, herriaren aurrean zeozelan egia aldarrikatzeko kopletan ekin geuntson iluntze berean plazako iturriaren ondoan:

«Plazako iturritxu,  
ezkonbarriari,  
erdaldun senargeia  
dautsoe ekarri.

Ezkon-bedeinkatzeko  
aitabitxi larri,  
Abadea inondik  
ez dalako agiri».

Hantxe ekin geuntson burutik ahorakoak abesten harik eta osterá be, Katxin geure atzetik ikusi gendun arte.

Hurrengo goizean hobeto jakin gendun multearen barri. Antza ez zan izan plazako iturria ez bedeinkatzearren, baina bezperako egunkaria irakurri ahal izan gendu-

nean, han agertzen zan hako iturriaren ziria be: «...Juanmari Arrien, párroco de Uriguen, multado con veinticinco mil pesetas por verter ideas de contenido político en el púlpito. Este mismo sacerdote, semanas antes se había negado a la bendición de una fuente pública...».

Hara ba, multea ezarri ezeze, arrazoiak egunkarira aterateko ausardia euken «medios oficiales», barriaren iturburu hareek. Eta nik eta mezatarara joan ohi diran herriko beste askok «baina nondik, noiz eta zer gauza esan dauelata gero» itauntzen gendun geure artetan halako salapena eta halako zigorra jakitean. Egunkarian esakun biribiletara etorren, etorri be, «desde el púlpito» eta guzti, Uriguengo eleizan honez gero pulpitorik ez dagoela. Edo salapena egin ebenek ez ete ziran Urigueneko mezatarara joaten? Eta joatekotan, ez ete ziran konturatu, D. Simonen garaietan, eleizea erabarritu zanean, arkitetoaren aholkuz, pulpitoa, eraskin itxusia lez, baztertu egin zala? Ez ete ekien pulpito orde, altabozak ipini zirala eta orain Abadeak, pulpitorik barik, mikrofonotik berba egiten deusola herriari?

Argi egon harako esakun biribila eratu ebanak Urigueneko sakristian, eleizatik igaro barik, sartu gura ebala, sakristiara sartzeko eleizako atea baino besterik ez dagoela.

Bai, ba dakit idazte forma bat daitekela harako esakun hori. Halan eta guzti, salapena egiten danean, ez ete da zehaztasun gehiago agertu behar? Noiz eta zer bereberki? Edo herriari ardura eutsona multea bakarrik ete zan eta ez Abadeak esan eikena? Zilegi ete da dana, «según medios oficiales» esanez gero?

Eta hurrunera barik, neuri itauntzen eusteen Uribe-ko idazkaritza lagunak Urigueneko Abadearen sermoiari buruz.

—Politikeaz ez behintzat, nik dakidanik. Eta ni do-

mekero joaten naz mezarata hutsik egin barik —erantzun neuntsen—. Edo eurari itaundu behar politikea zer dan, salapena egin dauenei.

Hortxe egoken, behar bada, politikea zer dan jakitea: sermolaria pastorgintza arloa itzi eta noiz politikarenean sartzen dan jakitea. Edo nahiko ete da ardiak ulea hesiko alanbrean iztea, artzaina alboko larre politikatsuan sartu dala ziurtatzeko? Nor da gainera salto miragarri hori noiz egiten dan adierazteko mutila?

Iluntze berean dozena bat inguru neska eta mutil Gaztedi-Klubean alkartu gintzazan. Abadea ez egon etxean. Deklarazioak egitera joan zala esan euskun sakristaniak, poliziak hatarako etorri jakozala eta.

—Hori da horren politikea —esan gendun—: lehenengo multea eta gero deklarazioak.

Danok konturatzen gintzazan salatzaileak guzurretan ebizela eta Abadea bildurrazoteko akiakuluen bila.

—Kostako jake —eragoion nesketariko batek.

—Guk ba dakigu Abadeak zer esan eban, edo zer esan ez eban, baina papelok —«Medios oficiales» inoen harako paper zatia erakutsi neuntsen—, guzurra esaten jarraiko daue herriaren aurrean, herriak ez dauka papelona baino beste informazionarik eta...

—Zer egin geinke guk? —begiratu ninduen batzuk.

—Geuk agertu behar dautsogu herriari egia, geure firmekin baieztua —ausartu nintzan esaten.

—Ni prest nago.

—Bai eta ni be —aurreratu ziran neska bi.

Mutilek astiroago aztertu gurako leukeen gauzea.

—Hori bai, baino pentsau ete dozue firmokin Abadeari mesede baino kalte gehiego egin geinkionik?

Kalte dinok? Kaltea eginda diagok —ni neurean nengon—. Guzurra aidean diabilk eta hori dok Abadeari kalte egiten jotsaana. Guk hori apurtu egin behar joagu.

—Presta paperok eta behingoan firmauko dogu —inon neskak.

—Zuek, neskok, arin gura dozuez egin gauzak, nonbait ziur zagoze poliziek ez direla ausartuko zuen zapekin.

—Bildur hazela esan egik orduan.

—Lehen be multatua niagon bai eta ez don gurako ezeren bildurik be ez eukiterik, ez don?

—Orain ez hoa bakarrik, asko gozak, danok batera joango gozak Urigueneko neska eta mutilak.

Neskak ez ebela etsiten ikustean, mutilek be amore emon eben.

Gaztedi-Klubeko danok firmatu gendunean, etxerik etxe firma bila hasi gintzazan. Orduan konturatu gintzazan heldu eta ule urdindu hareen eta gure artean gizaldi bat igaroa zala, guk gazteok uste baino larriagoa izan zala hareek, erregimena zala-ta, euken bizi esperientzia. Ez gendun firmarik lortzen, banaka bat izan ezik.

—Zer firmatu behar dala? —zoli baino be zoliago erantzuten euskuen, etxeke eta etxaguntzako hesiak aurrean ipinten euskuezela.

Papelaren buruan idatzi genduna irakurten geuntson bakoitzari: «Hemen firmatzen dogunok, domekero herriko mezatara joaten gara eta haxe aitortzen dogu: Juan Mari Arrien gure parrokoak ez dauela mezatan politika barbarik egiten. Eta holako salapenagaitik egin jakozan okerrak zuzentzeko, geure izena emoten dogu». Jarraian gazteon firmak etozen.

—Zuek jakingo dozue zer egiten dozuen —erantzun euskun batak.

—Hobe izenak barik, Abadearen multea ordainduteko diru-batzen hasten bazaree— ohar egin euskun besteak.

—Neu be horretarako apuntatzen naz —inoan harakoak—, ez firmarik emoteko.

—Txo, nik hire sasoian hartu nioazan hartzekoak bai eta itzi naik bakean.

Hau be entzun beharra izan neban. Beraz, gure herriari gu baino zaharrago batzuk, aurretiz zentzaturata egozan non-bait hartzekoak hartu eta gero. Benetan guk, Uriguenako gazteak, ez genkiala, ez dinok herriaren Aurre-Kondaira, baina ez eta geure gurasoen sasoiko historia be. Hartzekoak hartu ebazan harek, multaren zatia ordaintzeko eta borondaterik onena, baina bildur zan norbere izenaren arrastorik paperean izteko. Zeozer garratzen bategaitik izango zan, baina hala eta be geure asmoa aurrera aterateko arrazoi bat gehiago guretzat.

Ziur beralako askori gudea eta gudearen osteko zigorra eta gosea etorri izan jakela gainera, guri, gazteoi ostera, ekonomia gozatuaren bitsa, kaleak emoten euskun aloguraz aitaren soloan aitzurkada bat emotetik be alden-du egiten gintzazan eta. Zilegi ete jakun geure sustraiak ahazturik, burruka bateren ondoko kimuak gintzazala ez konturatzeko?

—Aurrera, mutilak —batek bakarrik oldartu ginduzan—. Hori zeuon arazoa dozue.

Abadeagaz egon gintzazan azkenik. Geure firmen papera erakutsi geuntson. Ez ziran asko, baina Urigueneko gaztedi guztia han egon Alkatearen alabearena eurretan. Ez gendun baztertu gura izan geure asmoetatik. Ba genkian hainbesteko isila gordeko euskula, asmoa heldu eiteino bereberki.

Abadeak benetan gogo-unkitu, eskerrak emon eus-  
kuzan.

—Egia da eskua lotuta eroan zaituela deklarazioak  
hartzera? —itaundu geuntson.

Itzelezko golpea izan zan guretzat, herri guztientzat,  
Abadea atxilotu eroatea. Noiz ikusi da Abadea esku-lotu  
polizien artean eroatea? Orain gauza arrunta da kontuizu,  
baina gurean lehenengoz jazio zanez, eleizako teilatua me-  
zatan gagozela, behera etortea lez izan zan. Gendeak ez  
eukan hitzik ahoan begi lauorrituak sentitzen ebena adie-  
razteko. Abadea ikutu ezina zan arteetan.

—Eskulotze hori neure kapritxoia izan da —irribarre  
egin euskun Abadeak—. Biurria deritxazue? Ba, begira:  
eurak onean eroan gura izan ninduen, baina neuk be nue-  
re eskubideak neunkazan eta gotzainaren baimen-agiria  
eskatu neuntsen. Ba dakizue, ezin gakeizela preso hartu,  
Eleizako geure nagusien baimen barik.

Zera inosten: Deklarazio batzuk egitearren bakarrik  
zala, behingoan libre itziko ninduela, eurekaz joan behar  
nebala. Ni joan? Ez gotzainaren agiririk erakusten ez  
baeusten behenipehin. Hareek ez ekarren gotzainaren agi-  
ririk. Halan da be joan egin behar nebala. Eroango no-  
zue, baina ez neure borondatez nik; ez nintzela mogiduko,  
eskulotzen ez ba ninduen. Orduan eskulotu egin ninduen  
eta horrela majo...

Abadearen ausardiak ezeze umoreak harritu egin gin-  
duzan, geu be zeozelako ekintzara bultzatzen ginduzala.  
Ez gendun pentsatzen orduantxe legeak babesten dauezen  
abadeak be errespetatzen ez badauez, zer ez leuken egingo  
gugaz edo holakorik.

—Eroan ninduen eta «declara usted que se sobrepasó  
en críticas contra el gobierno» itauntzen eustien eta nik:



«pregunte usted a los que me han oído». Zintak eukeezela inosten neu bildurtzearren. Baina zeren zintak (nik neure artean) hemen gure beste auzokoon disko urratuak edo izan ezik? Eta zintarik eukitekotan be zer ulertuko hareek nire euskeratik...?

—Eta multea beste barik?

—Zuek uste dozue nire sermoiak hogetabost milagino pezeta balio dauzela? Ez neban uste izango.

## 6

Basauriko espetxean, agorrak 9, 1974an, barikuz.

Atzo, eguenez, ezin jarraitu izan nendun egunkariaren abiada, ahaleginak eginarren. Hagaitik atzinduta ikusiko dozuz; hasi eta itzi izan behar nebazan atzoko fetxa eta hasimasiak.

Ohetik jagi eta bestetan lez, ohe buruan jesarri eta kuadernoa belaun gainean kokatu nebanean, pisuarren buruak dendua galduazoten eustan eta idatzi beharrekoen haria asmatu gura neunkela, gaueko amesen itzalak hartzen nindun eta orduan, nere buruko ahuleria larriagotzen zala, hainbat eta zauliago mugitzen ziran nire inguru nire salatariak. Amesetan ala benetan zan?

Hara erdian hartzen ninduenak egisten salapena, neure eta euren konplexuak hobeto aztertu daizuzan, behar bada.

Auzian gengozan eta eurak, nire salatzaileak, (ez neunkizuz esango euren arpegikeraren aztarren handirik, baina euren ahoak erderaz eragoioen, euskaldunak zirela edo nik euskalduntzat jotzen nebazala) Gaztedi-klub gure batzartegiaren izena aurkezten eben nire aurkako pruebatzat. Baina zelatan azaldu be! Abadetxean plazara adi dagozan leihoetako kristaletan, goitik behera hiru erreskadetan, spray zuritan idatzirik genduzan «GA-Z /TE-DI /KL-UB» hizkiak, spray zuritan barik, kartulinean ebakiak agertzen ebe-

zan. Ez kartulina gorrian edo zurian, hiru margotako kartulinetan baino, zerrenda bakoitzeko kolore bat: gorria, zuria eta orlegia. Itzelezko salapena! Bera ei zan nire asmo gaiztoen aurkako nahiko argigarri.

Egia da kartulina hareek neuk ebakiak zirela, kristalean erantziki eta inguruan spray zuria ziprztinduaz, hizkiak utsean agertu eitezen. Eta halan idatzirik egon ziran Sanjuantxu gauean, nire salatzaileen inguru dabilzanetarikoa kaletar batzuk nire ustez, Abadetxeko beheko leihoen kristalak apurtu ebezen arte.

Kartulina ebakietan kolore jokoan asmo biurririk egon zanantz beste kontua da. Ni neuretara aldendu nintzan, badaezpadan be halako jokuetatik, alperriko eupadaz eskuartean generabilen kultur-lana pikutara ez jaurtitearren. Zer gurago leukeen gure lehiakariak geu halakoetara lerratzea baino!

Amesak ames, baleike kartulina hareek, artean erre-kisatu ez badauez, Abadetxeko arasan gordeta egotea. Spraya barriztu behar zanerako, gorde nebazan eta, amesak ames dinotsudan bezala, ez dakiguzala etorri orain hizki txatalokaz gure Gaztedi-Kluba ez dakit nongo kuartel burrukari salatzen-edo... Ez eben ziur beste armarik idoroko Abadetxeko azpi haretan. Txistua eta tanbolina, dizka-soinu barria eta dizkoak laster gorde genduzan toki ziurragoan gau-erasotzailen edo lapurren seta ikusi gendunean. Amesetan be ez ete naue itziko baketan?

Atzo goizean behenipehin, ohe buruan jesarrita, kontaktizunen haria biltzen alperrik niharduala, ondo uztiatu eben eurak nire isilunea neu salatzekeo...

Gozaltzeko ordua zala eta astindu egin nindun gela lagunak, «qué te pasa» inostan, «nada, ya se me pasará»

nik. Aldomaldoka mogidu nintzan bere ondotik. Gozaldunendun eta mahaitik jagi nintzaneko, okak etorri jatazan eta jasan ezineko larria. Bertan itzuli neban gozaldua dana.

Goisotegira eroan ninduen, kalenturea aztatu. Aspirina bi manzanileaz hartu eta gaisotegian bertan etzateko agindu eustan gaisozainak. Eguerdira arte lo egingo nendun. Itzartu nintzaneko, burua gozatu sentidu neban eta kontakizunaren haria musika eta guzti etordan orduan gogotara:

«Ezkontideak baina,  
maite itxukeriz,  
bebingo baten ezkondu  
ziran zibiletik».

Sintoniarik ziurrena zan niretzat. Berak nindaroan ia egunetan galazota neunkan herriko plazara. Haxe zan gure burruka unea, izan be eta ez gaueko gaizkileen ilunpekoa.

«Hasarreak hartuta,  
aitabitxi bero,  
abadeari multa  
huts egin dautsolako.

Edo ta sermogintzan  
ez dagian hutsik,  
konpondu gura leuke  
Eleiza Udaletik».

Neuk kopiatu koplok estrepozu gabe errepikatzen eusteen kontakizuna.

—Halako musikaz gozatu eta gero, eguerdian zerbait hartzeko gei izan nintzan. Gaua gaisotegian igaro eta os-

tera be hemen naukazu, barikuz, espetxeko gela honetan, neure gela laguna baino zoliago, ohe buruan jesarrita, indar barritu eta neure salatzaileei erasoteko prest.

—«¿Qué querías demostrar exactamente entonces con el susto que le habéis propinado al pobre alguacil?». —Kontzientzia bortxatu gurarik ebilkidan komisari maltzurra.

Agosilaganako ginoan nauganako errukirik izan baleu, ondo gozalduazo ondoren egin eikidan galdeketa. Baina baraurik eta halako gaua igaro ondoren, ez nengon txantxetarako. Mux gelditu nintxakon. Berak nire isila, susmotan harturik, orduan eta ekinago:

—«¿Hacer acaso un pulso a la alcaldía del pueblo?». —Estultxoia egian komisariak, galdeketa eragozten etorkon gorroren bat estarritik jaurti gura baileuan.

—«No es ese nuestro estilo...» —erantzun bide neuntson.

—«¿Con qué tenéis un estilo?». —Barrez nasaitu ebazan ezpainak komisari arraiak—. «Eso sí que es una novedad».

Guk geure ihardunean jokera ezaguna gendula adierazi gura neuntson Komisari zuhurrak apuntatzeko inotson idazkariari. Adar jotea ta bat eritxi neuntson makinearen tiki-takari.

—«¿Qué estilo adoptarías para..., digo para desafiar a la alcaldía?» —eragoion komisari maltzurrak.

«Alcaldía» inon berak «Alcalde» esan eikela harego.

—«No se me ocurre...».

—«Eso, que no se le ocurre» —azpimarratu eban komisari zehatzak, idazkariari txistadea egiten eutsola.

Esan egin ete nendun gero holakorik? Uste dot komi-

sariaren amarruetatik alde egitearren bakarrik izan zala, bere aikomaikoetan parte ez hartzearren. Ha ez zala galdetzeko era adieraztearren. Eta halan da be, neure kontrako ziria lez jasoazo eutson idazkariari «no se me ocurre» harakoa.

Orduan luzaro ekin neuntson gure «estiloa» bake bi-dean zala adierazten; ez zala inori erasotekoa, kulturazkoa baino: herri abesti, herri dantzak, etabar. Bost axola eutson nire azalpenak. Komisari zuhurak, aingira lez, ihes egiten eban kulturazko arazo eta arrazoiketarik, bere urak harainokoak bakarrik bailitzazan. Kultura izeneko zerik ez egokion antza sumarioan nastetarik. Izan be, ze espediente osatu eiken herri kultura ardurak gaiztakeriatzat hartuez gero? Ez eta politika susmoak be, hesiak aurretiz hartuak bailegozan: honeri politika, harakoari indarkeria.

Komisari zehatza ez ebilen teorietan, bere betekizuna ez zan laketzen harik eta zezenari adarren batetik oratu harteino. Zezenaren orde, motoaren adarrak izanez gero, bardin, nire auzian jazo danez.

Ikus daigun ba zertan izan eiteken nire indarkeria.

Abadea politika salapenetik garbitzen eben paperak, firma eta guzti, kopiatan ugaritu eta geuk, gazteok, lan egiten gendun uneetan, Uriben eta geure herrian banatu genduzan. Azpitiko barrabaskerietan ez genbiltzala adieraztearren eta zer eskuturik be ez geunkala aditzen emotearren, Alkateari berari igorri geuntson ale bat eskura. Ez euskun ezer esan, baina jaurti eustan begiradea eta «heu e...?» zemalakoa nahiko purrustada izan zan. Ez nintxakon apaldu, gure papera danak onartu ebelako kallean eta baserrian. Lehengoz begiratu neuntson Alkateari, «geu, geuk» erantzun neuntson. Erdeinuz ezeze, gorrotoz begiratu eustala uste dot.

Handik laster jakin gendun zertan mogidu izan zan Katxin gure agosila etxerik etxe. Kontra firmen bila hain zuzen be. Baserritarrak geuri baino erantzun hoberik ez eutsoen emon eta Alkateak berak be onura bardina lortu eban udalzainen artean. Hareek be baserritar urten, ez gura konpromisoko firmarik. Zer egikeen Alkateak eta Sekretarioak? Euren firmako paperak zer balio eikeen auren salapenen lekuko?

Gure firmen zabalkundea gora-behera, ba genkian Abadeari egotsiko multek bere bidea jarraituko ebala, nahiz eta ez herriaren eritxiak. Hori dala eta, behingoan hasi gintzazan Abadearen multea ordaintzeko diru-eskean.

Emoteko orduan, firmatzekoan baino eskuzabalagoa aurkitu gendun gure gendea; gure ahalegina, izan be, euretariko batek baino gehiagok aurretik bultzatua zan.

Dirutzea ia biribildurik geunkala, gauzeari agiria emotearren, domekako mezatan eskabidea egitea erabagi gendun. Abadeari esan geuntson.

—Baina zertarako? Ez da dirurik beharko-eta! —Betikara betikoaz irritsu begiratzen euskun—. Uste dozue dirutza hori nik ordaintzekoa dala ala? Lehenago kartzelara! Ordaintzea eurari arrazoa emotea litzake. Zera arrazoa! Ez daukee horrela multatzeko eskubiderik!

Etkez-etxe baturiko dirua erakutsi geuntson.

—Ene bada! —Burua esku biekkin oratzerano asaldatu zan—. Zergaitik egin dozue holakorik?

Ehunekoak, bosteunekoak eta txikiagoak multsoan egozan. Haxe zan eleiztarren ezeze herritaren borondatea.

—Bihotzez eskertzen dautsuet, baina diru hori emoi-leekana doala neure eskerrik beroenagaz.

Domeka berean, Alkatea eta agosila be aurrean egozala, eskerrak emon eutsezan Abadeak bera zala-eta, diru

laguntza eskeini eben guztiei, baina diru beharrik ez egola adierazten emonaz.

Dirua itzultzen ginoazela, batek be ez euskun emonetik jaso gura izan, batzuk eleizarako eta beste batzuk Gaztedi-Klubean egin genduzan gastuetarako agintzen euskuela. Hareexek izan ziran, hain zuzen be, dizka-soinu barria eta altaboz pareta erosteko eralgi genduzan diruak.

Harrezkero gure Gaztedi-kluba soinuetsu nabarmentzen zan, maiz altabosak leihotik plazara begira ipinten genduzala. Udaletiko erdalakeriak hainbeste kutsatu eban plazeta euskalduntzea zan gure asmoa. Jakingo ete eben Udalean euskal soinu zoragarria sortzen eta saltzen zala harrezkero?

Geu gazteok be ez genkizan artean, eleiz kantuetatik aparte, erromerietan eta zaharrei entzuniko koplak batzuk baino. Euskal abesti zoragarriagorik ba egola konturatu gintzazan eta gure neskak ahotik erdal kantak baztertuz, euskerazkoak abesten hasi ziran.

Urigueneko gure euskal mogimentuak kaleraino arrakasta izan eban. Domeka arratsaldetan lehen baino gende gehiago igoten zan kaletik, Urigueneko Abadearen multea zala, plazako iturri barria zala eta. Han zurrutada bat egiten ekandu ziran askotxo. Untzurrunetarako bedeinkapen edo osabide berezia eukalakoa zabaldu zan. Adar jotea ala Gaztedi-klubekoen giroan sartzea ete zan? Bada guk geure txokotik euskal musikaz laguntzen geuntsen domeka arratsalde gehienetan, batek ezpazan besteak; batean txistua eta bestean kantua txirringatzen eutsela. Horrek eta kale-tar gazte batzuei Gaztedi-klubera egiten geuntsen gonbiteak Alkateari min eiten eutsola konturatu gintzazan.

Uriguenera igoten eban gende gehiena euskalduna zan eta itzel gustaten jaken plaza inguruan sortu gendun eus-



kal giroa. Beste hainbestekoa gurako leukeen guraso hareek euren umeentzat kale erdian.

Euskal dantzetarako be txistu soinu berezia lortu gendun. Ha abestekoa barik, dantzatekoa zan eta dantzatzen ikasi behar gendun, ze arraio. Eta bide batez, neu beti joten ihardun barik, hobeto arduratuko nintzan dantza araeuz. Uribeko neska eskolatu batek laguntzen eustan horretan, neska dantzak antolatzen batez be. Neskak polito moldatzen ziran, amaren sabeletik ikasiak bailetortzan. Mutilak ostera, euken mardoaz, euken lotsez, moldakaitzagoak ziran. Lotsea zerarena: nesken aurrean burua barrigarri erakustearena. Hareek ia Arku-dantza ikasia euken eta guri Ezpata-dantzea lantzeko hainbat falta jakun.

Argi egon neskak edo ordu gehiago sartuak, edo egunez ikasiak zirela, mutilok barriz gaueskolakoak. Auzaz nekatuago gentozan eguneko lanbidetik eta batzutan ardao batzuk gehigarri genkarzala soinean. Mutilon esku-oinak ganoraz iraulkatzea berea kosta zan. Iraulkatzea esan dot? Horra bada gure estiloa, komisari arraiak jakin daian. Ez zan izan gau batean ikasia harean.

Ez zan, esate baterako, Uribeko kalean egunatan jazo ziran gogo eta musikakoa. Hango bar batean lergailu batek eztanda egin eta zaurituren batzuk egon ei ziran. Egunkariak isildu ebenarren, dana jakin zan, zati bat beheinipehin: geuk geure begiekaz ikusi ahal izan genduna: bonbaturiko barra, inguruan eginiko pintaketak eta goizaldeko poliziak baino lehenago jaso ahal izan genduzan panfleto batzuk. «Presoak kalera», «Gora Euskadi askatuta» inoen oraindino irakurri eitekezan pintaketak eta iraultza asmoa erabilen kale gorrian ereindako paperak. Talde armatu ezagun bateren firmea euken.

Ekintza handirako eta, antza luzarorako, asmoa eukeen hareek. Gure asmoak behinagoak ziran, ba geunkan ze-

regin geure baserritxoan bertan, hagaitik guk kale beratan zabaldu genduzan paperak, esate baterako, geu bakoitzaren, neska eta mutilen firmaz etozen, urkolagunaren mesedetan egia aitortzen. Hala eta guzti harako panfleto edo iraultza agiriak bere zirrara egin euskuen, ez uste.

—Txo, ikusten dozue hemen txibatoei zer egiten diautsoen?

Eztabaida gendun geure artean.

—Txibatoa izan dalakotan egin dautsoe hori ala?

Guk zer genkian? Baina halan eta be egitzat hartzen genduzan halako salapenak, ondo mereziak eritxi be halako zigorrei.

—Eta zer geuk be geure txibatotxoari zentzaldia emonez gero?

Orduan agertu ziran geuk narruan jasaneko multak eta jasarpenak.

—Txibatoa gure Katxin? Zera be! —gitxietsi neuntson.

—Ez ba, geure atzetik diabilk beti...

—Ostaz dok mandaeuligino eta...

—Mandaeulia? Ba horixe! Zer egiten jakok mandaeuliari eure odola zurrupatzen diatorkanean.

—Gizajo bat dok eta...

—Zaplateakoa emon, ez dok?

—Ze erru euki behar jok horrek...

—Aparetan badok, harenak egin jok, ezpabe barriro daukak eure odolaren irrikaz.

—Errua horrek barik, horren ostetik dabizenak diaukeek; begitu eik beraz aurretiz nor zentzatu.

Hori guztia ta bi esan neinkion komisari zuhur eta susmakariari, gure «estiloaren» barri zehatzago emotearren,

baina aho biko ezpata litzaken neure eta beste mutilen kontra txintik esatea. Guk ezetsiriko asmoa gaiztoztat eta igesiko tentaldia pekatutzat egosi leikigun. Zirikatuak? Beraz, errudunak.

Asperkunde bideetan sartu barik be, ba geunkan zeregin, batez be gure Gaztedi-kluba idegi gendunetik. Gure gogo ta soinaientzat benetako eskola izan gendun. Ikasi genduzan euskal dantza hareek apostu larria izan ziran guretzat, mutilontzat, batez be.

—Ardaoak astundu egiten jok, txo —ganora apur batera dei egiten euskuen neskak gutariko bati baino gehiagori—; zelan jasoko dozak hainbeste erralde oin puntetan?

—Gure neskak artean ez eben edaten ardaorik. Dantza saioketetan behenipehin, eta hareago han neskak egozela, Gaztedi-Klubean ardaorik ez sartzea erabagi gendun. Tabernara barik, plazako iturriaren txorrotera osterak egiten ikasi gendun. Gero txandan egin beharrezko aurrekuak neurtzen ebazan bakoitzaren aurrerapen eta gaitasunak. Halako ariketerako batek baino gehiagok bosna kilo eta gehiago be arindu behar izan eben. Oin bata lurrean dala, bestea burua baino gorago jaso ahal izateko, koipe asko urtu behar ziran.

Neskak iturriarik ardao zuria ekarten euskuela, guk iturri madarikatu, baina bedeinkatuari, koplak joten geunsozan. Neskak ur freskoaz erantzuten euskuen:

«Plazako iturriko  
ardao zuriagaz  
ganoraz dantzateko  
zurrutak neurtuizak».

Hara ba, armatu egin ezarren, burrukarako «instruzino» berezia geunkan eta geure soinkera-gogakera aldatzea izan zan gure lehen iraultza eta harrezkero, beste bariarik, geu gintzazan herriko arma eta arima.

Euzkadiko gudatetik ez zan euskal dantzari ospatu Uriguenen, zaharrak inoenez, ez eta herriko jaietan be. Gazte batzuk ez ekien zer ziran be. Nik seminarioan ikusi eta ikasi nenduzan batzuk dantzatzen. Behin Uribeko jaietan Galdakoko Andre Mari taldea ikusia geunkan. Zoragarri egin jatazan neuri behintzat.

Gure dantza jokerea horren zabal agertzen badautsut, ez da bakarrik komisari arraiari gure «estiloa» goraintzearren bakarrik, Urigueneko agintaritzan politikea eta tikimikia norainokoa zan jakin daizun baino.

Guda aurretik gauza arruntak ei ziran edozein herri-txotan, trikitixaren pareko, beste aintxinagoko euskal dantzon erakusketa. Gero debekatuak izan ziran batzuk eta besteak. Txistu soinua bera be jasarritua izan ei zan toki askotan, nonbait halako soinuak halako dantzeaz inor irrikatu ez eian.

Haserako zigorraren amorruak baretu bide zirelarik-edo, herri hazitxoetan bereberki eta kulturaren izenean (kontuizu dantza taldeotariko batzuk European entzute-tsuak dira) eta herriko jaien askatasun giroan, euskal dantzen erakusketak ospatzen ziran.

Urigueneko Udalak ez eukan behar bada talde entzute-tsurik erakarri ahal izateko dirurik, baina ba egon talde bardingo eta merkeagorik gure herritik ez hurrun. Gure Alkateak halako gozorik emoten ez euskunez, herriko dantzak geuk antolatzea erabagi gendun. Lehen aipatu



dantzez gainera, «Sagar-dantza» neskontzat eta «Ikurrindantza» mutilentzat aukeratu genduzan. Banaka, taldeka, behin eta barrero saiatu, konpondu, hobetu. Izara bat erabilten gendun Ikurrin-dantzako saioetan, baina kontutan gendun ze ikurrin mota beharko zan benetako saiorako, plazako erakusketan.

Gure lorpenak azaldu eta Udalaren jai-programeari geure dantzaketa gehitzea baino ez zan izango. «Uriguene Taldea» izango gintzazan, albo baserrietatik deituko ginduezan, bada geurearen ginoko edozein plazatan aurkezteko ba gintzazan eta gu, diru laguntzaren bila baino hareago, barrutik urteten euskun herri aldeko burruka aurrera eroatearren, urtengo gendun.

Gure Alkate eta enparauen folklore zaletasunaren jakinean (bada baserri batzuetan —gurean behenipenin— moda barriak ez dira joaten kalekoen pare) Udalak jaietako programea agertu baino lehen, geure asmoak agertu gura izan geuntsozan Alkateari.

Lehenago baten, eta oraintsuago firmen paperagaz taldeak hautatu joan izan gintzazanok ginoazen ostera be. Harek, Alkateak, aparteko tirria eustala-ta, ni han agertzea ez zala konbeni esan neuntsenarren, «zu zoaz, eta kitu» bultzatu ninduen lagunek.

Udalera joan eta dantza asmoa aitatu baino ez geuntson egin Alkateri eta barra-barra irautsi euskun:

—Bai, bai, bai; ardura barik. Bai eta goizaldeko hirurak arte be, gura badozue —Paparra aztatzen eban Alkateak bete-bete—. Horretan neuk agintzen dot hemen eta ez Abadeak. Hareek denporak joan ziran; zuek trunkil...

Guk, ez trunkil eta ez larri, berbetan itzi geuntson, geure proposamena azaldu eta berak ulertu orduko, horren



amoretzu aurkitzen gendulako. Gureak ulertu ordukoxe izango ziran kontuak.

Nesketariko bata barre purrustaka hasi zan. Danok be, lehenago D. Simon zanagaz, gau erretiroa zala-ta. Alkateak eta biak izaniko enbidoak gogoratu genduzan. Hareri amoreman eikion, baina beste abade barri honeri apurrenik lagatzeko be ez egon antza. Bai ostera guk haregazkoak apurtzen laguntzeko.

—Zeri dagitsazue barre? —Pikaro barreirria erakutzi euskun Alkateak—. Ez ete zagoze konforme?

Horretan behintzat gazte gendeak bere alde urtengo gendulakoa eukan, baina herriko abotsa entzungor egiteko daukan ohitureak erratuazo eban ostera be.

—Gu baina... iluntzeko berbeneari buruz barik, geuk, gazteok, antolatu doguzan herri dantzaz berbetan etorri gara.

—Ze dantza dinostazue? —Bekaina tximurtu eban Alkateak.

—Egunez eta herriaren aurrean, beste herri askotako jaietan ohi danez, dantzatzekoak dira.

—Ez dautsuet ulertzen —Alkatearen bekokian arteka tximurrak agertzen ziran—. Ea argiago berba egiten dautsuzuen!

—Uriben bertan, Saninazioetan dantzaten diren Ezpata-dantza, Sagar-dantza, Arku-dantza, Ikurrin-dantza eta...

—Ikurrin-dantza esan dok? —Muker begiratu nindun Alkateak—. Eta zelakoa dozue dantza hori?

Gauzea ipi-apan azaltzekoa be ez zan eta, Gaztedi-Klubeko saioketa batera gonbidatu gendun.

—Abadetxeko kakazulo horretara? —asaldatu zan Alkatea bere jauntasunari beharko leutson begiramenik ga-

be—. Zatoze zeuok bertora, berton daukazue toki hobetik-eta.

Alkatearen erabagia agertu geuntsen lagunei. Geure klubeari eutson eritxia agertu geuntsenean, haginak erakutsi, ukabilak jaso eta guzti egin eben.

—Kakazuloa beraz, geuk geure eskuz konpondu dogun Gaztedi-Kluba? Toki ederragorik itzi eikigun berea be ez dan Udaletxean.

Ez zan Alkatearen aurrean gogortzeko unea eta berak agindu ordurako han gengoan geure makila eta izara-ikurrinagaz, «ea bakezkotzat hartzen dauen» ginoen geure artean. Gure asmoa ostera jaialdian marialaben oihal urdinagaz dantzatzea zan. Oraindino konpondu gabe eta Abadeari esan barik geunkan. Nesken oneritsia bakarrik.

Izara zuria makilaren puntan eta neu txistulari, Udaletxera igon gendun. Itxaroten ez gendun gonbidadua aurkitu gendun Alkategaz erdera berbetan: Sekretarioa. «A ver pues...» esan euskun beste barik. Dantzarako Udal azpiak zabalago eta egokiagoak zirela esan geuntson Alkateari. «A ver pues...» berak.

Behera jatxi gintzazan; zaku eta upel batzuk bazterreratu eta tokia egin gendun. Txistu soinura desfile martxa hasi gendun ikurrinduna aurretik zala. Nik begi bategaz dantzarien abiada eta besteagaz begirale bien arpegiunea zaintzen nebazan. Sekretarioa irribarre isilean ohartu nebana. Makilakaitik ete? Izara ikurrin barregarria zala-ta? Harakoan izan ezik, ez dot beste inoiz ikusi gure Sekretarioaren irribarrerik.

Ikurrinaren gurketa, ikurrina dantzarien buruen gaindik irradan biraka hasi zanean, begirale biak begi-belarri



egozan harriturik. Uste dot zoragarria ezeze bildurgarria eritzi eutsoela, dantzearen berezko liluraren.

—Ederto, mutilek —Burua baikor mogidu eban Alkateak eta Sekretarioak be lehengo barreirriari eusten eutson ezpainetan—. Bakar-bakarrik... —Sorbaldak bilinbalatu ebazan Alkateak—, bandera hori menzelegia dozuela horretarako...

—Ez, baina hau ez da jaietan eta herriaren aurrean erabiliko doguna —aurreratu nintxakon.

—Neuk zuzenduko dautsuet hobea...

—Ez baina, guk Sortzez Garbiaren banderea —«Banderea» esan neuntsan, ez «oihala» edo gitxiago «ikurri-na»—, lehenago neskak prozezinora erooten ohi ebena erabiltekotan gagoz.

—Eleizakoa hatan be? Bai zera! —Zilboterainoko purrustadea egin eban Alkateak Sekretarioari begira, biak alkar hartuta bailegozan—. Eleizakorik ez dozue nastau behar dantzetan. Holako barrabaskeriak erakusten daustuez oraingo abadeak?

Geure burutazinoa zala erakutsi geuntsan, Abadeak jakin be ez ekiela oraindino.

—Ez ba; ez bagenki, obispoaren kontra batzartu eta ibili zalako-ta hona bialdua izan dana...— albora begira purrustatu eban Alkateak.

Gure azalpenak gorabehera, Alkateak bere aurreritxietan jarraian. Egiaren argirako, jakin eizu gure Abadea lehengo gotzainaren garaian «gogorretarikoa» izan zala, baina gotzain barriagaz eleizaren eta herriaren asmoak bake-tsuago doazenetik, gogorren taldea sakabanatu eta abade bizitza arrunta daroala.

—Hara zegaz dantzatu behar dozuen —Alkateak Sekretarioak Udaleko arasetik zuzendu eban Espaniako banderea adierazten euskun.

Alkatea bandera gorri-oriagaz ikurrindunagana zuzendu zan. Gure ikurrinduna mogidu be ez zan egiten, ez eta berea eskutik lagatzen. Horretan geugaz bat eginda egon, Alkatea eta Sekretarioa egozen ginoan beheinipehin.

—Zer pasetan jatzue mutilak? —Ausart begiratu ginduzan Alkateak.

—Hara guk, egia esan, ez gendun erabili gura ezelako kolorerik geure dantzaldietan —azaltzera noakon.

Berbetan be ez eustan itzi; irri maltzurraz azpian hartzen nindun, ginduzan.

—Ez zeunsten esan ba herriko plazan dantzau gura zenduela? —Alkateak Espainiako banderea opa euskun ostera be—. Ba hara gure herriko plazako banderea bertan. Zein gura dozue ederragorik?

—Ez da horregaitik —Kapea itzuriten neuntson neuk be—, ez gendun politikarik nastau gura inor ez mintzarren.

—Herriko nor minduten da bandera hau ikusteagaitik? Ez da jaiero agertzen geure balkoian?

—Bai, eta ez bakarrik hatan be —Gogorrago ekin neuntson, bekarkara Sekretarioa zaintzen nebala—. Beste bandera baten ondoan aurkitzen da.

Sekretarioak galdua eukan ordurako lehengo irribarrera. Nonbait ez eban gogoko gure eztabaida, euskeragaitik eta euskeraz ginoenagaitik. Euskerarik ulertzen eban baina ez eban murik esaten, ez euskeraz eta ez erderaz. Azal zuri bardindu, azpitik erabilan lehia agertu gura ez, gende baketsuarena egin gura, burrukarako morroi bikaina Alkateagan eukan artean.

Tira-bira apurtzeko biderdira jo neban orduan neure kontura.

—Bueno, itzi daigun orduan zorioneko Ikurrin-dantza hau eta goazen bandera beharrik ez daukeen beste dantze-kin eta kitu...

—Laster esan dok kitu, txotxo —hasarrekor begiratu nindun Alkateak, mutil biurriei ohi jaken antzean—, baina ez dozue zeuenagaz urtengo. Hemen, gure plazan, bandera honexegaz —bandera gorri-oria sartu gura euskun aho-begietatik— edo ez dozue dantzarik egingo.

## 7

Basauriko espetxean, agorrak 10, 1974an, zapatuz.

Gaur nire espetxe laguna baretuago dago; ea noiz liburu edo aldizkari bat hartuta patxaraz irakurten hasten dan.

Bart larriago egon, argia kendu euskuenean eta ohean sartu gintzazanean. Zotinka ohartu nendun iluntasunean, ilunaren leizeak oratu izan baileuan. «Qué te pasa, hombre» adorea emon gura izan neuntson, «reza un poco y te pasará» esan neuntson. Esan baneuntson, esan neuntson, biraukada baten hasi jatan mutila, espetxeko egunak eta gauak astunegiak bailitxakozan. «A este paso, madre mía...» negar egian mutilak. Eso «está mejor» nik, bihar edo etzi, domekaz, dana konpondu eitekela. «Yo no creo en Dios» erantzun eustan berak Domekea aitatu neuntso-  
nean, muxaz dagoan umearen setaz, Jaungoikorik balego, ea zelan itzi eikean bera halako injustizian. Gizakien erruak Jaungoikoari egoztea ez zala bidezko ninotsan, Jaungoikoak ba ekiala bere errurik-eza, beraz Jaungoikoa ebala abogadurik onena, nik hala sentitzen nebala behenipehin. «¡Mentira! Y lo de la novia, otra mentira» eragoion berak aldikadaren amorruean. «Bueno, onak gagozak» ninon neure artean, baina ez neban etsi. «Oye», erantzun neuntson, Jaungoikoaren arpegia ziur ezingo neuntsola erakutsi, baina Anemirenena bai behenipehin. Espetxetik ur-

teterakoan ba ekiala nora etorri. Eta berak baino arinago urtetekotan, Anemiren eta biok erregaloekin etorko ginxakozala.

Isildu egin zan mutila, zotirik ez neuntson entzun gehiago, neu baino lehenago lotan zan.

Gaur goizean, bartko estabaidaren argigarri, nere oheburuaren pareko horman idatzirikoa erakutsi dautsat «Xto. ANEMIREN ETA NI» eta berak begi lauorritu «no serás de la ETA» purrustau daust. Horixe falta jatan neure espedienterako. «Crees que si fuera de la ETA, estaría yo aquí» haginak erakutsi dautsodaz. Gero esakuna erderatu. Hango euskerak nortasun hirukotxa baino ez ebala adierazten: «goiko pertsonai biak behekoaren babesle, gainetarakoa lotura zala; «¿enlace?». «Sí, unión». Alperrik zan. Zera erantzun daust: «es que vosotros los vascos tenéis cada galimatía». Buruari eragin eta alboa emon daust. Hara ba, «vasco» burua egiten ebana, norainoko lagun jatan.

Kuadernoa hartu eta neure txokoan jesarri naz. «Escribe, escribe...» dinost, bere diktadurara bainengon. Zer? Nori? Andregaiari? Jaungoikoari...? Ez dakit guzti honek zertan balio daikizun baina espetxekideok alkar ulertzeko daroagun ahaleginaren pruebatzat hartu zeinkez. «A ver —dinost espetxelagunak—, descíframe esto, si eres tan listo». Nonbait horma bazterreko tokirik eskutuenean mezuren bat aurkitu dau, hizki-mizkiak ikertzen dihardu. Horko apalean ba dauka libururik, klasikoren bat be bai, ba daukaz aldizkariak; «por qué no lees» dinotsak baketan itzi naian; «no es lo mismo» berak, bere aurretik han gelaratuak izan zirenen mezuak balore gehiago baileuan. Ez dot ukatzen euki likeenik. Neuk be danetarikoak aurkitu dodaz, baino ez dot daneri begira egoteko astirik.

«Escribe, escribe...» dinost oster a be. Ez daki berak niretzat idaztea neure defen sa antolatzea ezeze, ia askat a suna bera dala. Eskua paperaren gainetik baino desl aiago dabildala gogoa, lau horma honeek ni oratzeko ez direla. «Escribe, escribe...». Bai, idatzi beharko, nire kontra hitz ber-beraz idazkaria akulatuz, komisari zehatzak bildu dauzenak azterkatzeko.

—«¿Quiénes fuisten del Gaztedi-Klub (y si niegas que personalmente hayas intervenido en el caso) quienes de ellos intervinieron en el sabotaje de la moto Vespa del señor alguacil de Uriguen? —Arrano txikiaren begiez begiraten nindun inspektore arraiak.

—«Yo, desde luego, no y creo que tampoco ninguno de los que pertenecemos a Gaztedi-Klub —erantzun neuntson ez bai gabe.

Samea eskumarantz iduli eta irribarre biurriak egistan komisari zorrotzak.

—«¿Cómo puedes estar tan seguro de los demás como de ti mismo, estando como estáis (o pudiendo estar, digo yo) comprometidos en la misma causa?».

Ni isildu egin nintzan eta orduan nabariago entzuten neban idazkariaren makinotsa. Zer idatziko ete eban erdaldun harek? Baietza, ezetza ala ezbaia? Ostaz ikusten neuntson arpegia makinearen handiagaitik, baina bibote txikia eta arpegi luzenga eukan. Idatzi be, zelako arrandiz idatzi, neure belarrietan min egiterainokoa zan haren tikitaka. Ni isilik nengon, nire boligrafoa orain isilik lerratzen da paperean, nire espetxekidea be laket da, une gozoren bat aurkitu dau liburuetako irakurgaietan.

Ez dot zertan itxurgatu komisarion eginkizuna eta hareago euren arpegiunea. Eurak baino erru gehiago dau

kee ni halako erderakaz komisariarako bidean jarri nindunak edo ninduenak. Bardin izan eitekezan euskaldun edo erdaldun, baina batatzuk edo bestetzuk direla, biak be nahiko hurrundu dabilz Urigueneko errealidadetik. Urigueneko auzia erderatzen nahiko endredatu dira beheinipehin. Edo hizkuntzak edo pertsonaiak itzulikatu dauez, traduzidu, erderatu.

Hori dala eta, ez nintzake bat be harrituko komisari arraiak Urigueneko auziaren erdirik ez ulertzeaz. Ez ulertzeaz edo eta ulertu gura-ezaz, nik zer dakit? Urigueneko auzia zehatz-mehatz ulertu gura baleu, ausaz euskera ikasi eta herritarrei galdetu eikien, beti gure salatzaileen traduzianoari eta tzaizinoari jara egin barik. Zelan izan daitezkezen hemen epailari on euskera ikasi barik!

Hagaitik hainbat latzagoa deritxot zure betekikizunari, horren beste ezjakin eta badaezpadako arpegiri aurre egin behar dautsezulako. Hemen dozu lagungarri, Urigueneko neure euskera. Nire espedientearen egile eta erazoleek lege, hango jazorikoak erderatuko banenduz, eztalakoan be, errakuntzaren batera lerratuko nintzake, batean hizkuntzen ezin bateratzeaz eta bestean, bekaitzak edo gorrotoak sortzen dauezan ilun unean, itxumustuan, tupust eginda. Ez egokidan neure gogoetak eurak be erderatzerik, neure kontzientziari iruzur egin gabe. Horrela, zuk behenipehin, jatortasun osoan jakingo dozuz zertzelada guztiak eta haren iturburuak. Besteak, hau da, euskera ez dakienak, konbeni be ez da izango oraindino dana jakiterik, euren eskutiko indarkeriari biderik ez emotearren. Idatzitakoetan be, zeuk —eta inoren kaltetan ez dala— egokien begitantzen jatzuna erabilli zeinke eurei aditzen emoteko eran. Pertsonai askoren izenak ezkutau dautsudazanarren, prest nagoke zeuri ahoz-aho iragarteko, nik dinotsudanaren barri gehiago lekukoengandik jaso ahal daizun. Aske ete dagoz

dagoneko espediente honetatik? Besteren bat atera ete dautsoe dagoneko euretarikoren bati? Ba dakizu komisariaren ustea edo ziria «estando como estáis todos comprometidos...». Neu be eritxi bardinekoa naz, hasieratik esan dautsudanez: hasi Alkateagandik eta azken adinduganaino, ba dogula zerikusirik auzi honetan. Profetatzea egokionak erantzukizuna talde bateri bakarrik egotsi gura eutsola. Ausaz norbait Gaztedi-Klubari «kaka zulo» eristen eta hareago, geuri esan euskunez, «politikaren zulo horretatik laster urteten ez badozue, ikusiko dozue» esaten entzun baeban, ulergarriago egingo jakon.

—Ezin daikegu bandera horregaz egin Ikurrin-dantzarik —izan zan gazte guztion eritxia—. Geure ahaleginak eta artea euren politikaren serbitzan ipintea litzake.

Sortzez Garbiaren oihala gurako gendula esan geuntson Abadeari, ez arpegian lotsa apurrik gaberik. Ondo eritxi eutson gure asmoari.

—Herriko politika argitzen ez dan artean, horixe da egokiena gainera —esan eban Abadeak.

Beste herrietako taldeak horixe bera egiten eben: ikurrinik ezean, taldearen oihala asmatzen eben bake santuarren.

—Txo, Alkateak eleizako banderea plazako gauzetan ez dala nastau behar bajinok, berak zertan sartzen jok plazako banderea eleizan, herriko jaietan? —Hautsak astindu ebazan neskeetariko batek Abadea aurrean egola.

—Zelan da hori? —anduratu zan Abadea.

—Ez ete jok uste hori herri guztiari arpegian emotea



danik? Hantxe aurreko bankuan, egin be, bere gangarkeria danok ikusi daien.

—Zelan dinostazue? —Abadearen betikarak larritu egiten ziran unadaka—. Oraindino bandera eta guzti eleizara etorteko ohiturea daukala? Jo! Ez dago txarto be jakitea.

Abadeak besoak gurutzatu eta sorbaldak jasotzen eban. Beste txintik ez eban atera, baina nik igarri egin neuntson zerbait ba erabilela asmotan. Behar bada, berbak itzi eta ekintzetaroko sasoia zalakoa.

Geuk be horixe bera uste gendun jaietarako programa paraleloa egitean. Apostua gendun dantzari:

«Alkateak damosku  
dantzetako baimen,  
bere oihal kolorei  
men egitearren.

Zelan dantzauko baina  
Ikurrin-dantzea,  
zelan geurea saldu  
onartuz bestea?».

Lehen baino be leiatsuago ekin geuntson dantzaketari, Ikurrindantzeari batez be. Ezingo gendula herriko plazan dantzau? Eleizpean, herriko plazara begira dantzauko gendun orduan.

Marialaben ikurrina apur bat kolorgetxo egoan, baina neskak anagrama zaharraren azpian URIGUENE TALDEA urretan brodatu eben. Eder benetan gelditu zan.

Apostua beroagotu egiten jakun Udaleko jai programa eskuratu gendunean. Ia aurretiz susmo genduzan programa

maren bikoiztasunak ekar leikezan besakak. Ikustea baino ez egon. Eurentzat «Fiestas de San Juan» zirenak guretzak «Sanjuanak» ziran, ez gehiago baina ez eta be gixiagi.

Udaleko programean ikusten genduzan hutsuneak hareexek betetzen ahalegindu behar gintzazan. Festa goizeko hamaiketan, esate baterako, Meza nagusiaren aurretik, Uribeko Falanjearen Rondaillaren ekitaldia ipinten euskuela? Guk hamarretan biribilteka bat jo geinken, joko gendun eleizpetik Gaztedi-Kluberaino. Ondoren euskal diskak emonahalean ipiniko geure zokotik plazara adi. Erderari euskeraz erantzungo geuntson edozelan be.

Meza ostean «con la intervención de Txomin de Iturigorri» gure herritarren erderakadak kirtenkeriaren kategoriara jaso gura ebezela Udaleko balkoetik? Guk eleizpean geure dantzaldia emoteko uztiatuko gendun unea. Aurreratu egingo gintxakozan behenipehin. Bardin arratsaldeko lauretan ostera be Sección Femeninakoen kantaldia jasan beharko gendula? Ez gendun jasango geuk be artean zeozelako koplak txapelketa antolatu barik:

«Rondailarien fletxak  
ez gaitue ikutzen,  
libre guk geuretara  
dantza gura geunke».

Ez ba, guk ez gendun Lertxundi eta Zorioni deitzeko presupuestorik, geuk geuretara moldatu behako gendun ordurik ordu gauza barriren bat asmatzen. Iluntzeko «Gran Verbenari» eta hatarako Uribetik ekarri ohi eben kuarteto indartsuari aurre egitea izango jakun danetan gatzena.

Sanjuantxuz bardin.

—Aurten ez joek antolatu la «Subida a Uriguen» txirindulaketa.

—Eta zezenketarik?

—Hoba ez! Horrek Frankoren «Años Triunfales» diren giroan iraungo joek.

—Baina ez guretzako.

Ez da sinistekoa kontuizu zezenketaz dinotsudana. Alkatearen programak «Corrida de Toros» inoan. Barregarri? Harrezkero barregarri jakun:

«Alkateak zezenak  
banderaz dantzauko,  
haren odolestean  
nork jateko gero?».

Dantzatu, eratzi eta narrutu. Hirutik bata, hori bai. Eta bera herriaren gizenerako. Iluntzean, zezenkia afaldu ondoren, «Gran Verbena» osterara be. Guk zezenkia afaldu? Guk Uribeko kuartetoren paso dobletara dantzau?

«Atzerriko soinura  
dantzetan badozu,  
inoren esanera  
izan zaitetz jopu».

Harrezkero prest geunkan Sanjuantetako programea. Inori ezer esan barik beteko gendun, ahal bestean. Hanartean esanaz eta eskabidez eginiko burruketatik ba genkian ze onura lortzen gendun.

Sanjuanak loretsu, eguzkitsu heldu ziran. Ateburu eta balkoiak Doniene leizarrez edertuak. Gazteok geure kon-



tura loretu genduzan Abadetxea eta Gaztedi-Klubeko leihoak. Kanpaeak betiko alaitasun eta inozentziaz jo eben, Katxin agosilaren supanpekin nasteen. Ala eleizako kanpaeak eta Udaleko supanpak alkarren aurkako erronkak ete ziran?

Udaleko balkoian bandera ezagunak burua jasoten eben. Guk beuk be, oihal urdinskea geunkan eskutik, URIGUENE TALDEA urreztatua agirian eukala eta dantzari jantzi barriekin harro be harro ginoazen Gaztedi-Klubetik eleizarantz, biribilketa martxan. Mezatara etorri-barrri eta eleizpetik begira egozan atzo-agureak-eta betiko rondailaritzat-edo hartu ginduezan hasieran. Baina ez; hako txistu soinua ez behenipehin. Ze aldaketa zan beraz? Ez ete gengoza mila bederatzireun eta hirurogetamalauan? Ez ete zan Franco Epainiako Kaudiloa? Bai, halan zan eta hagaitik, eta Alkatearen aginduz, guk ezin geinken arrandi handirik jo geure herriko plazan, ez eta herriko jaietan be. Iturriari itzul bira egin eta eleizpean sartu gintzazan behingoan, Katxin agosila edo beste norbait abisoagaz etorri ez ekigun.

Eleizpean erkideak barreirri zabalez hartu ginduezan zahar eta helduek, baina kaixo edo zorion hitzik esaten inor be ez zan aurreratu.

Bigarren kanpaeadarako eleizan sartu gintzazan. Ez gendun topo egin gura Udalekoeekin meza aurretik. Hareekin topo egitea bandera bi aurrez aur ipintea legez izango litzaken: Udaleko gorri-horia eta gure urdina, ohiko marialabena, Alkateak berak aurretik itxurgatua.

Jantzita gengoza, korura igon gendun, dantzari ezeze, koru-kantari eta armonio jole be geu gintzazala.

Eleizea jendez beterik egon, udaltiarak bakarrik falta

ziran. Hirugarren kanpaekadea zan laster, udaltiarren ordua.

—Ba diatozan.

—Hor diatozak —txutxuputxuak geure artean.

Bandera gorri-horiduna aurretik zala, udaltiarrek formal etozen. Arpegi serioegiak halako jairago.

—Ez eiek martzarik jo; ez joek merezi-eta —inosten mutil lagunak.

—Zer ba? Txistua joko jautsiet ala?

Ohitura zan Udalekoak sartuala, armoniua joten hastea, eleizaren erditik euren bina-binakoa neurtuagoa izan eiten-edo.

Sekretarioa falta zan. Ez zan euskal meza zalea. Lehengo, ia hamar bat urte zirela, Don Simonen garaian, meza latinez emoten zanean, etorten ei zan. Euskerea baino hobeto ulertuko ebazan latinak haren.

Udaltiarrek ezkerretara eurentzako beti prest egon ohi ziran zizailu bietan jesarri ziran. Banderea altaretik hur, herriaren eta presbiterioaren artean dagoen barandan kokatu eben, herriak aldareari eginiko oparia-edo bailitzan. Sarrerako martxa jotea barik, geroago konpondu gendun koplaz eztenkaria mereziko eben:

«Eleizan politika  
salatuta gero,  
eleizan bertan sartu  
bandera polito».

Alderakoa gainean zan eta abadeak sartuala, sarrerako dei-abestia kantetan hasi gintzazan. Abadeak bost ziran.



«Markea» ginoan geure artean. Besteetan hiru izaten ziran. Bat Uribeko adizkidea izan behar eban, beste hirurak albo herrietako gonbidaduak. Danen erdiko geure Abadea. Bostak, herriari begira. Ez gendun ikusi hain bero altare ingurua.

Mezea ohi legez hasi zan. Damu-kanta eta otoitzaren ostean, abade gonbidaduak txandan egin ebezan irakar-gaiak eta ohi ez bezala, herriko Abadeak berak urten euskun sermolari. Ez gintzazan harritu, herriko jaiak lehenengo ospatzen ebazan herriagaz-eta. Ez zan asko luzatu bera haserako agurretan, batean bata eta bestean bestea aipatzen. «Entzule maiteok» izan ziran lehenengo berbak eta jarraian honakook esan gitxi gora behera: San Juan Bataiatzaileak txikien eta handikien aurrean zuzenbidea iragarten izan eban ausardia. Martiriak, zigorraren aurrean atzera egin barik, heriotzarainoko emon eban testigutza. Eleiza Amari be San Juanilako profetagitza egokiola sarritan, aldi honetan batez be, nahiz eta profetagitza handiki askoren amorragarria izan. Hagaitik maiz eztabidak sortzen zirela Eleizako eta Estaduko arduradunen artean. Gero aukeratu eban Ebangelio atala azaltzen ekin eutson. Ebangelioa egun-eguneko ez zanarren, arazoz bai behintzat eta Sanjuanen gogoetakoa gainera. «Altarrera oparia eskeintzerá zatozanean, anairen aurka zeozer daukazula konturatzen bazara —errepikatzen eban Abadeak— itzi eizu bertan oparia eta zoaz lehenengo zure anaiagazko bakeak egitera; gero etorri eta eskeini ahal izango dozu oparia»

Harrezkero ziurtzat neunkan Abadea zezenari adarretatik oratzera joala. «Geu be beste hainbeste egin beharrean gagoz —jarraian Abadeak— Aztertu daigun aurretiz beraz ea lagunurkoaren aurka zeozer ete daukagun. Gero Jesusen esana bete, ez gelditu itxurakerietan. Zer egin barik, zelan egin begiratu...».

Isilune txikerra, baina larria, sortu zan. Estul lehortxoak entzun ziran. Ez ziran Abadearenak. Albotik ukondoan joten nindunari jara emon barik, sermoiarri adi nengokon. Anaien arteko barkamen eta bake barik ez egokela Jaunaren gogoko mezarik inon Abadeak. Zer parkatu barriz, hurrunera joan gabe, oraintsu periodikuek salatzen ebena zala nahiko. «Ondo dakizue eleiza honetan politika egiten dana, hori dala eta multaren bat be izan da-ta... (Txutxuputxuak hor-hemen). Hemendik aurrera eleiza honetan politikea eta politika kutsua daukan edozer alden du eta kentzekotan gagoz. Ez deritxazue erabagi ona? Halatan bada, herriko Alkate jaun eta Udalekoei kartaz esanda daukatset hemendik aurrera bihotz hutsean eta bandera gabe eleizara etorteko. Izan be ez ete dogu nahiko bandera San Juan Bataiatzaileak eskuetan «Ecce Agnus Dei» eta guzti erakusten dauskuna? Zer gehiago behar dogu? Hortik gorakoak eleizan sobra dagoz. Beraz, Udalekoa Udelarako eta Eleizakoa Eleizarako».

Abadeak gartsu azpimarratu ebazan azken esaldiok. Banderaduna zutundu eta Alakateagana joaten ikusi gendun. Zeozer inotson belarrira Alkateari. Alkateak zirkinik be ez eban egin. Banderaduna bere tokira itzuli zan.

Jakitekoa litzake, litzakigu, Alkateak zer egin eban Abadearen gutunaz. Irakurri? Ziur euskeraz egoken. Arazo hau galdetu be ez dot egin gaurdaino. Irakurri eta aditzen emon, ala gorde? Ea erabagiak bere oldez ala alkartean hartzen ebazanetz jakitearren.

«Banasean esan dautsuedana —inon Abadeak— herriaren aurrean dinotsuet ostera be, esanari jaramonik egin gabe, Eleizeari ez dagokion bandera haizean sartu zare-lako hemen. Hara ba zer dinotsuedan. Mezako opari santua eragozten zatoze, anaiarteko eztabaida hau dogula-ta.»





Udaltiar batzuk albotik txistadak egitsoezan Alkateari, «atera daiela berak (banderea)» erantzun ei eutsen Alkateak halako musinaz. Abadea be ez egon epistolea luzatzekotan. Zutunduazo eta herri otoitzera gonbidatu ginduzan. Abadeak txandaka zuzendu eben otoitza: Eleizaren alde, pobre eta zapalduenganako laguntza eta askatasuna eskatzen. Herriko agintarien alde, nausikeria barik, herriaren gogoia kontuan harturik, zuzenbidea egin eien. Herriak orduan eta indartsuago kantuz erantzuten eutson otoitzari. Herriaren alde, jaiak inori irainik egin gabe, alkartasunean eta harrokeria gabeko nortasuna erakutzi az ospatu gengizan.

Eskari honen zehaztasunak gogoratzen dodaz ondoen, eurak ziralako ziran izan be, gazteok harakoan generabizan asmo eta jokabideak.

Herri otoitza amaitu zaneko, bost abadeek bateratsu altareari mun egin eta Santisimuari belauna joaz, sakristiara zuzendu ziran.

Koru-kantariok eleizkizuna amaitutzat emon gendun eta halan zala agertzearren, azken abestiari ekin geuntson. Kantua amaitu eta be eleizan ez zan inor mugitzen. Ohiturea da azken sartunak aurreren urtea: Udalak bere ikurrinduna aurretik zala, gero herritarrak berak gerizpean baileroazan. «Oraintze da gurea» esan gendun geure artean. Hartu geure ikurrin, ohiko marialaben ohiala ta eleizpean gintzazan txistu eta danbolin hotsean. Umeak eta bardingoak eta gainerako herria, udaltziarrak izan ezik, laster mogidu ziran, jadanik gure ekitaldiaren barri ba ekielako.

Eleizkizunaren jarraipena zan kontuizu eleizpekoa, Kaxin agosila, arbindu samar, eleiz atetaraino etorri ez balitxaku kuskusean begi urtenak erakusten. Laster sartu

zan ostera be eleiza barrura, Alkateari bere esparrutik landa gengozela-edo iragarten hurrean.

Eleizpeko harlosen unada egokiena hartuta geunkan, batez be aureskularien ekitaldirako, bitarteko hutsuneak ahalik ondoen itzuritearren. Plazea egoen leunaz, plazea zan zabalaz eta gu hantxe korrua behar hainbat zabaldu ezinik. Askok eleizpetik at, eleizperadi jarraitu izan behar eben dantzaldia.

Hanartean Alkatea eta udaltiarrek, euren bandereagaz, orazino bereziak-edo egiten iharduen eleiza barruan, norbaitek hatara zigortu baileuzan.

Ikurrin-dantzaz hasi gendun ekitaldia. Herria pozarren auspoak gainezka, begi-belarri zan, batez be ohiala (askorentzat ohiko ikurrina) dantzarien gainetik irradan ikus-tean.

Amaitu gendunean, txalo zaparradea yo euskuen. Harrezkero, bero-beroan, mutilezkoak Ezpata-dantzari oratu geuntson. Salto neurtuak, ezker-eskubirako zeharkadak ez-patak gurutzatuala. Burrukan? Oraingoan bakerako aintzinakoen burrukak antzezten hobeto esan. Eta ze letaina edo errogatiba eroen hanartean Alkateak eta Udalekoak eleizan edo sakristian? Abedeekin eztabaidan? Mesa santua ea zelan ospatu behar zan argitzen?

«Iēupa! Ederto, mutilek» txalotu ginduezan begira-leak, gure ekitaldi debekatua gorakatzen ausartu egiten zirela.

Mutilok geurea amaitu gendunean, neskak sartu izan korruan, Sagar dantzako zabukak eginaz, sagarrak otsaretik jaso eta eskeinka-tatiak ugarituz. Hain zuzen be horduantxe izten eben udaltiarrek eleizako zigorraldia. Nes-



ken sagarrei edo gonon margo eta txairotasunari jara egin barik Udalera zuzendu ziran, aurretik ikurrinduna apal, erruduna ez apaldu nenkusala. Udaltiarren arteko baten batzuk bekarbara begiratzuz irribarre konplizea eskeini euskuen «zuek ekin hor» esan gura baileuskuen. Katxin agosila, egokion azken lerroa apurtu eta azkar aurea hartzen ikusi gendun. Laster konturatu gintzazan zeratarako izan aiteken. Udaleko gramola zaharra isiotu eta geure txistu soinua kakastearren. A bai? Ez geuntson geureari etsiko harik eta neskek Arku dantzako paseak eta joku guztiak amaitu egiezan arte. Begiraleak geuri begira asarratu be ez geurea baino beste erdal musikarik entzungo ezpaileuen. Dana emoten eben kontuizu berezko, Alkatearen saputsak eta gramolearen orroak alde batetik eta gazteen asaskaldia eta herriko soinua bestetik. Bakotzak berea erabilan gogo zentzунetan, bakotzak bere gurenda igaroan bere arkupe-tik, bere pausoak, bakoitzak bere ikurrinari men egion. Herriak herriko plaza erderari salduta ikusi ebanean, eleiz-pean irauan bereak txalotzen.



## 8

Basauriko espetxean, agorrak 11, 1974an, domekaz.

Argia be ilunetan nabarriagotzen da eta, gaurko domekeak biak ekarri daustaz: barri onak eta txarrak. Bat ona: Nire espetxekide Jabik («me llamo Jabi» hori izan zan egin eustan azken agerpena) askatasuna lortu dauela. Lortu dauelakoan nago behenipehin eta horretan dagoz nigaz jatera bildu ohi diren beste presoak be. Ez dirudi beraz, sarritan jaso ohi danez, gelaz eta erru barik argi zabalera urten dau.

Hori izan da domekeak ekarri dauskun alderdi ona. Ni goizaldeko mezatatik gelara itzuli nazeneko Jabi ez egoen han. Ez nora eta ez hara, gainerakoa neure usteak dozuz.

Gelalagun barik itzi nauenarren, pozgarri jak barri hau eta hareago herainegun esan neuntsona gogoratuaz, «bihar edo etzi, domekaz behar badok, zoria aldatuko jak...» Hobe horrela. Gainera ni ez nago bakarrik. Nire kuadernoa gorderik neunkan tokian, idoro dot. Berari begira gelditu naz. Bera eskuetan ez banendu, ausaz bakarrik sentiduko nintzake, zereginik ezean, nori berba egin ezinik lez. Lana erditua dagoke. Beste aste beteteko geldituko da. Halan eta inoiz baino gehiago irrikatzen nau askatunak, Jabi joan danetik. Lanak dirauen bestekoa izan dai-

tela zigorra be. Batzuren jasanbearra besteena baino handiago izan ohi da, errua edo errugabetasuna be ezbardina.

Kuadernoa hartu eta askatasunerako pausoak saiatzen nengola, etorri jataz barri txarrak nondik eta etxekeen-gandik etorri be. Amaren bisitak zori hoberik ekarri eikidan, arrebaren irribarreagandik gozatsuagorik itxaron neinken baina... Lehenengo eta behin Katxin, gure agosilarena iragarri dauste. Zeu, hospitalera beragaz berba egitera joan zintzazalarik, ez zinduezela hartu gura izan. Zeure abogadu karneta erakutsi eta sartu ahal izan dozunean, Katxin gaisoa konorte barik aurkitu dozula. Haserako galazotea ez da izan beraz, Katxinen inguru egoken hesiagaitik. Bardin izan ete zan gure Abadea ikuskatzen joan jakonean? Zer jazo ete da aste ta erdi honetan gauzak horrela gainbeheratzeko?

Azalpen batzuk emon daustez etxekeek: operazino ondoko zera dala. Biritan sartuta eukan sahietz hazurren batek arnasea eragozten eutsola, operatu bearra izan dauela etabar. Osatuko ete da hainbat arinen!

Gauzea uste gendun baino larriago izan da nonbait. Eta harena larritzen doan bestean neurea okertu egin daitekela konturatzen nozu. Nire espedienteari lehenak eta bi leporatzeko izan daitezke-eta. Errudun nazelako? Ez, errudun egin gura nauelako baino.

Neure aldetik eztalakoa egin dot amaren-eta aurean. Gogo bete eta baikor agertu natxake, zoria neure eskutik baineunkan. Nere gela-laguna be, hain zuzen, gaur bertan askatua izan dala iragarri dautset, neurea be ateeetan legokela adieraztearren. Zigor bardintsukook gela berean ba. Bestalde, nork jakin Jaungoikoaren bideak. Hemen gi-

zakienak aztertzen be nahiko buruauste dogu-ta. Auzia gordinagotu egiten dauskuela? Orduan eta gogorrago ekin beharko dautsogu geure aldetik.

Neuri dagokidan zoria aztertzeko bide askorik ez dauste emon bestalde etxekoek. Barri txar bat bakarrik ez ei doa etorri eta hako beste hau be ez da garaun bakoa: Gaztedi-Kluba itzi egin dauela. Poliziek etorri eta Abadexeko gure lokalak giltzatu eta Urigueneko gaztediari han batzarrea eragotzi dautsela. Zer dala eta hau! Eurak jakingo daue nire amak-eta baino hobeto horretarako euki dauen arrazoia. Armarik-edo aurkitu dauenik ez daue esan behintzat. Ez ete egon sukalde zaharrea haiztorik edo lauortzik edo sakakortxorik? Gure koplak paperak be batu eta erre egin dauez, Tasio eta Patxi nire gaztelagunak Uribeko kuarterera deituak, galdeketaz aztertu eta zemuak izan zirala jakin ebenean. Zorionean mutilek osorik itzuli ei ziran egun berean. Eurekaz egon beharko zendula uste dot ea ze barri, zer salapen modu, ea nireagazkoaz zerikusirik ete daukeen. Koplakaitik ez arduratu. Hemen gehienak gogoratzeko beste asti daukat.

Aipatu dautzudazan mutil lagunetatik bata, Tasio, dot baliogarriena. Alkateaganako osteretan beti laguntzen ninduna eta haregazko eztabaidetan arpegia erakusten ekiana be bai. Gaztedi-Klubekook aztertzearren ala bildurtzearren izan ete da kuartereratze hori? Ala, sarratu ordoren, Gaztedi-Klub sarratzeko aitzakia? Abadeak berba egin ahal izango baleu! Egon zaitetz beragaz, geure artean doguino behintzat. Horra ba beste barria, amak-eta esan ez dausteena, arrebeak Anemirenen karteak irakurtean agertu dana: Alkarteak-eta Abadea herritik bialdu gurarik ei dabiz jo Gotzaitegira eta jo Gobernura. Orain arte egin dautsoezan txakurkeriak gitxi bailitzaran. Bildur dira hurrean,



Abadea gurean dagola, herria egiaren jabe egingo ete dan. Gaztedi-Klub izteak be ez dauka beste helbururik, gaztedia bere eraginetik aldentzea baino.

Negargarrion artean gehien poztu nauena, zera izan da: gure nesken adorea. Etixerik-etxe ibili ei dira Abadearen aldeko firma bila, agiria Gotzaitegira bialtzekotan. Eta bialdu be egin ei daue dagoneko. Hori da jokabidea! Ez gagoz bakarrik eta, ostera be esango neunkizunez, ez naz auzi honetan bakarra. Ni hatxilotzea, Gaztedi-Kluba sarra-tzea eta bertako gazte bieie eginiko galdeketa eta orain Abadea herritik at bialdu-gura hori Katxin agosilari jazorikoaren ostean gertatuak dira danak. Ez deritxazu larregia be Uriguenelako herritxo baterako eta danak aste ta erdi barruan jasoteko? Dana dago alkarrereri lotu, eta auzia axatu dauenak danetan lotuen.

Batzuk nekea daroagun artean ostetik dabizan salatzaileak, nasai dagokez, tirorik harean jaurti barik, ehize lana txakurrak egiten dautseela. Ehizakiei baino begiramen handiagorik ez dauskue, baina ez gatxakez hain samur platerera etorriko.

Artean gure amari ez jako besterik otutzen, zera baino: «horrekin hobe onean, seme; multarik baletor, ordaindu eta kitu». «Multea?» erantzun dautsat, «zeren multea?». «Ez ba, etorriko balitz ninoan» berak. «Ez badator eta ez etorriko balitz be, ama. Egin ez dogun kaltearen ordezko multarik ez dogu ordainduko». «Bardin dautso horrekin, seme». «Ezin lei ordaindu baina, ama. Ez ete dakizu mul-tea ordaintzea errua aitortzea litzakela eta benetako erruduna zurikatzea?». «Bai, alde batetik, baina horrekin ez dago beste biderik, seme. Onean, onean edo ezebez horrekin...».

Hara ba zertan dan gure amaren bide ona: euren platereko ehizaki samur biurtzea. Gure amak ez dau ziur Abadearen aholkua jaso, hagaritik isilduko eusten Abadearena be berak eta arrebeak. Nire kateak bigundu egin gura dauz, edozein konponketa egingo leukee neu askatzearren. «Ez dagizuela egin disparaterik» erregutu dautset. Multea ordaindurik, hako guzur pilaren matasa askatuko balitz... Baina onean onean multea ordaindu eta argi dakusdan egia estaldu halako samurkeriaz? Ez, jauna.

Abadearen ejemploa aitatu dautsat. Ordaindu ete eban berak ezarri eutsoen multea? Ez eta ordainduko be! Berak sotanea daukala aldeko, edo bardin dana, Gotzaitegia? Egia. Eta nik ostera, aurka neure Alkatea. Larria benetan niretzat. Eta nik Abadearen adorerik erdia be ez.

Halan da be, ahal dogun bestean, ez dautsegue eurenaz urteten itzi behar. Ez daiguzan okertu gauzak neure pupuak horrela osatzeagaitik. Auzia ez da nirea bakarrik, osatu gabeko zauria ezin leiteke gaza zuriaz estaldu. Ebaitketa behar da hemen, herriak arnasa libre hartu ahal dagian, bada estuaren estuz geuri be sahietzeko hazurrak birikietan sartu gurarik dabilkuz.

Ba dakit jarkera honegaz ausaz ez dautsudala bidea errazten, baina sasiei ez dautset bildurrik. Aihotza hartu eta banan banan ebagi beharko doguz.

—«¿Qué se proponía mayormente, destruir la moto (según usted, injustamente adjudicado a D. Francisco Goiria o castigar al nuevo usuario?».—Aurrera eroan galdeketa komisari arraiak.

—«Ni una ni otra cosa...» —nik.

Ikasi barik neunkan testotik itauntzen eustan; ez egokion beste erantzunik. Ez dira horreek niri egiteko itaunak.

—«Pero algo se proponían —ekion komisari zuhurak, leihora begiratu eban pentsakor—. Algo así como: ya que le han arrebatado a su dueño, que no lo aproveche el usurpador. ¿No es así?».

«Bero, bero...» nik neure artean, «Oraintxe bai esan dozula egia santua. Zeozertan bat gatozen. Zeuri be baderitxazu «ya que le han arrebatado a su dueño...» halan izango da. «Usuario» barria ezeze, lapurra nor dan be jakin behar dozu, jakin beharko zenduke, ene komisari arrai. Aurretiaz zeuk aztertua ete dozu, aulki honetan beretan jesarrita dagola, motoaren lapurra be?»

—«Entonces... —Kamisari arraiak idazkariari begiratu eutson—, que no se proponía dañar ni la moto, ni su dueño».

Ze ondore atera dozu, komisari arraioa? Jabea da ala ez da motoaren uztiatzailea? Ala jabea da ondorea biribiltzekoan bakarrik eta gozamenekoa, neri itauna egitean? Danetan zagoz, komisari fin, zeuregaz urtetarren. Baina esan eistazu, ze eskubidek egiten dauen ez dana batean legeko ete dana bestean baldintzapeko. Ez nendukez moto lapur baldartzat be jo gura neure salatzaileak, lehen, antzetan bada be, herriko altxorraren ohoin emondakook, hatan be. Eta, neuri dagokidanez, «que no se proponía» ezetz horrek, artean asmakizunen bat banenbilela ez ete dau amoremoten? Ala hitzetatik ortzerakoen hutsa ete da bakarrik, galde-erantzunen aldea eta hizkuntzaren ajea?

Argi lagoke, bada itaun guztiok erantzun barik geldituko litzakezela, nik «onean, onean» etorken multea-edo ordainduko banendu. Bestelakoa da bilatu behar dogun estrategia. Egari adarretatik oratu, bakotsak dakian, eta edo dakusan eratara. Eta nik haunela dakust, eta dakustan eratara kontatzera noatzu.

Esaten neuntsunez, Gaztedi-Klubekook dohan prestatu geuntson harakoan herriari dantzaldia eta herriak atseginez hartu be. Argi gelditu zan herriaren begiko zana, Alkatearentzat arantza gertatu zala. Lehenengo altaboz erdaldunaren indarrez eta gero Txomin Arrigorriagakoaren peilokeriez ezkutau gura izan eban, aurretiz plazatik eleizpera baztertu eban ikuskisuna.

Txominen graziak askori grazia egiten eutsela? Baina horrelakoek ez euken kritika izpirik buruan Txominen erretolikea noren lepotik ebilken aztertzeke. Gure gus-torako adar-jote narrasa zan. Alkateari gili egikion, bere erdereza ez egoelako Txominkeriekandik hurrun eta, edoze-lan, erderaz egoelako. «A ver pues, si Don Seledonio y Doña Pascasia se ponían de acuerdo por dónde había que agarrar el serdo...».

—«¿A qué serdo te refieres pues, Txomin?».

—«¿En qué matantza pero?» —oihuka erantzuten geuntson plazatik zehar Goiko-trabenara ginoazela.

—Horrek biok be batak daukazan brusa eta makilez, txarrizaintzarako ez asko txarrago.

Eskerrak gure baratzetan tomateak ez zirela heldu, bestela protesta modu nabaria izan eiteken euren guna hareen paparrean. Tomaterik ezean, sagar ustelak edo as-tapikuak bardin, bata besteaz kalifikatzearren. Ez gendun egin holakorik, nahiko gorbiztu gengozalarik be. Baina ez gendun galtzaile konplexurik bestalde horrelakoetan lerra-tzeke: Alkateak beragaz urten ebala? Guk geureagaz. Ha, sadekerialakoz, hilian egoen geure kulturari peiloke-riak esaten? Gu geure kulturari arnasa luzatzen. Nor dabil indarkeriaz hemen? Norena da gizabide estiloa, komisari jaun?

Ahal gendun protesta jo behar. Horixe bai. Bertsolari-

rik ezean, erdi bertsolarien ganoraz. Eta erantzuteko asko eta gazte gintzazan. Bakoitzak bere moldez erantzun eikean bere oldez eta moldez erantzun be:

«Txarritegi hortako  
jabe gizendua,  
txarriak loditzeko  
hako artaburua.

Artaburu, txarrizain,  
Txomin bera da-ta,  
txarriek be ulertuko  
horren berbaketa».

Programaz programa, Sanjuan goizaldeko jokuak alde urten euskun. Falanjeko rondailarien aideak haizea berotu eikeen, baina gure dantza erakusketa geure herritarren begi-belarriak bete ebazan. Eta Udal balkoetik izan gendun ditzolariaren erdal kirtenkeriak zer ziran Eleizako mikrofonotik euskeraz entzun genduzan egien aldean? Egia danak eta ekintzat be, zati bat, geure alde urten euskuen goizean behenipehin. Arratsaldekoan ikusi egin behar. Gure altabozak ez euken Udalekoen indarrik. Gaztedi-Kluba eta Abadetxea edozetariko arerioen kontrako elorri eta gurutzeagaz horniduta geunkalarik be, larri ibiliko gintzazan.

Alkatearen plazea iluntzeko berbenerako bonbila indargarriez hornidu eta gertu egon. Bonbilatik bonbilara paper gorri-horiz jositako banderatxoak apaintzen eben. Guk kolore guztietakoak geukazan Gaztedi-Klubean. Bonbila pare bat edo be bai. Arratsaldean hasi eta ez gendun etsi behar geurean azkeneraino. Ez gendun tabernarik, ez tabernea jasoteko baimenik, baina ez jakun falta geuretza-

ko eta gonbidaduentzako lain edangarri eta ogiarteko. Udaleko adarrak erdera okatzen ekitsan balkoetik, gure euskal erantzuna apalagoa zan Abadetxeko Gaztedi-Klub leihoe-tatik, baina argi indar nahiko ez gendulako, ez adore fal-tan. Nabermenkeriaren bat egin ete gendun? Ez ete gen-dun geure gaztetasuna eta euskaldutasuna edonon agertze-ko eskubiderik?

Oinak bizkor genduzan eta euskal soinuak dantzara bultzatzen ginduzan. Zer ziran orduan Gaztedi-Klubeko goibeheak gure jauziak neurtzeko edo biribilketa katea ka-bitzeko?

—Urten daigun plazara! —esan gendun.

Uribeke gazte batzuk be inguratu egin jakuzan, goizeko eleizkizunean Alkatearen bandereagaz jaso zirenak eta bi oihuz ospatzeko asmotan.

—Biribilketa kalez-kale eta plazan zehar dantzetako da.

Neska eta mutilen katea luzatu egiten zan, katera deia zan:

Dantza katera danok  
bat egin gaitzen,  
kate laidogarriak  
apurtutearren.

Halakoetan nahiko izaten da kate-aurrekuaren bo-rondatea, noranahi hari jarraitzeko. Horixe egin gendun: Gaztedi-Klubeak hartzen ez ginduzanez gero, plazara ur-ten oihu eta dantza, euskal mogimendualakoaz programa ofiziala gitxiesten gendula-edo.

Txakurra axatu auskuen behingoan. Katxin agosila Abadetxeko ateetara agirika baten etorri jakun:

—Kontu gero zer darabizuen! Nork emon dautsue ho-rretarako baimenik? —Katxinek begi gora eta aurrean be



ia ikusten ez ginduzala, buruz ekiana irauli euskun—. Eta horreek altabozok isiltzen ezpadozuez gero... Ez pentsa gero hemen edozer egin zeinkeenik...

Katxinentzako ohar larregi ziran batean esateko, baina argi egon bere ugazabaren esaneko zintzoa baino ez zala bera. Kontuz ibilteko, «ez uste hemen...». Harako «neuk agintzen dot hemen... —edo— plazea neurea da» esan gura baileuan.

Izan be plazea, bandera bereziaren kolore eta guzti «Gran Verbena»-rako prest egon eta guk kontra-martxa halakoz iraultzen gentorkezan hurrean. Ez bide zan egokia egunez eta herriko plaza kalentar jaitarrez betetzen ari zala, halako baserritarkeriak plazaratzea edo plazako bake ofiziala zirikatzea. Argia, soinua ala dantza mota ete ziran ba jolasari zilegitasuna ekartsona? Iluntzeko bonbilak eta ez eguzkiak, behar bada? Uribeko Kuartetoaren repertorioa eta ez gure euskal dizkak hurrean? Berbenako dantza lotua eta ez noski gure biribilketa? Agintariaren borondate orokorra harean. Borondate horren gainetik ez egokigun «bere plaza» iraultzea edo «bereaz» berjabetzerik.

Geure ustez, eskubidea gendunarren, ez gendun barriro asaldurik jo plazan bakearren. Etxe barruko jaia ospatzen jarraitu gendun, baina ez luzarorako zoritxarrez. Ez zelan eta ez nondik gure euskal soinuak pot egin eban altabozetan. Argia dana joan jakun. Joan? Ez, norbaitek kendu baino. Udaleko adarrak indartsu jarraian berean.

—Nor izan ete da?

—Katxin, Katxin.

—Alkatea bera... —itauntzen gendun, salatzen genduzan.

Argi kontuan zerbait ekienak arien usnaka hasi ziran.

—Nondik dator Abadetxerako argia?

—Eleizatik.

—Eta eleizara nondik?

Ez eben aberia unerik asmatzen. «Sabotajea» be esan gendun. Orduan sabotariengana joatea onena, erabagi gendun. Katxinek ihes egin euskun.

—Ez niri pregunteu. Ni naz argizaina ala?

Mutil bi Beheko-tabernara jo eben Alkateari arpegira esatekotan. Ez eben Alkaterik idoro ez eta Udaletxean be. Alkatesiak-edo plomoak aitatu ebazan: «Argi larregi kargauko zeuntsen eta erre egingo jatzuezan».

Eitekena zan, bada altaboz bi eta lau bonbila gehiago biztuta geunkazan. Baina, bai zera! Gure susmo okerrak hurragotik ebizen. Plomoak zindoak egozan, han gendea ebilen nonbait erreta, ez dakigu goizean ala arratsaldean jaso zanagaitik ala biekaitik.

Sabotajealako azpi indarkeriaz eraso baginduzen, zertan bialdu euskuen agosil inozentea halako agirika-zemaiak egitera?

Bederatzirak aldean Uribeko Kuartetoaren dunbotsa hasi zan eta harrezkero gure programeak egin eban. Gaztedi-Kluba itzi eta kalera urten gendun bakoitza bere bidetik eta bere asmoekin, nere ustez, neuk legez, beste askok Alkartearen programeri boikot egiteko asmotan. Hain zuzen be berak esan euskulako: «dantzau zeinkee goizeko hirurak arte be gura badozue. Hemen ez dau Abadeak agintzen...». «Hemen ez baina Eleizan bai» ninoan neure artean Anemirenegaz plazatik zehar ninoala.

Ez gendun beste auturik alkarren artean argiaren zapokeria baino. Ondo be ondo joan zan gure kontra-jaialdia, indar guztiak eskutik eukeezenak halakoetara heldu behar izateko.



Goiko-trabenan alkartu gintzazan batzuk. Ardao bana atera euskuen lagunek. Han ekin geuntson kopletan ostera be:

«Argiak amatatzen  
ikasi jokala?  
Ez dok Kaudilutxoren  
sakristau makala.

Mezea erazoten  
hainbeste balitza,  
bereganduko leuke  
Eleizako giltza».

Euskera ekian edonok ulertzeko eran emoten gendun egunekoen barri. Erdaldun taldeak be sartzen ziran geu gengozan mostradoretik hurbil, baina ez geunkan eurekin konfiantzarik nahiko halakoetan.

—Zer dagizue, gazteok, dantzara joan barik? —esan euskun ezezagun batek.

Gizonak begiak lirotxo eukazan.

—Dantza gehiago oraindino? —erantzun geuntson—. Ezaguna da ez zarela zeu gaurko mezatara gonbidatua izan.

Mezatakoa abestu geuntsonean, hobeto ulertu eban guk geure programea ondo beteta geunkala:

«Banderea hartuta,  
altare manteltzat,  
altareari barik,  
men hari dagitsa».

Gizonak gogoz kontra beste basoerdi bat edanazo gura izan euskun. Argia joan zan ezustean eta han gelditu ziran

ardauak zorionean «eskerrak argia joan dala» ninon neure artean eta haztamuka Anemiren bilatu neban. «Hor zagoz?». Eskua hartu neuntson eta «zer pasetan da» itaundu orduko, trabenan ezeze, plazan eta herri osoan argia falta zala erantzun euskuen ate aldetik.

Erretzaileei esker, aterako bidea lortu gendun. Egia zan, dana egon ilunetan. «Agur berbenako argi koloretsuak» esan neban neure artean. Kuartetoaren dunbots soinau barik nesken txilioak nausitzen ziran orduan. Uribeko Kuartetoaren indarra hurrundua emoten eban. Urigueneko «Gran Verbenak» barriz kaos txikia.

—Baina nor izan ete da? —ninotson Anemireni.

Ez eustan erantzun be egiten hango iskibiduaz. Indar guztiaz oratu izan behar geuntson alkarrri itxumustuan harantz-honantz etozenak banandu eze gindeizen.

Argitzen eta amatatzen ziren metxero batzuren lilurak gau prozezino antza-edo emongo eutsen, nesken txilioak izan ez balitzaz. Haxe une egokia su artifizialak erakusteko, Udaleko programan su artifizialik izan balitz.

Banaka batzuk berebilera heldu ahal izan eben. Kotxe faroen argiak aurrez-hegalez joten ginduzen, norabidea asko argitzen ez euskuela. Berebil turutotsak nesken txilioekaz protestea ugaritu egiten eben. Udalean ez egon, ez egoken erantzunik, mikrofonoak be mutu egozen-eta.

—Nor izan ete da? —neragoion.

Jendetzaren artetik urten egin gura gendun, baina jendegandik aldendu barik. Zerbaiten barri jakin gura gendun, nesken txilioak, berebilen turutadak eta mutilen txistuak zer esan gura eben behenipehin. «Sabotajea izan da ziur —ninon neure artean—, ala argi karga larregia?». Alkatesiaren trabenara joan ahal izan bagendun! Zer? Oke-

rreanean euren argiak be karga larragiak -edo hartu ete ebazan?

—Errezagoa dozu aberia egitea, konpontzea baino —esan neuntson Anemireni.

—Bai, gozo egongo da oraintxe gure Alkatea —erantzun eustan Anemirenek.

—Batez be gaueko hirurak arterainoko asaskaldia ezin emon izan dautsolako gaztediari —barre egin nendun—. Ze ordu da?

Ez geunkan erloxuari begiratzeko beste argirik. Hamabiak pasautxu izango ziran.

—Nor izan ete da? —ostera be nik.

Itauna baino hareago zan oihua nire galdera. Anemireni baino lehenago neure barneari nengitson, eta han gaueko ilunetan, faro aurkatuen kerizpetan eta jendeen zaratotsean ahienatu zan.

Deskuidoan, nik neure buruari barik, komisari zuhurak egin izan baleust halako itauna, zurtzadura bardinaz geldituko nintzan. Baina ez zan gertatu halako salapenik. Sabotajea? Argi karga larregia? Batek ba daki. Ariari ez tiratzea konbeni izan jake nonbait.

Anemirenen amak ez eukan ezbairik horri buruz, kan-delaz argituriko afaritara gonbidatu ginduzanean. Argi joana aipatu genduneko esan euskun **berak**.

—Goizeko eleizkisunean susmatu dot nik, gaurko egunak ezin eikela ondo amaitu.

## 9

Basauriko espetxean, agorrak 12, 1974an, astelehenez.

Lehengo ohe buruan jesarrita barik, kukurio edo hobeto esan, indio eratarata apatx naukazu oraingoan kuaderno barrian idazten, hemen gorengo ohe-pisuan. Atso iluntzean bertan bialdu eusteaz gela lagun pare bihurriak ez eusten beste aukerarik emon.

Ni ohera sartu-barri nengon eta eurak sartu eta bat, barre purrustaka, txutxuputxuka eta «¿qué, te molestamos?» zuriketan hasi jatazan.

Ez neuntsen egin kasorik be. Bestera birauta, lokartuta nengoelakoa egiten neban. Ondora etorri eta eurretari bategen ea ituginik egoen itaundu eustan. Nik ezetz. «Es que este menda —berak orduan— tiene la cañería rota» esaten hasi jatan, ea burutik beherako txorrotadaz busterik gura ete neban».

Behingoan ohetik jagi «ya sé lo que queréis» erantzun neuntsen, eta bakearren eta alkar ondo eroatekotan, gorengo ohera aldatuko nintzala. Hartu neure izara-estalkiak eta neugaz kolkoan euki ohi dodan kuadernoa eta gora, aingeruekandik apur bat hurbilago, igon nendun. «Buen chico» txuliatu eben oraindino, eta nik atzo baino be hobeto ezagutzen dodazala, ez daukat eurretaz beste hainbeste esatekorik.



Gaur goizean ohe burukoa barriztau egin behar izan dot: «Xto. ANEMIREN ETA NI». Oraingoan lehengoa baino gorago eta hizki handiagoz. Era berean fedea gertuago sentidu dot. Dana beharrean nago. Ustez lehen baino be lagunduago nagola, funtsean minorian baino ez. Nere lehenengo estrategia (bartko logalduak apur bat erakutsi dauste) neure idaz-maniak euren bistatik gordetea izan da eta, hatarako berebiziko diatort goiko pisu hau. Hemen gainera, Kristo, Anemiren eta ni ez gara gitxiengo.

Deskuidoan burrukariak honagino etorri eta neure lan «subersiboa» ohartuz, abortatzea-edo otu ez dakien, ia osatu daukadan lehen kuadernoa kurtxoian gorde eta beste hau hasi dot.

Idazmania ezeze, euskaltasuna be gorde egingo dautset, begien bistan azaletik be euskaldun eztiren mutiko honeei. Espetxe bizitza oraintxe gizarte bizitzaren espilu egokitu jatala uste dot.

Euskaldunok Euskalerrian gitxierengoa garelarik be, uriguendarrak Uriguenen gehiengoa sentiezen gara, Alkateari berari uju egiten ausartzeraino. Hemen gitxiengoa nazenez, kuku egitea erabagi dot. Bakoitzean bakoitzeko estrategia jokatu. «Qué estás haciendo ahí arriba» jadanik hots egin dauste, «estoy observando si sois hombres de palabra» erantzun deutset, bartko agindua gogarazo. Ez dakit ezertarako balioko daustan oharrak, baina dagoneko nire kuaderno barria osorik dago eta aurrera noa, espedienteari falta jakozanak osatzera.

—«Supongo que estarás de acuerdo» —Eskuetara luzatu eustan espedientea polizi arraiak irakurri eta gero.

Ez neuntsan behingoan erantzun; jakin be ez nenkian eritzia eskatzen eustan ala amoremon nengion.

—«Firma y ya está» —Bekaina jaso eustan komisari zuhurrak.

—«Conforme no...» —erantzun neuntson—, pero firmaré.

—«¿En qué quedamos?». —Begiak zabal-zabalik begiratu nindun komisari astoratuak—. «Todavía estamos a tiempo. ¿Quiere que se quite o se ponga algo particularmente?».

Ezezkoa emon neuntson buruagaz; bardin eustala kontuizu.

—«Quería decir que mi descontento no es por lo que contiene, si no, más bien, por lo que no contiene» —esan neuntson.

—«¿Ha oído eso? —Komisari arraiak idaskariari begiratu eutson—. Y yo aquí intentando sacar con pinzas...».

Espedientea eskutik hartu eta idazkariari biurtu eutson. Idazkariaren bibote txikia eta arpegi luzenda ikusi nebazan ostera be.

—«Que no está conforme —inotson komisari jostariak—, por lo que contiene, sino por lo que no contiene. —Keinu xedegarria egin eutson neure lepotik, burua moidu eban batera eta bestera—. Se ve que todavía tiene mucho que contarnos. Nada, nada, venga otro pliego».

Isildu eta begira jarri jatan aitortza generala egingo neuntsolakooan.

—«No, no es nada importante lo que le iba a decir —agertu neuntson—. Me refería a lo del mus entre el cura, el secretario y el alcalde que hemos mencionado al principio. He visto que no figura en el expediente».



Harritu samar begiratu nindun komisari astoratuak, arpegi serioa, serio arpegia hobeto esan, erakutsi eban.

—«Se lo decía en bromas y al margen de la cuestión...». —Bekain izutiak astindu ebazan komisari arbinduak.

—«Ya lo veo, pero desearía que figurara en el expediente, como protesta. —Hatzamarra luzatu neuntson idazkariari, agindua emon gura baineuntson—, y así lo firmaré».

Alkar begiratu eben komisari idazkariak eta makinea neure protesta joten entzun neban. Gero paperak banan-banan, komisari arraiak esaten eustan tokian, firmatzen hasi nintzan, ez naz gogoratzen zenbat bidarrez, lau edo bost orrialde izan eitekezan, eta nik, firmatuala, espedienteetan falta zirenak gogoratzen nebazan. Nork entzungo eustazan niri, esateko neunkazanak? Zergaitik ez eusteezan beste pertsonaje hareetaz itaundu?

Esaten neuntsunez, eskerrak Sanjuan gaueko argi joanari, lo egiteko aukera gehiago izan gendun. Sanjuantxuz itzartu nintzaneko, kalean zan eguzkia. Amak inostanez, goizaldean, eguzkia baino ordu erdi geroago etorri ei zan argi indarra. Sikeran be! Egunak argitzen dauz gaueko erratuak eta konpontzen aberiak.

Katxin agosila be, Elexosteko mutiltzarra lagun ebalá, erratzaz ihardun egunari laguntzen, plazea garbitzen harean. Neska zapatak, neska boltsak, dirua, dirua be, eta ez gitxi, lurrean agertu izan zala esan eustan Mari sakristaneak.

—Paperetan ala hogerlekatan?

—Danetik, danetik





—Kaletarren protesta moda barria izango zolan.

—Eta kontseju pean itzi dauezan korotzak zer? —Sudurrak astindu eustazan Mari sakristaneak.

Hagaitik egongo zan Katxin bera be humore gaiztoko goiz haretan Elexosteko mutiltzarragaz, «esan deuat hori itxi eta hona etorteko».

Alkateak bazkari itzela agindu ei eutseen bieri inguru guztiak garbi iztearren.

—Baina nigaz ez da inor akordau eta ikusi bazendu zelan egon dan eleizpe hau, ikusi... —Erratza eskuetan eskukatzen eban Mari sakristaneak.

—Gure eleizpea? —nik asaldatu—. Ba orain ondo dakizu, Mari, gu ez garela izan.

Bere eskutik erratza hartu eta eleizpeko harlosa zirris-  
tuak garbitzen hasi nintzan, Mari sakristaneari laguntzearen baino hareago eguzkiak ez ekizanak be nasaiago konta ekidazan.

—Eta ikusi dok zer egin joen Abadetxean?

Eskutik ihes egin eustan erratzak, Abadetxea entzun nebaneko. Jo! Eta burua jasotea baino ez neunkan bertatik ikusteko. Lehenago ez ohartzea! Beheko leihoetako kristalak triskilduta eta gure «Gaztedi-Klub» izena ahien-  
dua. Hareek neuk kartoian ebagi eta spraiaz pintaturiko hizkiak mila zati eginak.

Eleizpetik Abadetxerako arrapaladea nahiko izan jatan gure klubeko izenaren auskorraz ohartzeko. Barruak opa euskun babesa be ez ziurra halako erregimenean. Eskerrak, halan be, burdin sendoak eukeezela leihook. Jaurtin harriek barruan kalte handirik ez eikeen egin.

—Nor izan dokala uste dok? —Atzetik jarraitu nindun Mari sakristaneak.

—Parte onekorik ez behintzat... —murduskatu neuntson, neure amorrua ezin gorderik ezpain artean.

Atea idegi, barrura sartu eta argiari emon neuntsan. Hara argia. Aberiea konponduta egon. Ze angeru ibili ete zan argiak konpontzen, eta ziur emonda itzi genduzan argiak amatatzen? Abadeagan pentsa neban. Gauzak bertan-behera iztea erabagi neban, horixe bera esan neuntson Mari sakristaneari, ez eiola ezeri ikutu, Gaztedi-Klubeko besteak be ikusi ahal eien.

—Nor izan leiteken gero halakorik egiteko! —antzi egian Mari sakristaneak.

«Udalari halako erregalauk opa eutsoezanak ez behenipehein» ninon neure artean. Jakina, kaletiko eta baserritiko, danetik egozan Urigueneko «Gran Verbena» haretan, aurkako opinioak ere bai, eta harriok, diruak eta mokor-doak agertzen dira egunez gauaren erregimen ostean.

—Goizion, kristalak apurtuta ikustean, ateetan dei egin dot era Abadea kanpotik zan —eragoion Mari sakristaneak—. Nora joan dala uste dok?

—Ze ordutan deitu dautsazula?

—Bederatzirak aldean.

—Ez, ordurako Abadea joan bide zan.

—Ausaz kristal apurtuen zaratea entzutean, bart jagi eta guardazibilen bila joango zan. —Eskua ahora eroan eban Mari sakristaneak—. Ez baina, bestela honez gero hemen egon behar eban.

«Poliziei deika? Horixe ez behintzat» nik neure artean, ez dot uste. Dana dala, ez nenkizan oraindino gure Abadearen ateraldi eta estrategia guztiak.

Abadetxea giltzaz itzi eta etxerantz joan nintzan, Mari sakristaneak oraindino eleizea garbitzeko eukala esan eus-

tan. Eta plazea? Alkateak gura ebanez, diana jo ahal izateko lain ete egon ia? Goizeko hamaikak, eta oraindino Katxin supanpa bat jo barik. Rondailaririk ezean, ni kalejiren bat joteko prest nengon. Horixe egingo neban, Sanjuantxuk eta Sanjuantxuko eguzkiak merezi ebenez jobe. Praka zuriak jantzi, kaiku gorria probatu, txapel baltza buruan, txistua eskuetan eta tanbolina besotik dihindan neunkala, plazara ninoan. Besterik ezean, atartetik Abadetxerakoa joko neban.

Txistua tenplatzeko puts batzuk baino ez neuntsazan egin eta non ataurre-ataurretik jipa bat igaroten ikusten dodan. Behingoan ezagutu neban polizien kotxea. Beste bat haren atzetik eta kolore gris bardineko autobus txikieta-riko bat.

Atetean itxaron neban igaro eitezeino. Igaro? Bai zera? Hantxe plaza goiengan, Goiko-Trabenatik Eskola zaharretara unean gelditu ziran-eta hiru berebilak. Nik ez aurrera eta ez atzera. Atzera egiten baneban, zerbaiten errudun emoten neban burua, txistulari jantzitan ikusi nin-duen eta. Abadetxera joatea erabagi neban, baina foklore armok ondo tolestuta, bada ezpadan. Zer izango zan gero neure txistu soinura bestelako ezpatadantzariak dantzan hasiko balitzaz?

Abadetxean eskutau nintzan. Eskutatu? Hareek leiho apurtuak salatu egiten ninduen plazara begiratzen neban bakoitzean. Beste mutilak barriz, han egozan, euretariko lau jipatik urtenda, metrailetak besapean eroezela, batian batera eta bestean bestera begira, zelatan. Bartko argi sabotatzaileen atzetik ete etozan? Ez ziran gu dantzarion bila etorriko, ez eta Abadearen bila. Horixe falta litzaken eta Abadetxean neu harrapetea.

Erratzari oratu eta kristal apurtuak batzen hasi nintzan. Hasi eta itxi. Ez nenduzan ba gauzak bertanbehera

itzi behar, lagunei erakustearren? Katu hatrapaua baino be urduriago nengon eta ez nenkian zer egin be. Hobe neunken etxean gelditzea.

Eleizako kanpaiak entzun nebazan orduantxe; euren indar sarkorraren babesaren sentidua neban. Etxean gengoan eta herritar batzuk helduenak lehenengo plazaratzen auzartu ziran. Aitite-amumen jazkeraren baltzak konfiantza ekartson gure plazari. Ea Goienkaleko gris hesiari lotsa apur bat emoteko ziran. Eta baltzen artean, larrosea baino gorriago, gorulari gaztearen amantala eta guzti, Anemiren bera plazan nora ezean, batean gurera, bestean Abadetxera begira non datorren.

Ateetara urten eta dei egin neuntsan.

—Jo! Burgosko ezpatadantzariak ikusi joazat eta ez nenkian nora jo. —Izubegiak ekarzan Anemirenek.

Leihoetako triskantzaz ohartu be ez zan egin, apurtuak oinpean ikusi arte. Leiho gainetan ipini genduzan leizarrezko arkupetan ez talakoan gordetzen eben begietako ez-keldura.

—Zer pasetan da? —Anemirenen betulak aurrez-aurdantzaz nenkusan.

Sorbaldak jaso eta leiho ertzetik plazara begiratu neban.

—Gaurko programea aurrera aterateko konpetentzi makala daukagula, horreek hortik mogitzen ez diren artean.

—Zertan etorri dozak?

—Ez diakinat, geuri bildurra sartzearen ezbadon.

—Zer egingo dioagu?

—Trankil egon. —Nasai itxurak egin neutsozan Anemireni—; ikurrinaren kolorerik be ez diaukanagu janzke-

ran. Berderik ez dionagu behintzat soinean eta baltzak dozan hire gorontzak eta nire txapela. —Bazterrera begiratu neban—. Gure komodan be ez diagon kontrabandorik.

Auzoko Irene eta Julen jaietako jantzi arruntetan etozen. Dantzarakoak egunkarian bildu ekarzen.

—Okondokoak beste hainbeste egiten joan dozak —esan eustan Julenek—, jantziak aldatzera.

—Jantzi egin behar dogu? —Betagainak ahalik bestean jasoten ebazan Irenek.

—Ez dionat uste. —Leihotik kuku egin neban osterabe—. Opariak altarera erodateko nahiko gozan Anemiren eta biok.

Kristal apurtuen handi-handikia lurretik jasoteko ordua zala emon neban, batzuk, ikusi ebenez gero. Aurkitu genduzan harriak aparte gorde genduzan.

—Honeek ea nork galdu dauzen jakiteko.

—Lupuak halakoak! Gaez apurtzaile eta egunez lotsak emoten diatorkuz.

Plaza bururantz ez begiratzea erabagi gendun; harei joramonik be ez egitea.

Bigarren kanpaeak jo eban eta harrezkero grisak baino gehiago gintzazan alkondara zuridunok plaza inguruan.

Abadetxea izteko unea uztiatu gendun. Herriko gendeagaz bat eginik, eleizara bidean gintzazan, begiak poli-ziengandik ahal bestean itzuriten genduzala. Bidean taldeko gehiago batu jakuzan. Eleizpean itxaron geuntsen apur baten. Gendeak ez ekian berebila non aparkau, jipa gris hareetatik ahalbait hurrunen egitearren. Goiko kalera begiratu orduko, burua itzuli eta eztalakoa egiten eben «ze barri dogu gaur» txutxuputxu isila azpitik eleizpera bailekarren.



Isilik; ezezagunak geukusan geure artean.

Korura jo gendun. Geure ostetik ondo trajeatu (on-  
doegi gauza onerako) gazte bi sartu ziran. Susmogarriak  
egin jakuzan behingoan. Gure formalidadea hareagotu egin  
zan hareek ikusteaz bakarrik. Armonioaren inguru batu  
gintzazan kantoreen eratarata neska eta mutil. Armonioa  
joten hasi nintzan nesken txutxuputxuari fondoa egi-  
tearren.

—Ez dozak izango gonbidauak?

—Sekretarioarenak-edo ez badozan...

—Joik gauza alegreago bat, ea gure gonbidaduok apur  
bat poztuten diren.

Bai, baina zelan jo neinkezan euskal kanten pasadi-  
suak, «Itziarren semea» esate baterako, izpi hareek  
ostetik begira neunkazala? Lehendik be bildurrak astin-  
tzearren jotzen hasi eta oraingoan ostaz urten leikidan ain-  
tzinako, D. Simonen garaioko, «Tremens factus sum ego»  
edo holako nota baltzen bat izan ezik.


Altarakoa jotzen entzun neban eta handik laster baran-  
datik behebarrura begira egoen neskatariko bat etorri  
jakun, behin-behinezko barriren batek ihes egin ez egion-  
edo, eskua ahoan eukala.

—Bandera eta guzti jatortzuez.

—Bandera eta guzti? —Zurtz gelditu gintzazan, ar-  
monioak zarata egian—. Gaur ez da tokaten-eta...

—Atzokoaren orde izango dok.

Aja! Argi egon beraz: gris andana banderearen ohorea  
aldezten. Non eta Urigueneko eleizan. Bandereak jasaneko  
irainak garbitzen. Izango ete eban gero Abadeak bezpe-  
rako sermoialakoa egiteko edorerik? Nire hatzamarrak ez  
eben ondo berezitzen nota zuri eta baltzen artean. Gehiago





konzentratu behar nintzan Sanjuntxuren duin izateko. Zelan baina eta zertarako? Atzoko tira-bira bardinak genduzan ia mezea hasi aurretik-eta? Armonioa itzi eta begiraleen artera joan nintzan. Kontuz! Begiraleak begiratuak gintzazan. Gu koruko barandatik Alkatea, Udaltiarrak eta banderea begiratzen genduzan, baina koru ostetik ezezagun gonbidatuek zelatatzen ginduezan geu. Isilik eta ahalik formalen beraz.

—Ordua dozue eta Abaderik ez dager —esaten korura etorri jakun Mari sakristanea.

Sorbaldak jaso genduzan.

—Zer esango dautsiet Alkateari-ta?. —ardurutzen Mari sakristanea.

—Esaiezu jesarrita itxaron daiela —esaten ausartu zan Josefi, bere alabea.

—Zer dinon kokola horrek?

—Zeu ez zarela amakurea, sakristanea baino —era-  
goion Josefik amari—. Zeuk jakingo dozu zenbat kandela isiotu behar diran edo akaso berak esan dautsu zeuri banderadun ala bandera bako mezea izango zanik?

—Hago isilik matraka hori —Begirakun garratza Mari sakristaneak alabeari jaurti eutsona.

Mari sakristanea eleizperantz abiatu zan. Alkateak-eta jesarrita itxaroen, eurek hedatu sareetan Abadea noiz jau-siko. Banderea inoizkorik apainen agertzen zan, kiderra presbiterioko barandan kokatu aldarerantz idulia. Eleiza barrua beterik egon, beste Sanjuantxueta lez, bisitari ekstrak aparte. Koruan genduzanak ez ziran bakarrak izango. Isiltasun handia, estul urruma batzuk bakarrik. Jesarrita egozanen artean ipur maminetako odolestuak-edo urduritasun nabaria. Mezearen ala teatroaren zain gengozan?

Lehen pertsonaia falta danean, ez bata eta ez bestea. Harrezkero ziur nengon mezarik ez zala egongo, Alkateak kapelau militarren bat-edo zuzentzen ez baeban hatarakoxe.

Bost minutu altarekoa jo ebanetik eta han ez zan agertzen ez herriko eta ez auzoko abaderik. Mari sakristanea bakarrik itzuli zan sakristiara. Udaltiar bat bertara joaten ikusi gendun.

—Abadeak kuku egin jotsen... —txutxu-mutxua erabilen neskak—. Zer uste jon kokolo horrek?

—Zer egiten joagu hemen —ukondoan jo nindun mutil lagunak—. Goazok kanpora.

Ni ez nintzan mogitzen. Kanpora bai, baina han zer egiteko? Non Eleiza barruan baino seguruago halakoetan?

—Itxaron, ea zer jazoten dan.

Lau monagiloak, rokete barrien harrotasunean kuku egien sakristiako atetik artean zan tirabiraren inozentzian. Mari sakristaneak isioturiko lau kandela nausiak isil otoitzera deitzen ginduezan. Baina posible ete zan otoitza, barrutik halako grinaz gengozala?

Alkarri txistadea emonaz, korutik behera ginoazen. Ateetara orduko, udaltiar bat etorri jakun urduri samar galdezka:

—Baina ez ekian abadeak Sanjuantxuz mezea hamaketan izaten dala?

—Bai, eta atzo hamabietan —murduskatu eban neskatariko batek.

—Nora joan dala dinozue? —Udaltiarrek larri.

—Guk zer dakigu? —erantzun eutson harako neskeak—. Ausaz gotzainagana.

Barre baten nengon barrutik, plazako iturriaren inauguratzekoa gogoratzen neban. «Ez henkian Abadeak iturria bedeinkatu behar joela?».

Eleizpera urten gendun.

—Jo! Ez dakiela Abadea zertan joan daiteken gotzainagana halako orduan. Abade gehiagoren bila ziur.

—Isi, isi...

Eleizpea be gonbidadu susmogarriz hartuta egon. Koruko biak be orduantxe jatxi ziran geure ostetik. Euskera babes ziurra gendun edozer esateko baina, halan eta be, hobe isilik egon.

Lau metrailetadunak hantxe egozen euren pausoen gain itzuli-mintzuli, eleiz torrera, Udalera, teilatuetara begira.

—Abadeak be hainbesteri aurre egiteko laguntasuna beharko joan, ez hala?

Eleizpean be ez gengoan ondo, metrailetadunen begiradapean eta ispiez inguratu. Eleizan sartu barriro? Eskerak, gizonetatik hasi eta eleizatik gendea urtetan hasi zana. Itxaron gendeari, gende artean sartu eta jantzi nabarmenez gengoanok aldagarriren bat, etxekoa edo lagunak prestatua, jantziko gendun. Anemiren neure arrebeagaz joan zan. Ni kaiku gorria erantzi eta alkondara zuritan nengon, gorriminarenik begietan inori ez emotearren.

Atsoak be urtetan hasi ziran eleizatik; ez eben gelditu gura izan eleizpean geuri babesa egiten, ez egon nonbait barriketetarako arorik halako bisitariekaz. Gitxiago Sanjuanez emon gendun dantzaldirako. Zezenkoak behi apalen artean lez, euren abiada uztiatu gendun plazatik aldentzeko.

Etxeko leihotik zaindu neban gainerakoa. Udaltiarrak urten eben azkenengo, Mari sakristanearen aurretik. Beldurri apal joazen, Alkatea arpegia odolak hartuta, banderearen koloreak kutsatu izan baileuan. Mezarik ezaren zera harean. Katxin agosila banderadunaren aurretik Udaleko adarrari indarra emotera hako abeslari ezagunaren «Que viva España» hasi eta «Mi carro» famatuan amaitzeraino. Era polita bisitarien aurrean labankadea ezkutatzeko.

Urigueneko plaza bake santuan egoen Sanjuantxuz, ordubatak inguru poliziak kontrola jaso ebenean. Bi jipak eta autobus txikia alkarren atzetik beherantza etorri ziren tokitik joan ziran. Hogetamarren bat izango ziran guztira grisen eta sekreten artean.

Laino urdinskak joan zirenean Sanjuantxu eguzkiak argi egin eban barrero Uriguenen. Orduan bai, geure senera etorririk, eta lagunak taberna bazterrean-edo bilaturik ohiko grazia hartu geuntson ardaoari.

«Programa osatzeko  
Alkateak argi,  
Burgosko dantzariak  
dauskuz erakarri.

Sanjuantxu goiza larri  
igaro genduan,  
Makildantza lepotik  
har geinkelakoan».

# 10


Basauriko espetxean, agorrak 14, 1974an, eguastenez.

Atzoko fetxaz hasi eta aurreratuta neunkan kapituloa barriro hasi behar izan dot, bestea espetxezainaren eskuetan gelditu zalako. Ez dakit zure eskuetara heldu dan zeuri itauntzea ahaztu egin jatan.

Espetxe lagun barri, alproja saskelongandik ezin neinken gauza hoberik itxaron. Lotsabakook «cómo te las arreglas, tío» eta holakoetan hasi jatazan iretargiak edo eguraldiak edo nik dakit ze drogak ikututa, irolako beharrianak bakean egiten izten ez eustela.

Ni hirugarren pisuko ohean lanari nengokiola, angeruekin hobeto konpontzen nintzela erantzun neuntsen. Neure angeruen bekaitzak-edo hartu aileuzan, euren mustur zikinak goraino azaldu ebezan kuskusean.

Nire idazmania susmatu ebeneko, ohea mugika, kurtxoiari tiraka, nire lana eragosten ekin eutsoen. Bata nekatzen zanean, bestea. Ezina jatan halan ezer aurrera tzea. «No te dejaremos, mientras no te desnudes con nosotros» inosten gainera. Argi adierazi neuntsen, lehen be emoniko hitza janda egozenekin fidatzerik ez neunkala, banan-banako mutur hausteari gogotik ekin neinkiola, hantxe be halako azpikeriaren arriskurik ez balego neure kontra.



Hagaitik gelazainari deitzea baino beste biderik ez eusteela emoten. «Cobarde, chivato» izenak opa eusteezan aurretiz halakorik egitekotan. Edozer haren gurarien menpeko baino lehenago erabagita neunkan neure artean. Atejoka hasi nintzan eta atejotea eragotzi eustenean, orruka.

Gelazaina eta beste bat etorri ziran handik laster. Abogaduari karteia egiten aragosten eusteela adierazi neuntsen. «A ver la carta» gelazainak barik besteak. Ohera igon eta idazten nengon kuadernoari ia alde bietatik hizki txikian idatzirik neunkan orria kendu eta eskura emon neuntson. «¿Quién es tu abogado?» itaundu eustan atezainaren lagunak edo danalakoak. Nik zeure izena emon neuntson. «¿Qué dice aquí?» esan eban orriari gainbegiradea egin ondoren. «Es confidencial» nik. Begikune itsua jaso eustan, «¿no sabe que aquí no se puede escribir en vasconce?» Karta ofiziala barik, eskura emotekoa zala nik: «ni en mano, ni a sotamano»garratz berak. «Veremos qué hacer con ella» esan, tolestu eta jakeko boltzikoan sartu eban. «¡Quiero hablar con mi abogado!» errementau neban nik zeozelan neure amorrua erakusten nebala. Irri zuriz begiratu nindun, «con que quieres hablar... —jakearen iduna zutitu eta gorbatea tenkatu ebazan haizeak surdurkatuz—, pero que no se repita esto» esan eta joan egin ziran.

«Que no se repita esto» hako arduradunaren azken esanak ezin iruntzirik gelditu nintzan eta gitxiago aldameanean izeka arpegiaz begira neunkazan espetxekideen iguina. Apaletik liburu bat hartu eta irakurten ekin neuntson Neuk aurregunetan Jabi espetsekideari agindu neuntson Kixotea zan. Begiak lerro artean nerabizarenren, gogoa deslai diabilan Mantxatik Uriguenera, Uriguenetik Mantxara, ustez irakurle, baiña funtsean idazle, edozein pertsonai irakurriengan esku artean nerabizaren hazur eta



maminezko pertsonen gerizea susmatzen nebala. Lehendik be banenzagun Kixotea. Baina nor zan benetako Kixotea? Edo nor zan Kixoteago, hako zalduna ala oraingo vespaduna? Nor gelditu zan astindu eta mailatuago haizerroten basartean, harako Kixote jauna, ala oraingo Katxin gaisoa? Ez zan bera, egia esan, vespadun bakarra Uriguenen. Abadea be vespaduna zan eta hitzaren aho biko ezpataz ondo be ondo astintzen ekizan Urigueneko okerbideak. Alkatea ostera ez zan ez zaldun, ez vespadun. Kixoteari ez egokion bestalde txarrizaintza. Ba eukazan Santxo Pantzaren alderdi batzuk, batez be Baratariako Gobernadore izendatu ebanekoan eta Dukearen nahitara haren gortekoen barregarri, Peilo Kirtenerenak egin edo txalotzen ebazanean.

Kixotea berrirakurtzean harakoa ta oraina nastetan nebazan.

Arratsaldean be irakurten ekin neuntson alprojok baketan izten ninduen ginoan. Gaztedi-Klubekoen ereduak idoro guraz eta ez nebazan bilatzen. Gaztedi-Klubekoak ez gintzazan izan be, folklorekeriaren ginolari, gitxiago gaez ibili ohi diren armatuen kideko, edo zaldungo liburuen irkurle, edo klopari zahar.

Irakurgaiak ez eustan balio, behar bada, eskuarteko neure pertsonaiak taxutzeko, baina gogoia irabiatzen eustan handik hona eta hemendik hara, bitartean une gartsuak isitzen eustazala, nahiz eta ez izan gei eurak idatziz azaltzeko.

Irakurten nebazan lerroak begietatik ezabatzen jatazan unadaka eta burukadea botaten lez gelditzen nintzan. Inguruan neunkaban lapur bien iguingarriaz konturatzen nintzaneko, ostera be Kixotegana ihes egiten neban, ihes egiten ahalegintzen nintzan. Erderaz irakurri eta euskeraz idazkaia bilatzen neban, ez neban euskeratzen, derrigo-



rrezko astina uztiatzen baino. Nere arazoa ez egonken Mantxako ordekan Urigueneko arruetan baino, ez nebilen haizerroten aurka, errotariaren aurka baino. Guk, Gaztedi-Klubekook, soloan erein gura gendun eta usteko ugazabak bere hazien zergara behartzen ginduzan. Gu zalduntasunik hanean be ez eukan ugazabaren aurka jarkitu gintzazan zeozelan be.

Hainbestearino Kixotenean sartuta nengola ostera be, zeu agertu zara goizaldion. Parkatu bartko neure ameseta-ko eroen artean izendatu en bazaitut, ene jaun. Ba dozu zeuk be idazkaritzan eta lege zaintzan zerikusirik, abade, agosil, alkate eta agintaritzako besteen artean. Ez naz ni zeuri eskola emoteko inor, nahiko eta sobera nekatzen zaitut bestalde lerroon astunaz. Atzo jazo jatanaz, ez naz gitxi be poztu, lehen kuadernoa azkenik zeure eskuetan itzi ahal izan dodanean. Horixe izan da nire deiaren arrazoa: neure kuadernoa lapurron eskuetatik askatzearren.

Bestalde harrigarria baino ez, zu neure deira barik, zeure oldez etorri zarela jakitea, neugaz berba egin beharra zendulako, horren zorigaitzean izan be. Zeuk dakizu zelan samintzen nauen Katxinen ezusteko heriotzak. Gitxi ardua buruko golpearen eraginez ala biribikieta operazinoaren osteko zeragatik izan dan, hil eginda eta G. B. Katxin, Mingarri jat eta ez bakarrik nire espedientearen zoria kinka larrian ikusten dodalako.

Ba dakit komisari zuhurrak orain galdekatu behar bairindu, beste honetara itaundu leikidala: «¿por qué atentó, o atentasteis contra la vida del ciudadano D. Francisko Goiria, alguacil de Uriguen?». Ez naz horregatik hainbeste arduratzen, oraingo eta lehengo nire erantzunak bardinak izango litzakezelako. Baina ez ziur neu salatu nauenen kontzientzia. Euren erantzukizuna da hemen larritzen dana.

Izan be, nork izentatuta zaldun-verpadun lerratuazo eban Katxin gaisoa, hirurogei eta... urtedun gizona, hako behor ipertutikariaren bizkarrera? Nork edo nortzuk, urteetako ezarduraz zuloz beterik eta burraz bihurritu daukeez vespadunen bideak eta ez Zubietako arru haretan bakarrik? Ziur dakigu Katxin ez zala bere oldez moto-vesparen su-bastara aurreratu. Motoak jabea eukala argi salatu genduenez gero, ez zan inor aurreratzen harik eta herriaren erantzun horrek baten bateren gibelak zimikatu ebazan arte, eta Katxin, esaneko morroia, gaztainak sutatik ateratzera bialdu eban arte. Hara ba, orain eskuak ezeze, bizia erre bajako, erruduna ostetik dagoen mandataria da. Zergaitik isildu espedientean euren izenak?

—«No estoy conforme con eso de evitar sistemáticamente los muslaris, o supuestos muslaris, del pueblo y montar todo esto en torno al accidente de modo del al-gualcil».

Uste dot horrela esan neuntsola gitxi gora-behera, ia paperak firmatzera ninoala.

—Firme uste aquí—inostan barreirriz komisari arrai-ak—. Sabe usted el espedientazo que supondría si los pu-siéramos a todos en juego».

Horixe gurako neunken, baina papertxo hareek gehia-gorako ez baziran, firmatu egin nebazan. Firmatuta gero irakurri ahal izan neban «Espediente n.º 435 / 74...». Hantxe ikusi neban lotsagarri nire izena, ez neure firmatan, bada nire firmak espediente haren ukapena baino ez dira eta nire protesta espedienteari falta jakozanen sala-pena.

Goizeko ekaitza igaro eta Sanjuantxu arratsaldez gaz-teok herriko plazan gintzazan ostera be Udaleko progra-

meari ea ezertan lagundu geinkion, aldameneko gehigarritz osatzeko ezpazan be.

Gure goizeko kikildurak orduan nasaitu ziran. Gaztedi-Kluba garbitu, kristal ondarrak jaso, leihoburuko leizar arkuetan lorak barriztau eta dizka soinua ipini gendun. Eta behin behineko koplea aurretiz:

«Argiak amatauta,  
bentanak fundidu,  
Gaztedi-klubean lar  
aberia dogu».

Hastea eta asaskatzea izan zan. Koplak asmatzeari ekin geuntson neskak eta mutilak. Banaka eta alkarregaz asmatu be batzuk mikrofonora eroan aurretik, aztertu eta aldatu be bai iraingarriegiak gerta ez eitezan. Batean neska abotsa aurreratzen zan, bertsoa osoturik gaunkala:

«Burgosko dantzariak  
ekarri dauskuez,  
makil dantzarik-edo  
dantzau behar danentz».

Gero mutil abots ozenagoa tartekatzen gendun hurrengo koplean:

«Kitarrak ekarrezan  
besapean trabes,  
herio-dantzarako  
soinua euken prest».

Ez zan koplarien arteko burruka, koplak ez ziran, izan be, haunenak edo harenak-eta. Jasorikoen kritika jostaria irudikean azaletik, funtsean adar jote garratza izan eitekenarren.



«Inor ez zan mugidu,  
abaderik ez zan  
jaiari kantetako  
«requiem aeternam»».

Espetxe hontatiko neure ikuspuntuak baino hobeto adierazten emongo dautsu, auzimaisu jaun, koplari on perrak gure burruka ganorearen barri. Ez dinotsut meritoarren, halako adarkadez euren gogakerei edo amorrueri lasapidea emoteko direnek ea gogorkeriari, eta hareago odolari, biderik emoteko ete diren zeuk ebatzi daizun baino. Koplari andana erre dauela gurean neure kontra agertu ez daitezkan? Geratuko dira nonbaiten, baserrian ezpa da kalean, euren kopiaren bat dinotsudanaren probarako, neure alde beraz.

Katxin gaisoaren heriotzaz gero guzti honek arinkeria edo huskeria emon leike, baina errugabearen heriotza ez dakigula gertatu errudunaren estalgarri. Errugabearena dinotsut, zanaren errurik bakarra bere duin ez direnen morroi esaneko izatea izan zalako. Bizitzak ausaz ez eutsen beste aukerabiderik emon.

Sanjuantxu arrastalde erdian, seirak orduan, zezenak agintzen ziran, eta jadanik banderila batzuk jaurtiak genduzan geure partetik:

«Dantzariak bialdu,  
zezenak ekarri,  
toreatuko dauskuz  
bandereaz barriz.

Zezenketea da-ta  
fiesta nazionala,  
ixuriko da landan  
ezpataz odola».

Landa hori Elexostekoa da. Sinisgaitza egin daikizu Uriguenelako herriska batek halako arrandiz jaiak ospatu gurea. Izan be, Uriben ez dinot, baina Uriguenelako herri-txoetan ez da egoten zezenketarik, ez eta sokamuturrik be.

Guda osteko zera da eta uste dot Sekretarioak ekarri dauskun lorra dala, lorpena baino hareago. Jaietara gendea biltzearren? Edo eta «fiesta nacional» horren banderetan gure nortasuntxua hobeto estaltzearren eta holako ritoen bidez politika marka finkatzearren. Gurean behenipehin, dinotsut, eta gurearen bitartez (gu uriguentadarrok inguruko baserrietan punterengotzat ipiniz) besteentzako be argibide izan geintezan-edo.

Horretarako Uriben bertan ohi dan zirko egitura bera alkilatzen da: burdinezko tramankulu eta oholtzak hesia eta jesarleku arruntak eratzeko gaia. Oholtzak barrutik eta kanpotik banderearen kolorezko paper zerrendaz apaintzen dira, banderearen festa bailitzan eta ez Sanjuantxurena, hareago haren «Agnus Dei»-arena. Toreatzaile taxuak be kaletik etorri ohi dira, merkeetarikoak harean.

Ospakizun hau, zorionez, plazan barik, esan dodanez, Elexosteko landan egiten da, nonbait zezenkoak, plazako zementoan baino landako bedartzan hobeto finkatzen dauezelako apatxak. Bestela ziur plaza beteko astakeria genduken.

Hiru bat zezenko izaten dira: bi herriaren gustoko komeriak egiteko, ia sokamuturrean edo korridetan legez (honeek bizirik urten daroe zirkotik) eta azkena, gizenena, banderilaz akulatu eta mihina eta lerdeak aterazo ondoren ezpataz eraso eta eratxi ondoren, bertan odoldu, okelatu eta gonbidatuen txitxiburdintzi edo lapikorako.

Herriko gende heldua ia okelearen gozora egina dauka Alkateak, baina gazteoi aurten harako Makabeotarren gogoak ikutu ginduzalako daukat. Hareek agintarien txarrikirik ez ebela jango, guk Alkatearen zezenkirik.

—Sufriduazo jakon aberearen okelea jango dogu ba?  
—Kultura arrazoiak bilatzen ebezan neskak.

—Herri zapalduen lepotik holako jaiak ospatzea, geure begien aurrean nor eta zer garenaren eredia ipintea da —erantzun gendun mutilezkoak.

Eta geure asmo «iraulgarrian» indartzeko ta aditzen emoteko koplak gehiago. Kopletan joazen eta etozen gure amorruek herriagan erantzuna hartu ondaren:

«Zezenkiaz erosten  
dan askatasuna,  
inon trapura dantzan  
dabilen zezena.»

Alkateak okelaz  
ase gura gaitu,  
ta gu justizi-grinaz  
gaukazuz gosetu.»

Sekretarioaren berebil ezaguna plazan sartzen ikusi gendun. Hiru lagun etozan beragaz. Bata, betaurreko ilunduna, plazako iturria inauguratzean etorri zana bera ezagutu gendun. Udalera zuzendu ziran, ardurazko gendea ziran danak be. Zezenketaren usainera ziur.

Seirak aldean Udalekoak formazinoan joazan Elexoterantz; eurentzako toki bereziak eukezan.

Harek joan zireneko, gu plazaren jabe sentitzen gintzazan alde batetik, baina ezin geinken ahaztu goizeko se-

kreta hareen keriza gaiztoa bestetik. Han ibiliko ziran gendartean ondo kukutu eta ez harengandik hurrun Gaztedi-Klubeko kristalak apurtu ebezenak. Kontu eizu zezenketaren usmora kaletik etorritakoen kotxez beterik egozela plaza eta sarrerako bide hegalak. Han ikusi gendun Katxin gurea be, berebilei tokia egokitzen eta zezenen ordua supanpaz aldarrikatzen.

Guk herri soinua plazara aterateko uztiatu gendun. Izango ete gintzazan, bezperan legez, biribilketaz plazartzeko beste? Ume eta andrazko hainbat egon plazan. Ez euken danak zezenketarako txartelik edo grinarik ikusten zanez.

Abadea agertu jakun orduantxe bere motoan. Itzel portu gintzaran bera ikustean.

—Zelan zagoze? —oles egin euskun.

—Ba gengozan, jauna, bere arduetan!— Abadetxeko kristal apurketa iragarri geuntson—. Badakizu zer egin dauskuen?

—Agindu dodaz barriak— Irribarre egian Abadeak.

Mesedez hareek geure kontura konpontzeko eskatu geuntson.

—Eta goizeko «despliegea»? —aipatu geuntson.

—Bai, bai; jakin dot—. Betikara amaigabezko argia erakutsi euskun begietan—. Sumo neban.

Motoa atartean sartu eta joatekoa egian Abadeak; jaija geugaz ospatzeko eskatu geuntson.

—Gero etorko naz —esan euskun—, orain mezea esan behar dot.

—Orain? Harritu gintzazan.

Uriguenen ez zan arteetan, beste herri hazitxoenetan lez, arratsaldeko mezarik emoten.



—Oraintxe ba —baikor Abadeak—. Ez dozuez ikusi besteak bandera eta guzti hortik joaten? Oraintxe da nire ordua.

—Benetan! —esan gendun alkarri begira.

Debozino askorik ez eukenak be, protesta edo beste-lako programa egokitzat emon eben orduantxe, Sanjuantxuko arratsaldeko seirak pasautxu, meza entzutea. Entzun eta abestu. Abadeak meza maiztxua gurako eban baina han golpean batu ziran andrazko eta umeen artean, eleizkizunari itxura emon geuntsan. Kantuoz isiltzen genduzan Ele-xostetik etozan ole oihuak.

Kanpaerik ez gendun jo albo landako zezenkoak, zezenzale eta bandera zaleak ez aztoratzearren, baina Mari sakristaneak, goizean lez, lau kandela nausiak isiotu eban, Sanjuntxuri sor jakonez.

Bakean amaitu gendun mezea sikan, bakean eta al-kartasunean. Ez dago gauzak berezitea baino hoberik: eleizakoa danean eleizan eta eleizakoa ez danean Elexosten.

Eleizatik harako, pasodoblea entzun gendun. Uribeko kuartetoa oster a be portatzen zan. Zenbakarren zezena ete eroen? Ez gintzazan arduratu. Guk geuk gendun eta genkarren jaia eleizatik eta haxe adieraztera gizonaren diska musikeaz lagundurik lehenagoko eta beste herri batzuetan oraindino dantzatzen ziran orripeko edo fandangoak dantzatuz. Neskak ziran artistenak horretan baina mutilok ia lotsea balduta gendun.

Umeen entretenigarri (geu be nahiko ume sentitzen gintzazan) aproposko zezenketa eratu gendun, han Elexostean hesi barruan egiten zanaren errepikagarri. Danerako gengoan: zezenarena, banderilerorena eta kapadunarena egiteko.

—Itxi eistazue azken «faena» hauxe neuri!

—«Muletilla» horrek baino askoz txarrago ez dok egingo.

—Bai, benetakoaren aurrean ikusi gura hinduket.


—Alkatearen bandereaz edonork, txo...

Elexosteko azken pasadoblea entzun gendun, geroago txaloak. Geu be zezenketeari azkena emotera ginoazen, bakoitzak bere oldez eta moldez bururatu eta burutzen ebalala. Orduan gure toreatzaileak txalotu beharra eta aproposko alkateari dominea ezartea. Jakin be egin gendun orduantxe Alkateak Sekretarioaren eskutik bat urrezkoa jaso ebala. Ez zan harean lehenengoa, baina egunatan banderaren alde eginiko ekintzakaitik ondo merezia eukan urrezkoa. Sekretarioak berak eskegi be egin ei eutson samatik gorri-hori zingoladun dominea. Noren irudia, zeren simbolo, ikur edo idazkia izango ete eban urreak aldean?

Dana dala, Alkatea, eleizan ez legez meritodun agertzen zan zezen plazan. Eleizea benetakoa eta betikoa zala eta zezen plaza ia jolastekoa, kendu eta ipintekoa, gizakien politikea bezala. Halan eta be, Eleizak itxurgatzen eutson gauza bera txalotzen eutson une-uneko Agintaritzak.

«Urrezko dominea  
samatik berari?  
Guri burdin katea  
nahi dauskue jarri».

Zortziretarako zezena narrutua eta Arestiko haize kirritan freskatzen egoken urkulutik dindilik. Laster okela sosceta egingo zan, barrabilak, ohi bezela, Alkatearen meritoari egokiozala. Txosnak han hemen biztu ziran. Ardaoa dohan, Alkatearen eskuzabalarren eta gendearen iturrira



osterak. Lapikora ala txitxiburduntxira? Ea zeinek hobeto atondu iluntzeko aparria. Ez euskuen makabeotarroi halako katurik sartuko.

Eta okelaz oka egin ondoren, gaueko hamaikak aldean, kuartetoaren dantza gonbitea. Portatu zan ostera be Uribeko kuartettoa« Gran Verbena», bezperan erditu gelditu zana, osatzeko asmotan. Hasteko pasodoble bi. Zezenkoak dantzatzeko erabili eben ritmo berbera gizakien dantzagai gonbiterako. Ez gintzazan geu halako doinura geure belau-nak txaingotzera lerraturko.

# 11

Basauriko espetxean, agorrak 15, 1974an, eguenez.

Gaur Andre Mari jaiak sikera gela barrian igaroten dodaz, eskerrak zeure bitartekotasunari. Neure eukitxoak hartu eta pozarren aldendu naz begirada mukerreko kide hareengandik.

Zuri behintzat jara egin dautsue, ez dot uste neuri egingo eustenik, hagaitik ez neuntson erdirik be konta gela arduradunari, hako uherdoak guzurtizat harturik, gelazainak berak barre egin ez eistan. Hako hasarrean zure izena aipatzeak ondore ona ekarri daust benetan. Andre Mariren mesedetzat be hartu neinke, bere eguna halako tokitan igaro beherra egokitu jatanez gero.

Espetxe lagun barriok arpegiune hobea daukee, erdaldunak eurok be. Ez ete dot euskaldunik idoroko. Edo euskaltasuna ezkututzen ete dauste espetxe honetan! Beste kideok liburu zale be ba dira behenipehin eta eurak irakurrialia neuk idaztea ez da gertatu nabarmen eta hirugarren zerura igon barik idazten dot, hatan be.

Berba gitxi egin dogu, ez da sortu dagoneko alkarrenganako konfiantzarik-edo, begirunea bakarrik eta ez da gitxi be halako tokitan.

Jaiaren omenez, bisita eguna izan dogu. Amak-eta Kaxinen heriotzaz eta hiletari buruzko zehaztasun barriak

emon dausteez. Ostera be zorioneko banderea eleizan sartzeko uztiatu gura izan ei dabe. Katxiren atauta bandereaz horniduta ekarrela, Abadeak galerazo egin ei dautse eleizatean bertan. «Ez da hau ba Frantzisko Goría, herriko agosilaren gorpua? —itaundu ei eutsoen—. Kendu eizue hori eta herriko moduan sartu eizue behar dan moduko eleizkisunik gura badozue» esan ei eutsen. Kendu ei eben udalekoak eurak eta barrero ez ei zan agertu bandera hori urteerakoan eleizako ateetara arte.

Katxin ekintzan jausitako militar baten antzera ei eroen, hiletara etorri ziren extren biba eta mueraen artean. Alkondara baltzeko Sekretarioaren lagunak hurrean. Hortik neu Etakotzat jotera ez dago asko, eta jo ez banaue, eurak be ezin sinisturik dagozelako da. Komisari zuhurrak be ez eban egin holako laprastik.

—«Pero desde luego —inon komisari arraiak, nire firma ostean, espedientea burututzat emon ebanean—, no es lo más clásico meter al alguacil en el mismo juego que el Sr. alcalde, al secretario y demás...».

Arrazoia dauka komisari argiak horretan behintzat. Ustegabeko egia esan eban, berak ez ekiala, Katxinen auzian. Katxin ezin eitekela sartu beste muslarien eineko erantzule auzi honetan. Eurak ostera, Alkateak eta Sekretarioak behenipehin, bizitzan ondo eta larregi be gaisoaz uztiaturik (aztertzea baino ez daukazu haren nominak norainoak ziran) heriotzean be euren jokurako erabili gura izan daue zanaren atauta: bandereaz estaldu haren gorpua eta hilaren gorpuaz bizirik gelditzen direnen erruak, biba eta muera batzuk ohiukatuaz. Banderea nahiko bailitzan edozein zapokeria estaltzeko.

—«...ni aún a falta de médico —jarraian komisari irrikoiak—, como es en vuestro caso».

Nik ezin neinke esan medikuen «falta» edo errua izan leitekenik, operazino edo operazino osteko ostikadea. Ez dakit udalekoak haren hiletatan lezko ardurak hartu dauzenik hospitalera jaso ebenetik eta hara. Bizitzan ez eutsen behintzat halako begirunerik izan.

Hagaitik neuk be ez dot sartzen gure Katxin neure salatzaileen artean. Alde batetik ez ebalako izan ni salatzeke astirik, hospitalera jaso ebenetik eta poliziak nire bila etorri ziraino, eta ez dakigulako bestetik konorte unerik izan dauen kaltetu zanez gero.

Hagaitik, hain zuzen be, beste barik nigan erruduna bilatze horrek aurretiz konponduriko trikimailuaren susmoa dauka niretzat. Konorterik izan baleu, eta hurrengo goizean Abadea onartu ahal izan baeben edo zeugaz berba egin, beste era batera urten leikigun auziak. Baina orain, ezbai gabe, lekukorik onena joan jakula, Udalekoak baino gehiago sentitzeko arrazoiak daukadaz.

Bestalde ni salatu nauenak nik baino hobeto antolatu eikeela istripua bera, zuzenean ez bada, zeharka. Nork bultzatu eban ezpabe Katxin Vespamotoaren enkantera? Eta ez horregaitik bakarrik, orain esatera noatzunez.

Ni bezperan eskubaltzak apurturiko kristalak konpon-tzera ninoan Abadetxera Sanjuantxu osteko goizean. Abadeak neurrira erosita eukazan, izan be, eta oporretan negonez, ez neunkan haxe baino beste zereginik.

Hamarrak inguru izango zan, Katxin bera be, beste askotan legez, arazotu ebilen plaza inguruan, txitxiburduntzilariak lehenengo eta berbenariak gero zatarrerri nahiko bildu ebelako plazako iturriaren inguru. Eta hainbat gomutagarriago jat Katxinena, orain bere heriotze ostean, muga horrek zeharo ezabatu baileuzan alkarren arteko tiki-mikiak. (Orain gogoratzen dot neuk be artean, bizi zala,

ez neuntsola Katxini, merezi eban begirunerik. Orain, berandu bada be, Katxin apur bat danon bitima izan dala konturatzen naz: udalekoak euren gurarien morroi erabili ebelako eta guk, hain zuzen be hagaitik, ez geuntsolako errespetorik).

Parka eskatzen dautsut lehenengo kuaderno horretan berataz esan arinkeriekaitik.

Gaztedi-Klubeko kristalak konpontzeko asmoz ninoan bada. Abadetxera heldu eta atea ertzidi ikusi neban. Barrura sartu eta gasolina sunda itzela, Abadearen motoa atartean idulirik eta gasolina arrastoa lurretik. Abadeari dei egin neuntsan, ez nendun lortu erantzunik ez goitik eta ez behetik. Lapurrak etorri jatazan gogotara edo bezperan bertan kristalak apurtu ebezenen esku baltza. Atea bera indartuta egon eitekelakoa emon eustan, gauzea aztertzeke unerik ez neunkala.

Leihotik eleizpean Mari sakristanea ikusi neban, beragana zuzendu nintzan.

—Ikusi dozu abadea, Mari? —itaundu neuntsan.

—Ez. Zer ba?

—Beraren bila nabil.

—Mezea esaten be ez da etorri-ta.

—Ba, motoa etxean dago.

Ez neban asaldatu gura izan Mari sakristanea neu negon baino gehiago eta Abadetxera joan nintzan ostera be gauzak arakatzera. Armairuko gure zerak ikutu barik egozan. Lapurrak ez irudien behenipehin.

Zurubian gora igon eta idazkaritzan lehenengo eta logelan gero deitu neban behin eta barrero, belarria atara iduli. Zurrumurrak entzun nebazan barrutik. «Barruan





dago, zeozer jazoten jako» esan neban neure artean. Atea idegi eta ez zan ezer ikusten ilunetan, arnasa larriaren hotsa bakarrik entzuten neban.

—Zer pasetan jako, jauna? —itaundu neuntson.

Urruma bat egin eustan, zeozer erantzun gurarik lez.

Ezin idoro izan neban argiaren giltza itxumustuan, «Bai, eurak izan dira» eskubaltzagana joan nire susmoa, «okerren bat egin dautsoe Abadeari».

Leiho zirristutik etorren argitasunera jo neban azkenik, leihatila idegi. Abadea (Abadea izan behar eban) banderaz eraturiko zakualakoan sartuta, ohean etxunda egon. Zakua oinen aldetik trunbilaz lotuta egon. Askatzen ahalegindu nintzan. Plastikozko lokarriaz eginiko korapiloa ezin izan neban askatu. Sukaldera jatxi eta apalean egoen haizto bakarra zuzendu neban. Lokarriak ebagi, zakua jaso. Oinak loturik egoen Abadea, eskuak be ostetik lokarri mota berberaz erruki barik lotuak. Zakuari tira eta tira, burutik gora atera ahal izan neuntsan.

Ahotik ostera eskusorkia eukan Abadeak, deiadarrrik ezin egiteko eran, bekokia izerditan eta arnasaren larriagaitik arpegia odolak hartuta. Odoldua eukala uste izan neban une batean. Eskusorkia kendu neuntson.

—Ito ez zaituenean! —antzi egin nendun.

Bandera ehuna sendoa zanarren, ez zan nonbait horren sarratua. Arnas bidea, antza, ondo kalkulatu eben gaizkileek. Bandera jantziago zelan edo halan, eta gogoan ezin izan ebenez gero soinean sartu.

Oinetako eta eskuetako lokarriak askatzen lehiatu nintzan. Kontura handiaz ibili behar neban haizto moldekaitz haregaz minen bat egin ez neion. Eskumuturretako lokarri arrastoak sakonak agertzen ziran.

Abadea une bat haratinik gelditu zan esku ta oinak atsedenean.

—Eskerrak etorri hazena —esan eustan, oraindino arnasea bardindu barik eukala.

Laster erdi jagi eta ohean jesarri zan.

—Minik egin deusue? —itaundu neuntson.

—Ez handirik be. —Begiratu nindun—. Hurrengoan ahotik sartuko eusteela agindu jaustek.

Beragaitik zeozer egin ete neinken edo itaundu neuntson.

—Ez eiok esan inori —erregutu eustan.

Lokarriak batu eta banderazko ehuna tolestu neban.

—Ba dakik zer egingo joagun horregaz? —Betikara alaia erakutsi eustan Abadeak—. Erre egingo joagu eta datozela geuri kontuak eskatzen.

Abadearen sekretu hau gaur arte gorde dot baina honez gero dana jakiteko ordua dala uste dot, zeuri dogokizunetik behenipehein. Zeure argibide eta zuhurtzirako bakarrik dinotsut, halako auzitan sartuta nagonez gero. Gauzok gogoratzean bart erdi lotan asmatu koplaz esango dautsut:

«Banderaz sotanea  
egiten dauenak  
erleginoaz bardin  
daikez karnabalak».

Hagaitik dinotsut, neuk be neure salatzaileak salatze-ko arrazoirik ba dodala.

Abadea arpegia garbitan iharduan eta irainaren trapu-kiak jaso eta sukalderantz ninoan.

—Itxaroik —dei egin eustan—, hori neuri tokatzen jatak-eta!

—Sekretoa ez ete da ba biona?

—Ba biok orduan.

Atarira jatxi eta moto idulia jaso neban. Gasolina arrastoen arriskua ohartu neban. Abadea zurubi burutik etorren.

—Hortxe izan zoan —esan eban—. Ateetan itxaron eusteen berbena ostean. Artean, badakik hemengo zaratak amaitu arte, ni etxera etorri be ez. Hasieran jai osteko hiru mozkortzat hartu naioazan, baina «te traemos un regalo» erderaz esan eustenean, susmo txarra hartu nieuntseen. Berandu ia, haizto txikia erakutsi jeustan euretariko batek. Beste biek kuku antipar baltzak ekarrezan eta gero badakik.

—Eta zergaitik zan esan eutsuen? —itaundu neutsan.

—Ez egoan esan beharrik, ez dok? —Barre egian Abadeak.

Sukaldera jo gendun, trapukiak txapan sartu, sua emon geuntsen. Tximiak ez eban tiratzen, keak hartzen gindun sukalde dana. Sarrerako atea atakatzeraz joan nintzan, Mari sakristanea-edo kuskusean etorri ez ekigun. Orduan konturaku nintzan ateko giltzak ondo egozela.

Trapuak txapatik atera eta tarratadaz zerrendak egin genduzan.

—Ez jozak iruntzi gura —esan eban.

—Abadetxeko tximiniaren, iguinak... —jostatu neutsan.

Moltso txikerragoak emon eta keak hobeto hartzen hasi zan tximinia; plastikozko lokarri eta guzti dana iruntzi eban azkenerako. Kolorezko kimia suaz nahastatzean, amorrutzko distiralakoak urtikatzen ebazan. Tximiniak ez dakigu ze koloretan jaurtiten ebazan zerurantz ke irabiatu hareek, baina auzi garbiketa bat egin gendulakoa emon gendun Abadearen eta bion artean. Geure isilekoa.

—Oraindino gosaldu barik egongo zara. —Arduratu nintzan.

—Orain ezer hartuko banendu, dana okatuko neunkela uste joak —erantzun eustan.

Konpondu beharreko kristalak begiratzera ninoan. Katxin etorren orduantxe plazatik zehar karretilegaz.

—Alkateak-eta ba ete dakie triskantza honen barri? —itaundu neuntson Abadeari.

—Udalean izan balitz bai —erantzun eustan berak hako betikaraz—. Honez gero bai norbait lotsak emoten etorri be gurera.

—Ba... haxe be ba da! —Susmo arpegia erakutsi neuntson—. Abadetxekoak ez eta Udalekoak danak osorik urten dauela.

—Bai, harenak gureak baino goragotik diaukazak bentanak, euki be —ohar egin eban.

Abadea armairura begira egon; bertera deitu nindun.

—Baliozko gauzok. —Seinaltzen eustazan—. Batez be tokadisko ekipo osoa hemendik atera eta zeuen etxean gorde behar dok. Horrek multea kobratu gura joek...

Zurtz gelditu nintxakon, zer erantzun ez nenkiala, edo zergaitik esaten eustan ezin susmaturik.

—Ostera be etorri egingo dozak baina egunez eta kuku antiparra barik. Bialdu jaustiek abisoa eta bestelakoan zemak be bai. Ez daistiela egin neuri abade lagun bateri egin dautsiena: generoan kobrau. Ez jotsiek ba telebista barri-barria eroan?

—Ohostu, esan gura dozu?

—Ohostu edo baitu —ziurtatu eustan Abadeak—. Legearen zuzenetik aditzen emon, dana dala, haren aplikatzen.

zinoa be ona dala gure kasuan. Beraz gorde honeek. Bestela —keinuketa zuhurraz begiratzten nindun—, neureak direlakoan, horrek rau eta kitu.

Kristalak konpondu ondoren, lehenengo gauzea haxe egingo nebala agindu neuntsan: etxera eroan diska-soinu eta enparauak.

Harrezkero bion eskuak masilatan sarturik geunkazan, batak untze lanari eta besteak masilarenari oratu geuntson arte. Leiho markoak ardatzetik eten eta mahaigainean eratsuago konpondu genduzan.

Armairu gainean eskutau neunkazan amesetako kartulina ebagi hareek bertan kristal gainean ipini, gainetik spray zuria txipristindu eta behingo baten agertu zan ostera GAZTEDI-KLUB gure izen harroa, egun bi hareetan ezertxo jazo izan ez balitzan lez.

Eskuak garbitu eta gorde beharreko gauzekin etxera ninoan. Abadeak mezea esan behar ebala esan eustan. Ia hamabiak joteko eleiz torrean. Ezingo nebala halatan bakarrik itzi eta mezea erazotera joan nintxakon.

Mezatatik urten eta Urigueneko plazea betiko bake santuan begitandu jatan. Donien sugarrak izan ete ziran arteko suminak?

Auzoko neskatoa iturritik etxerantz joan pitxer ura eskuan eroala. Egarritu sentidu nintzan. Iturrira hurre-ratu, zutarri buruko plakeari ezikusia egin eta iturri hare-tatik edan ala ez edan egon nintzan une baten. Zurrutada luzetxoa egin neban. Gogoan dot haren freskura gela sar-goritsu honetan.

«Plazako iturritxu,  
soinu menditarra,  
zikindu nahi zaitue,  
baina garbi zara.

Iturburuak goitik  
daukazan herriak  
nondik asetu daukaz  
bere egarriak».

## 12

Basauriko espetxean, agorrak 16, 1974an, barikuz.

Ikusten dodanez zeuk be, auzimaizu jaun, bide zido-  
rretik jo nahi dozu helburura. Ez dautsut itxurgatzen. Zure  
eginkizuna ez doa ezinaren bide ohoretsutik, ahal dan mo-  
duan hareago neure egoera gozatzen, neure auzia garbitzen  
baino. Hau da, espedientearen kontrara barik, haren era-  
tara gura zenduke erabagi. Hala dala uste dozu posible  
dan biderik bakarra, batez be Katxinen heriotzeaz niretzat  
gauzak gordindu direnez gero.

Izan be, Espedientea aurkeztu izan dan eratan, eta  
batez be, salatzaileen gorentasuna ezagutuaz, ez legoke  
beste urtenbiderik, euren zigorrari bezala, euren eskuza-  
baltasunari men egitea baino.

Ba argi dago esan dautsudazanekin eta oraindino esa-  
teko daukatsudazanekin, auzian lagundu beharrez, estre-  
pozuak baino ez neuntsuzala ipiniko, neure- neuretxua zan  
auzian Uriguene guztia dantzan ipiniaz. Arrazoia eukan  
nonbait komisari arraiak «no eres tú el txistulari de...»  
itaundu eustanean. Baina zuk neure defensa soila hartu  
zendun arduratan eta ez Uriguene guztiarena, eta neu ha-  
inbat arinen askatzeko ahaleginetan diharduzu, bideok  
egokienak direnez begiratu gabe. «Joanak joan» esan eta  
inor mindu barik atera gura nozu. Horixe zan izan be,



zure eginkizuna: salapen horrek nigandik hurrundu. Nik ostera, salapenok salatzaileei itzultzeko eskatzen dautsut, eta zeuk goiztion, ezusteko bisitan esan daustasunez «baina zelan egin leikez abogadu batek bere aldeztuaren aurkako litzakezan salapenak?». Bai, konturatzen naz, konturatu, susmo dot behenipehin, alde hortatik begiratuta (hau da, gaurko epailarien zuzentasuna ikusita) kalte gehiago egin leikitela mesede baino, salatzaileen aurka hemen esanak, egia biribilak direnarren.

Zeu bide praktikora zoaz, gure ama lez. Atzotik neukan belarrian sartuta «tira, seme, multa barik izango da, ahal bada; baina horretarako Alkatearen errekomentazioa beharko dogula uste dot...».

Ez neuntsen jara handirik egin, amaren lokametsak-edo zirelakoan. Orain argi dago aurretiaz eskolatu eta neu eskolatzten etozela. «Zeuk eskatuko bazeuntso, seme...». Zer eskatu baina? Errekomentazioak Alkateari? Jo! Nire amak zer egingo ez leuken ni hemendik ateratearren! Nire aitari zenbat kostako litzakion barriz holako eskabideekin Alkateagana joan beharra! Ez neunke gura neure pupuok direla-ta, bere burua hainbestearaino apalduterik. Lehena-goko politika arazoetan ezeze, auzotasuneko tikimikietan sarritxo mokokatu izan direna ez banenki... Zertan dator orain guzur haizeko berbaz gauzea garbitu gura hau? Argi daki gure aitak; neuk esanda, auzi hau be burutik oinetara politikeaz kutsatuta dagoana.

Baina gurasoak enplastuzko konponbide hori ontzat emongo baleue be, ni ez nengoke konforme. Hori espediente honen harira etortea litzake. Hori Alkatearen jokerea txalotzea eta bera. Gomendiozko karta bat Alkateari? Horixe. Baina Gaztedi-Kluba hainbat arinen ideki daian. Abadeari geure artean baketan biziten itzi deion.

Hortarako prest nago, ez neuretzat ezer eskatzekotan. Eder legoke nire zuzentasuna haren firmearen beharrianetan balego! Ikusiko zendun txostenaren azkenean harako:

—«Dice el inculgado, no estar conforme con el hecho de aparecer en el informe los nombres de los señores Alcalde y Secretario del pueblo». Hori ete da funtsean Alkateak-eta itzulikatu gura leukeena? Salapen haizeak erregu girora erakartea? Esanak esan eta jasanak jasan, hareexek izenak atzindu, Katxien heriotzeraz gero, gainerako zorrak kituta bailegozan? Ez horixe! Hain zuzen be, ohartxo hari eskerrak, etorri zintxatazan zeu be, kuadernoa eta boli-grafoa eskuetan, komisariak entzun gura ez leukezanak ipiapan idatzi nengizan eskatzera. Ba ahalegindu natxatzu. Uste baino garratzagoak urten dauela nire lerrook? Ez egokidala nilako mutil bateri halako muslari makurrei ordagorik botatea? Joku txarrean sartu nazela? Baleiteke txarren jokuan sartzea eta ez neure borondatez. Niri euren karta markatuak salatzea egokidan.

—«Y sobre todo no estoy conforme —esan neuntson azkenik komisari arraiari— porque en una acusación de sabotaje a una moto concreta, no se hace constar que la tal moto era precisamente la Vespa injustamente requisada al Sr. Cura del pueblo».

—«Tanto peor para usted, si se hiciera constar. —Nere oharra ez ipinteko aitzakiak bilatzen ebazan komisari zuhurrak—. En tal caso, no solamente sería mezclar a un simple alguacil en el juego del Sr. Cura (tanto da golpear el jarro con la piedra, o la piedra con el jarro). —Komisari hizkitsuak zigarroa biztuteko unea hartzen eban, unadaka begiratzen nindun—. Sería la prueba concluyente de que lo hiciste para demostrar y hacer más notoria el dicho de que el que come carne de cura revienta.

—Esa es precisamente la cohartada de ellos —esan neun-ton son ia atetik, atzera begira, ilunpera nindaroela.

Jo! Komisari zuhurra ez zan bat be harritu, esan neun-ton naz. Niretzak jokua konplikatzeko klabea zan. Komi-sari arrai arraio harek ba ekian haren barri eta dana itzu-riten eban, salatzailleak auzitan ez nahastatzearren. Ez eben gure Abadearen izena agertzerik gura, gende bikainagoa-gaz aurkatzeko ez eukelako harean adorerik. Errezago ja-ken bildotsa seinalatu eta sokak ebagi, hariaren luzea euren izenak zipristintzera heldu ez eiten.

Jakina da ba gure Abadeak ez dauka multarik ordaindu, ez eta beralako beste abade askok be. Agintaritzak iraul-garri emon eban abadeen jarrera; apaldu egin behar ziran zelan edo halan. Ordaindu ez ebenei zeozelango erredizak baitu eutsezan. Gure Abadeari, motoa; herriko ta beste albo herriko auzo bitan eukazan abade zereginetako beha-rrezko laguntza harean. Egunkarian be euren mokordo-txoa ipini eben. Uriguengo abadeari motoa baitu eutsoela, artean ordaindu barik eukazan multen ordaingarri. Beste barik, hau da, gure Abadeak bere eritsia emoteko modu-rik ez eukala.

Zeozer egin behar gendun geure Abadearen alde. Os-tera be Gaztedi-Klubekoak ahaleginari emon geuntson. Diru eskabidea egingo gendun Abadeari moto barria eros-teko asmoz. Errespetatuko eutsen gure erregalua? Gauzea aurrerratu geunkan, ni oratu ninduenean. Nire beste lagu-nak portatu dira, Anemiren nire andregaia, jakin dodanez, aurreren izan dala. Orain gure Abadeak moto barria dau-ka, Katxinen zoritxarreko istripu haretan erre zanaren or-deko. Luzaroan goza daiala opa dautsot bere egin-kizunetan.

Santiago aurreko astean izango zan Abadeari zoritxarreko motoa baitu eutsonekoa. Santiago bezperetan izan zan subasta dei bat Uribeko plazan. Enkantean saltzeko egozonen artean gure Abadearen motoa agertzen zala ohatu gendun, bai eta behingoan antolatu gure salapena edo motoa askatzeko amarrua. Ez geuntsen itzi behar bereaz urteten. Subasta orduak zaindu eta arpegia emotea erabagi gendun.

—Hauxe dok gurea!

—Ez joagu itzi behar moto hori gorakutzen.

Abadearen motoa ikutu ezina emoten gendun; geuretik egozela arrazoi guztiak. Eta ikaragarrizko laguntza aurkitu gendun kalekoen artean be. Haulako esloganak asmatu genduzan, esateko eta karteletan erakusteko: «Vespa de cura no es segura». (Hortik oratu eta gaitue, naue salatzaileak?) erderaz batzuk, euskeraz besteak: «Erbí ordez katu, Vespa horregaz kontu», «Moto hori ugazabari», etabar.

Subasta egunean, Uribeko plaza zaharra gendez betetzen zaneko, punturik egokienetan zabalduko genduzan, hatarako neskak eta mutilak parte hartzen gendula, batzuk kartelak zabaldua, besteak ohiukatzen eben artean.

Ez zan astelehena, baina Santiago jai bezpera zanez-edo, jendez bete zan Uribeko plaza zaharra arratsalde erdiraz gero. «¡Lote de alfombras! ¡Televisor Telefunken, 20 pulgadas!» ijito arpegiagaz oihukatzen eban subastagaia arduradunak, zerrenda papera eskuetan ebala.

Gendea plazako kioskora begira; han emakumezko batek, oihukariaren esanera erakusten eban subastagaia. «¡Moto Vespa en buenas condiciones! ¡Porcelana fina...».

Turkiako alfonbrekaz hasi zan gorakadea: bost milla,

sei milla, hamar milagino berotu zan gendea. Ez eban gogago egin. Beraz azkenari egokitu jakon.

«Aparato Televisor nuevísimo, inmejorable estado...» ederra sakatzen eban oihulariak diru gorakadea hasi aurretik, emakumezkoak Telebista isiotu egin eban, une-unekeo emisioa emoten eban, «nongo abaderi ohostua ete da tresna hori» nik neure artean.

Etorri zan gure ardurazko motoaren goralpena be. Oihulariak mikrofonoa itzi eta kioskoan bertan Vespea biztu eta motorradak eragin eutsozan. Irritzi fina eukan, zaldi ipertuikariaren antzekoa. Motoa itzali eta eta hogeita mila pezeta bere prezioaren erdia zala ziurtatu eban. «¿Quién da más?» kandlea biztu ebaneko, orduan hasi zan gure erantzunen zaparradea.

—«¡Moto robado, de balde es caro! ¡Moto robado, de balde es caro!» —inoan alde batetik koruak.

—«¡Vespa do cura non e segura! ¡Vespa do cura non e segura!» —inoen gailegoek bestetik.

Uribeko gailego taldea ondo eskolatu geunkan, eurentarikoak zirelako gehien bat halako txatarraren eta txatarra ez zanaren bila joan ohi zirenak. Ondo erantzun euskuen.

—«No sé lo que oigo por ahí, señores». —Arnasea ostaz hartzen oihulariak mikrofonotik—. Obserben una moto en buenas condiciones. Debe haber un error... Es una compra segura, a más no poder ser».

Kartelariak batabesten sorbaldetara igonik gende taldearen adikunea ekarren, irakurleari auziaren barri emonaz. «Urigurenako Abadearen motoa da» inon honakoak euskeraz, «No hay pesquisa de la requisita» salatzen harakoak erderaz.





—Vespa-moto hori, bere jabeari! —hots egien euskaldunak.

—«¡A moto do cura naide puxa!» —puntuatzen eben gailegoek.

Gendea behingoan asaldatu zan euren artean maizea-tzeraino: «jakina, bakotxari berea» esaten entzun neban, eta beste hau «honeek lapurrok, izan be...! Batek ba daki non ohostuko eben!».

Hareek ez ekien, guk bai.

—«Piensen, señores; es una buena oferta —ez eban etsiten oihulariak—; no se dejen llevar a engaño».

Sortu gendun nastea ezin ulerturik edo ulertu gura ezik, guk euskeraz eta erderaz esaten geuntsonarren, eskeintza beheratzeko amarruak zirela-edo uste eban, antza.

—«¡Por fin, señores! —gurenda jo eban oihukariak—. Aparece un interesado por ahí».

Zer? Nor? Nor gero? Nor izan da? Ohiukariak begiratzen eban alderdira begiratzen gendun. Nor zan gen-detartetik kioskorantz bidea ostaz egian gizontxua? Ez gendun sinistu be egin gura gure begiak ikusten ebena. Katxin, herriko agosila bera, geure Abadearen motoaz jabetu gurarik.

Beragana zuzendu nintzan, beste kartelari eta korukoak be kiosko aurrean aurkitu gintzazan, Katxin erdian hartu gurarik.

—Baina nork bialdu hau saldukeri honetara?

—Bakean itzi naizue! —Belarriak gordetzen ebazan Katxinek gurerik ez entzutearren-edo.

—Judasek hogetamarrean erosiko joan behintzat!

—Neure diruaz erosten dot —eragoion Katxinek.

—Ez diagok inorena dana erosteko dirurik eta! Burua saldu dok!

—Hi ez haz sakristau, Katxin, Abadearen herentziaz horrela jabetzeko —ziztatu eban neska abotsak.

—Gainera Vespa hiretzat arriskua dok bidean...

—Hori andregaia daukanentzat dot, Katxin. Edo andregaia be saldoan erosi behar dok Vesparen apapa eroa-tekotan?

—Hiretzak hobeto diatork hako Guzzi zaharra edo beste motoziklo bat. Vespa ipurtarin hezigaitza dok.

—Itzi eiok hori Alkateari, berari ea behingoz musturrak apurtzen jozakan.

Zer ez geuntson esan neska eta mutilon artean Katxini, halako behareekutik gizona atzeratzearren. Ez gendun lortu ausaz geure marmariekin Alkatearen belarriak berotzera joan eiten baino, eta zelan berbaz eraso geuntson geure amorruan. Katxin gaisoa! Burugogorkerian bertan eroaken hurrean zigorraren eztena, aurretiaz alperrik ohar-tu geuntsonez, erosketa-saldukeria haretatik aldendu gura izan gendunean.

Hanartean enkantea aurrera joan, baina oihukariaren «porcelana fina» bera baino auskorrago genkusan geure egoera toki haretan «orden ciudadano» agindua horren nabarmenkiro lorrindu genduenok eta harrezkero poliziak nondik sartuko susmo gendunetik barik bestetik hanka egin gendun, frente batean galdu eta gero hainbat larriago aurkitu ez geintezan bestean.

Handik hiru egunera jazo zan Katxinen zorigaiztoko istripua. Katxinek arteetan bere Guzzi zahar, ia erretiratuaz, maiz ibiliak eukazan Jainkoaren bide hareek. Baina



Vespaz ez dakit zenbakarrena izan eiteken, gauzez hatan be eta Zubieta arru gaineko burra biurri haretan jaso zana, eitekena, gerta eiten.

Ez ete daikie horren barri gehiagorik istripuaren kaltea hain errez inoren lepotik salatu ebenek? Harrigarria be bada, gauzak alde batetik horren argi ikusi eta, bestetik dana ilunpean gorde-gurea. Komisari argiak ez ete dauko itaunketarik beste inori egin beharrik? Ba dago lekuko ziuurrik. Neuri galdetzen ausartu ez zanez gero, galdetu beio Anemiren neure andregaiari: «¿a qué hora os retirastéis tú y tu novio aquella noche?». Itaundu, galdetu, komisari zuhur. «¿Hasta qué horas estuvistéis juntos?». Egiztatu ea herriko agosila gazteak baino beranduago erretiratzen ete dan. Anemirenek ba dakiz nire orduak. Anemiren bizi da, berba egin leike, testigutza emon. Itandu Anemireni. Ala maite historiak-edo urten daikenaren bildur zaree bildur erregimenaren mutilok?

«Esaizu, Anemiren,  
esan dakizuna,  
auzigai hau sor daiten  
oi, maite ipuina».

Hona hemen, auzimaisu jaun, plazako iturriaren inauguratetik eta honako bost hilabeteotan Uriguenen jasorikoen barri. Eurotariko gehiengo oraindino bi hilabete ez direla gertatuak dira, azkenak barriz, ostaz hiru aste. Kontakizunok nire auzi eta zigorragaz zerikusirik ez baleue, ez nengoke ziur hemen opor egunetako lan berezi hau egiten.

Eskerrak ostera be, zeuk nigan sortu zendun idazmaniagaitik. Lan atsegina izan jat benetan. Berau amaitzera koan ez dakit zegaz beteko dodan bakardade hau.

Dana dala be, merezi ez dodan zigorpetik badaezpada-  
dako konponketaz askatuko baninduzue, nere uste eta eri-  
txiok isilpera kondenatuko zendukeez. Soinez kalean nen-  
goke, baina gogoz neure kuadernoon papertegian. Eta ez  
nengoke konforme.

**Post scriptum:**

Jasorikoon garaitik ia hamairu urte direla eta aspal-  
dixotik demokrazian bizi garelarik, Urigueneko kontaki-  
zunon kuadernoak papertegitik atera eta herriari iragartea  
erabagi dogu. Abenduak 30, 1986an.